


JAKIN

EUSKAL-GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN



15

AURKIBIDEA

TEOLOGI TA FILOSOFI SAILLA

| | | |
|--|------------------------------|----|
| «Berri Ona» etorri zauku | A. Erdozaincy-Etchart | 12 |
| Teresa Deunaren irakatsiak | Sekundino A. | 27 |
| Balmes eta Kant jakinduriaren asieran | Arregi'tar R. | 41 |
| Elizarenak egin ote du? | Osa'tar Eusebi | 49 |
| Jaungoikoaren itza liturjian | Eizagirre'tar J. G. | 62 |
| Etika berria | Izagirre'tar F. | 68 |

KULTURA SAULA

| | | |
|------------------------------------|--------------------------|----|
| Ederraren atsegina | A. Albizuri | 2 |
| URSS'ko kultura soka-tiran | Olaberria'tar I. | 7 |
| Erri baten misterioa | Arruti'tar D. | 34 |
| Desarmeari begira | Azurmendi'tar J. | 53 |
| Gaztedia zaarkeriaren aurka | L. M. Arantzeta | 75 |
| Patxi Eskudero | Ibarbia'tar J. A. | 77 |

ELKARRIZKETA

| | | |
|-------------------------------------|--------------------------|----|
| Idazki agiri bati erantzunaz | Aldapeko | 16 |
| YAKIN'i eta | Crixe | 48 |
| Eskual adi-bitz batua | Zulaika'tar Sabin | 59 |
| Nora eroan gura gozuez | Aurraitz | 73 |

SASKI NASKI

Oarra: 6; Liburu berriak: Jokua ez da errenta, Labayen: 15; ta Loramendi'ren Olerkiak: 26; JAKIN-sariketa: 32; Idazleeri: 39; Liburu berriak: Nere izena zan Plorentxi, A. Villasante: 60; Azken Poema, G. Aresti: 87; Euskera ikasi: 88.

SAL-NEURRIAK

| | | | |
|------------|---------------------------------------|------------|---------------------------------------|
| Españi'an: | { alea: 17 pta. { urtekoa: 50 pta. | Atzerrian: | { alea: 25 pta. { urtekoa: 75 pta. |
|------------|---------------------------------------|------------|---------------------------------------|

Jakin

(Pro Manuskripto)

15'gno. Arantzazu'n

Loraila-Dagonilla

1961

Depósito legal: BI 341 - 1961 - Gráficas Bilbao - Bilbao

Orra, azalean, bi izadi aurrez aurre: aintzinate zaarra ta gaurraldia. Millaka urte tarteko: lau, zortzi, amar milla... Ordurako Santimamiñe'ko euskaldunak artista genituen. Orain ostera, artistak ezezik baditugu jakintsuak ere. Aor Joxe Migel Barandiaran. Bi oriek daramate gure kondaira.

Sinbolu bikaiña dugu: leenari begira, geroari ekin. Entzun eta jarraitu, ikusi ta ikasi. Giñanak izan eta jatortasunean sustraitu etorkizun gaztea. Arbasoen izanari ukorik iñola egiteke, leiatu kondairaren einera igotzen, eta emen zutik irauten.

Bultza, gazteok, euskal arima zaarra —bainā ez zaartua— bide berrietara.

EDERRAREN ATSEGINA

A. Albizuri

—Karmeldarra—

Or-emen berein sorkari dauzka-
gu, Jaunak bere begiratu soillez
ereiñak noski. Ta ederra ez izan
besterik, gauza ta sorkari edo iza-
kien doi ta, asetasuna baiño. Osoz-
ko asetasun eder onek, ezagutuz ge-
ro, egiaz atsegiña damaigu. Ederra,
beraz, egia ta ona bezelaxe, sorka-
rien gogai gaiñe-gaiñetikoa besterik
ez dugu. Egi, On ta Eder mailla ba-
tekoak dira, naiz-ta sorkari berbe-
raren erlantz ezberdiñak, neurkeran
luze, zabal ta sakon iru ikuspegi
bestelako bezela.

Ertiak, arteak, osterak, ederraren
azalpena du jomuga. Eta ertiak,
—ein, era ta kideasuna oiñarri—
gizaki bakoitzaren barne ezigean

eder-atsegiña sartu ta edatzen ari da
bereziki, bai ta gizartean olako oi-
tura neurritsu ta alkarrekiko ekan-
du leunak sor-azi ta tinkatzen ere.
Barruti ontatik at dabillena ez da
erti, naspil ta zentzungabeko jokua
baizik.

Jakintsuak antziña - antziñatik
eder-kezkaz ibilliak ditugu. Platon,
Plutark, Aristotele, Plotin eta beste
asko ederraren muin-lezera iritxi
nairik ibilli ziran, maiz beuren
errazoiketan larregi lausotu ta mur-
gilduak izan arren. Augatik ez di-
tugu beti ta itsu ontzat artu bear
aien iritziak. Augustin donek, au-
rretiko jakintzale aipatuenen aburu
ta usteak azertu ta borobildu ondo-

ren, bere ederkera berezia osatu zun: ederrari dagozkio doai auek, batasuna, osotasuna ta kidesasuna. Bere *Aitorkizunak* etan, barne-zokoa asazkaturik, au diotsa Jaunari: «Ezer ere ez litzakean eder, Zugandik ezik».

Urteak geroago, Toma doneak ere gogai berberak azalduko dizki-gu. Zer sorkari eder ote? Gure animaren ezagumenak nun aurkitzen du —ikusiz— poz ta atsedena? Orixe baituzu eder. Itxaso, mendi, ibai, gizon, emakume, erti-lan, edozer, ortarako aiña baldin bada, ots, guri poza atsedena, atsegiña ekarteko beste bada, eder duzu ori. Era, neurri ta dirdai, iru doai; ezagun gauza edo sorkari batean irurok badauzkagu, ederraren osogai dira-ta, ederra dugu or. Batez ere, ezagutu gai aren eta adimen-indarraren artean olako kidesasuna badaurkigu, orixe dugu edergiltz. Gure adimenak atsedena didoro era ta neurriko gauzetan; naste ta erarik eza, ordea, nardagarri zaio. Ondorio: adimenaren atsedena-leku eder berekikoa da, ots, izaki baten ein. doidasun, taiu ta dirdaia.

Eder ta on bat bera izan arren, adimen-jokuz berezi ta banatzen ditugu. Onak gaiari buruz nai-griña esan gura du; eder-gogaiak, oster, ezagumenakin du ar-eman geiago. Ona begiko zaigu; ederra, atzi ondoren, atsegin. Barne-zentzunik argienak, ezagumendunak, errazoiari geienik laguntzen dietenak, —ikus-

mena ta entzumena— dira ederraren ezta berezikien jaso ta artzen dutenak ere. Eder sumagarria lenen ezagutu ta jasotzen duen barne-indar beiñena adimena duzu, irudimena ta kanpotiko zentzunak laguntzaille bezela darabilzkin arren. Ortik Toma doneak: *Pulchra dicuntur quae visa placent*, eder dira ikusiz atsegiña damaigutenak. Baiña ez bakarrik sein-begiratuz, bai ta adimen-oratzez ere.

Ederra egin ta biribiltzen duten doeak iru dira: betetasuna, eratasuna ta dirdira. Onela aspaldi Aristotelek, geroago Toma doneak eta oraintsu Hegel'ek, gutxi gorabera.

Betetasunak, bikain izateko, izakiaren osotasun aundi, bizi ta indartsua esan nai du. Auxe duzu betetasunaren alderdi baikorra; ukatzekoa, berriz, akats eta utsik eza, arrunt edo erdi-ausia ez izatea. Era, eiña ta *doitasuna*. ordea, gure adimenaren izateak berak —bakan ta soilla baita— eskatzen diguna da. Askotasun eratsua, eiñezkoa, doidoia, eder zaio gure adi-indar goitikoari ta gure gogoa sor ta ler jartzten du, olako atsegin-euri niriñituz barne osoa gozaturikan. Eta azkenez *dirdira*. Argia berez dagokio gure adimenari, argi gabe begiak ez bait-dute ikusten, ezta adimenak ere, ta ezin ikusiak edo ez ikusteak goibela dakarkigu barruna. Gure adimenak orobat aurrean dauzkan gauzak ikusten ez baldin baditu,

miñaren zamape larrian neketan dago.

Izan ere, iru ekai (elemento) ontatik garrantzitsuen dirdira duzu. Gauza bat oso izanda ere, gai ta zatiak oro eraz ta neurriz eukirik, urgitasun edo dirdirarik ezpadu, ura ezagutu ta artzea ez erreza, oso zaila baizik, argitasun edo dirdirarik ez badu, ura ezagutu ta, artzea ez erreza, oso zaila baizik, eta adimena nekatu egin oi da lan orretan. Bestera, osatzen duten atal, zati ta ertz guztiak eraz ta asez, dirditsu argi dagienean, askotaz errezago nabaitzen dugu izakiaren bikaintasuna. Eta ura ikusiz bai artzen dugula poz-atsegin asebetea! Dirdira au baita izakiak beren eder-gai barnekoenak azaltzeko erabilten ditutenak; eta gure adimen-zelaian olako ikuste errez osoa piztu-azten dute ezari-ezarian.

Zernaitako izaki, gauza batek aipaturiko osoki edo gairen bat palta ezker, urgun ta erren gelditzen dala aitor bear. Eta erren-izate orrek, esan dugunez, reke ta oiñazea sortzen. Egia esan, ez da errez atseginaren eta oiñazearen sorkia nun dagon jakitea. Munduan izan diran jakinzaleen artean deztera zorrotzez aztertua izan da auzi edo arazo au: alare, buru bezin aburu daurkigu.

Jakitun eta pilosopu auen artean batzuk adimenez aitzen ematen digute atsegin-oiñaze iturria, edo berdin, adimena omen da bi tasun oien sortoe. Orrela antziñako estoika-

rak, Deskarte'k, Leibnitz'ek, eta abar. Gure barne edo kontzientziaren egoera, ots, oldozkunaren alderdi ta ertzak, besterik ez omen dira atsegiña ta oiñazea; ta adi-atsegin orok onaren ala txarraren gogai—ideia— bat darama aurretik, gu geitu edo pitintzen gaitun gauzaren bat noski. Adimena duzu gogaien zizku, gure barneko igikunen sortzaille, gure oiturazko zauskaden iturri; gizakiak, beraz, abere ta patariak baiño areago atsartu ta jasan oi du. Zer dala-ta? Adimen-jabe dalako, egin-egiñean. Atsegiña ta oiñazea bi gertari dira, kirio-multzo ta barneak baldinduta dauzkagunak. Bai kirio-eraketa bai barne-zokoa, ordea, gizakiengan askoz ase ta ornituago dira abereetan baiño; gizakiak, bada, gozatu ta jasan ere biziago egin oi du.

Beste jakinzale batzuk ekin-ustari edo aburua (teoria de la actividad) dakarkigute. Ta aburu onek ertz-begi bikoitza du: ezkor-zaleena ta baikor-zaleena.

Ezkor-zaleak (pesimistak), Epikur'ek lenbizi ta Schopenhauer. Hartmann ta gaiñetikoak gero, au irakatsi zuten: munduan nabaitzen dugun gertakari egiazko ta lenena oiñazea dala, ta onek ekiñean, egitean omen du bere sorburu: ekiñak, izan ere, beti dakar leia, indarra, alegiña. ta au berez zaigu oiñazetsu ta mingarri. Atsegiña, beraz, ezeri lotu gabe bizi izatean datza, kezka naiz urduri litzakigun orotik alde

ta iges egitean. Baiña indarketa oro ez duzu neke, bizi-ikasiak dirauskunez. Ustari onek gaiñera sorgor ta zabarkerira garamazkiguke, ta zillegi zaizkigun atsegin askotatik urrutiratu ta gabe-leize illunean murgildu, batez ere adimenari dagozkion atsegiñetan, eta ez ditugu auek pirtxil makalena.

Baikor-zaleak (optimistak), ostera, Aristotel buru dutelarik, atsegiña ekinetik datorkigula diote. Ona jakitun aren itzak: «Ekiñean datza noski ongune ta lasaitasuna. Egitea edo ekiña bera ez da atsegin, ezta ekinñaren barne-doe ere, baiña bai iñoiz palta ez dan geigarri, gaztetasunari lore bezela azkenerantza geitzen zaion asetasuna». Eta egite bakoitzak bere-bere dun atsegiña dauka.

Ekiñak azaltzen digu, beraz, bai atsegin bai oiñaze. Atsegiña —oarpenez dakigu— elburuari loturik dagigun gauza pozgarri ta ongi osatutik sortzen zaigu; oiñazea, berriz, elburura gabe manku bezela gelditu zaigun egipen urdurikatutik. Ezer tan ez ezertarako zirkiñik ez dagian izakiak, enbor bat esaterako, nainora aldatu, ez du kexurik, jo naiz zauritu ez dio ardurarik: arengan ez baita atsegiñik, ez naigaberik. Izakiak, bada, atsartu naiz jasateko, barne-egipena bear du naitaez, berenez igitzeko gauza ta gai izan bear. Bai ta oartuna izan ere, ez luke ezpabere ez atsegiñik ez oiñaze-

rik nabaituko sentitzen dunik jakin gabe.

Onezkero, ondoren jatorrez esan genezake, atsegiña ekinñaren jardunari lotua daukagula. Eta atsegin mota bakoitza egite berezi baten ondo, agerkuna dugu. Zein da orduan eder-atsegiña dakarren egipena? Gogarpena, alegia. Augatik diñosku Toma doneak: *Pulcrum autem respicit vim cognoscivitam*. Atsegin oro giza-adimenaren iñarkun edo jardun egotik dator, ura iturritik bezela; ots, ekin edo eragite indartsu ta eratutik. Atsegin orok, beraz, gure almenen eta beuren arteko gauzaen zelanbaiteko egokitasuna eskatzen digu. Toma donea aspaldi dala oartu edo konturatu zan onetaz, au bait-zion: «Ederra ein (neurri) egokian datza, zentzuna baita atsartzen gauza eraz ta einz borobilduetan, here antzekoetan bezela». Ortik gauzakiak adimen-indarrereri lagundu bear diote, aietan sor-aziz ekinñik gorengoena nekerik gutxienakin.

Baiña zer alde, diferentzi al dago eder-atsegiñaren eta besteen arten? Auzi au ebazteko, Kant eta Schiller eta beste gaurko eder-zale askori jarraituki, gure adi-almenetan ekinera bi ezagutzen ditute: 1) *Etekin gabekoa*, au da ekin txibena, *lana*, gauza on bat jomuga duna: atsegiña gauza on orrekin jabetzean datza. 2) *Eder-ekiñeo*: au asmoz etekindun duzu, ez baiña egitez, jolasezko ekiña baita. Ez du elburu

ezer ere irabazpide edo bearrezko danik; bere burua du jostailu, ta ez du heste zerik buru orri ats-eman eta ats-emaite ortan gozatzea baizik. Asiera bai, etekinduna du, baiña ekin orrek ez du bere jomuga irixten, ots, atsarizea, eta egin ortan etekin gabe gelditzen zaigu: joku, kirol, jolas naiz antzokian jostatze-ko, norbere burua aitzu bear da, atsegin-billa gabiltzana begi aurretik uxatu.

Eder-egipenak ekin benetakoa antz artu bear du, on egiazko bai litzan jolas ta jokuari itsatsi. Orduan ekin-sentipenetik jeiki oi da ederraren atsegiña, era indartsu ta ondo biribildutik, Egipen benetakoa. bearrizan egiazko baten poz-atsegiñaren billa ibilki, ezin dezakegu ase

gauzaki egiazko dan baten jabe egiñaz baizik. Joku-ekiñari, bere baitan atsartu nairik ari danean, berdin dio naiz gauzokia egiazkoa izan naiz iruditu edo gezurrezkoa, berdintsu baitio barnea arrotzen. Gauzokia egiazkoa baldin bada, eder-egipenari arduza diona ez da aren egitasuna, aren itxura ta izakera ta tankera baiño. Kant onela mintzo: «Ederra atsegin zaigu, baiña ez bere gaiez, tankeraz baizik». Eta Toma doneak aurrerago: *Pulchrum proprie pertinet ad relationem causae formalis.*

Eder-atsegiña, beraz, geure eza-gun-almenen —irudimen, alkar-men, adimen— jolas etekin edo protxu gabekotik sortua dugu.

Oarra:

JAKIN irakurtzen dugunotan geienok latera poliki ezagutzen dugu noski. Baiña ez denok. Eta ez ditugu aaztu bear ez dakiten oriek. Orregatik, alperkeria alde batera utzirik testu danak euskeraz emateko eskatzen dizuegu. Egia da bein baiño geiagotan gure itzulpena ez dela egongo idazlearen laterazkoa bezain ondo. Baiña beintzat ulerterrezago egongo da zenbaitentzat. Eta zita oek oso luzeak balira, obe lateraz batere ipiñiko ez bagenitu.

URSS'ko kultura soka-tiran

Olaberria'tar Ildefontxo

—Arantzazu'koa—

Errusi'ko kultur-bizitza dardaran dugu, burruka-dardaran. Beti talo ta esnea jan da jan, gertatu oi dana: zenbait idazle ta ertilarri errusitar nazkatu egin zaizkigula. Zertaz nazkatu? Gosarian, bazkarian da afarian jatera beartuak dauden talo ta esne ortaz. Ta bitan zartatu errusitar kulturgilleak: talo ta esnea mauka-mauka —nik umetan bezela— sartzen dutenak eta ortaz leporaiño eginda daudenak. Garbiago esan: «lengoak» eta «orain-goak». Garbiago oraindik? («Antiguos» y «modernos». (Bada ez bada parentesiaz gorde ditut...))

«Lengoak» stalindarrak dituzu, estetika-arazoan Alde edo Partidua-

ren irakatsiei ta dogmai itxu-itxuan, zearo itsatsi zaizkienak. Talo ta esnezale porrokatuak. «Oraingoak» alako ezin-egon urduri bat sentitzen dute, arkakosoz josita baleude edo... Ez dakit ba... Egi-miñak gogoa karraskatzen die ta erdi-zorian daude. Lertu bear bat! Kateak eten nairik dabiltz. Etzaizkio Partiduari aurkez-aurke muturrean jarriko, kalkan asiko —bixtan baitago ori kirtenkeri aparta litzakela—, baiña ez daude ezpaiñak josita egotekotan e r e . Partiduaren atzaparretatik igeska dabiltz, itto egiten baitie arkerti-atsak barnean ernetzen dien indar bero, ahal kreatzaille ori. Artixtak askatasuna derrigor bear du zer-

bait tajuzkoa sortuko badu. Askatasuna ezik laguntza ere bai. Errusitar ertilariei etzaie bear bada laguntzarik falta, baiña ze laguntza? Gezurra, ziria sartzeko laguntza. Batzuk bapo erantzuten diote laguntza oni. Beste batzuk... ortzak erakusten dizkiote. Ez baitira guztiak, naiz Errusi'n izan, gezurraren morroitzarako jaio. Ezetz! «Ecriv, c'est livrer» Mauriac'ek zion ura errusitar «oraingoentzat» egi baledi... Ez, oentzat idaztea ez da askatzea, sufritzea, lertu hearra aundiagotzea baiño.

URSS'ko erri-eritzia —burruka, soka-tira au dala-ta— gori-gori, ernai dago. Eguneroko orrietan eta batez ere literatura-aldizkarietan gordin asko eman oi zaio burruka onen giro zitala. Agintariek ez dute oraindaiño auzi ontan sudurra sartu, naiz stalindarrek karraxi pran-ko atera. Oen buru dan B. Koltxetob'ek, erdipurdikako idazle baiña polemikan oso bizkorra bera, bere arerioak Partiduaren areriotzat jotzen ditu. Berak ezarri zuen «Ogoniok» errebitan: «Zikoniak igarotzen diranean» zine onen egilleak («oraingoak») erti burgesari lotu zaizkio ta Sartaldea gurtu dute».

Ilya Ehrenbourg'ek Txexjob'engana jotzen du.

Ilya Ehrenbourg, «lengoen» eraso latzak geien bizkarreratzen dituer

gizon jatorra. Ez da okiltzen. Bizar-duna, beetik gora jastendanetakoa baita. Gizon. 1959'an, Txexjob'i buruz, lan sonatu bat argitaratu zuen. Literatura ta ertiaren askatasunaren aldeko oi uasarta. Txexjob da gaurko gaztediarentzat Koltxetob'en antipoda edo anka-ankakoa, ainbeste urteak zear Errusi'ko kultur-bizitza antzutu duen konformismu orren areriorik zorrotzena. Bai, Txexjob. Azalez oso zuhur, arrunt; mamiz lirismu apalekoa, gizona gizon denez interesdun zaiona ta ez alako edo onelako ideolojiaren jabe dala-ko. Ona Txexjob.

«Nouvelle vague» literaturan.

Alare, naiz eta stalindarrek oiuka eztarria urratu, «olatu edo baga berri» onek aurrera diardu bere biziko zarrapastadan zambuluka, gero ta bortitzago. Nagusituko ote?

Orain dala denbora pittin Kazakob'ek, «oraingoen» arteko gizon argitsuenetakoa bera, ipui-xorta gozo, zoragarri bat argitaratu du. Kazakob Txexjob'en irudi bizi, ixpillu agertu zaigu lan ortan. Antxe ikus ditzazkegu literatura politikapetik askatzeko Kazakob'ek egiñiko leren, egiñalak. Gai arruntak, erre-xak, betikoak bertan erabilliak: barkadadearen zuloa, izadi edo naturaleza ioriak ateratzen digun aaaa! arrigarri, luzea..., maitasun - kilimaren goxo..., eriotz-zirrara bel-

tza... Ta au dana aparrik gabe, apal-apal, bero-bero, muxu bat bezelaxe emana. Txetjob'ek oi zuen eran.

Ez uste gaurko sobiets-erriak gai oek baztertu dituenik. Gizatiar den oro maiteki, atsegiñez jasotzen du. Ta gero ta apalago jaso ere. Nazkatu baita talo ta esneaz..., stalin-darren gezur polittaz. Orain Olga Bergholz, Biktor Nekrassob, B. Solukhin, Bera Panoba, A. Kuznetsob, G. Baklanob eta onelamoduzkoak ditu maiteen erriak, oiek bai dute egia merke saltzen, lirismu xoragarria ixurtzen, barnea, biotza biguin, xamur asko ukitzen... Gizona beti gizon, esan oi da. Bai, biotza beti biotz, baita errusitarrena ere.

Oraingo idazleak parre egiten dute lasai zenbait zensore zorrotz eta ipurterreen lepotik, «beti arpegia gogor, irripar-loretxo bat bederen ezpaitan loratzeko gauza ez diran gizon» oien lepotik, alegia. Bapo egiña!

Ez azzeta ez gizandi.

Stalindarren literaturak ozki egiten dio gaurko sobiets gaztediari. Oni batez ere. Literatura makurra baita, optimismu zuriz, gezurrez jantzia. Irakurleari Parabisu berri batean bizi dala sinets-arazi nai dio. Zozoa! Ez ote daki erriak, goiko aulkien aldamenen etzanda zenbat patrikai azkureka ari diran Gober-

nuaren morroi oiek baiño askoz obe-toago, nun bizi dan bera? Ez ote daki errusitar erri xak parabisu ori ametsetako ta zenbait idazleen irabaz-biderako bapo dagoela, ez, ordea, bere mixeri gorria leuntzeko? Orixe bai dakiala. Erria ez da zenbaiten uste duten bezain tontoa. Bai zera! Orregatik esan zuen ez dakit nork: «Vox populi, vox Dei», erri-abotsa, Jainko-abotsa. Ao-berokeri bat dala? Ez diot ezetzik. Baiña, egi-erdi bada ere, az da asko?

Ametsetan ari ez naizela probatzeneko ta orain arte esan dudanen ezaugarritzat, Mosku'ko «Literatura-Gaztara» zuzendutako eskutiz bat emango dut orain. Bertan ageri danez eta geok dakigunez, auxe aurreratu dezakegu argi ta garbi: errusitar irakurleak, erriak, idazle-ari goiko jauntxoak eskatzen dioten kontrakoa eskatzen diola. Au da, gizonaren *egia*, erriaren irudi garbia, gandu-gabea. Ta stalindarrek ez damaiotela. Geiago? Komunismua, kapitalismua bezelaxe, batzuk gizentzeko ta besteak flakatzeko asmakizun jatorra dala... Ta orain eskutizaren zati bat:

«Langilleen adorea ta kemena, noski... Ikusi egin bear omen da langillen bizi-modu zintzoa, aberzaletasuna... Au duzu liburuek bein da berriz astintzen duten zori-oneko leloa. Egia balitz, gaitzerdi. Sarritan naastu naiz Sartalalde-Siberia'ko jentillajearekin, Kuznetskaia'ko

azero-fabriketako langilleekin. Entzun ere bai ernai asko, buru-belarriak ipiñiaz, zer zioten. Ango lanaz zearo nazkatuta omen zeunden: izerdi asko ta txanpon gutxi, noski. Ona gizon oien aberri sozialistaganako jaiera, begitartea».

Au idazten zuen neskatx idealistari trixtura zerion, desilusio berdea:

«Bazter guzietan nerekoitasun itxia, «ni» ta... kitto. Bata bestearen bildur gera. Gaiztakeria arkitzen dut nunai ta ajolagabekeri izugarria ikusten»...

Orduan, komunismuak ez digu gizona aldatu ta obeagotu? Ba, ba, ba... Inundik ere gizonok oso ase-gaitzak izan bear dugu... Nik uste.

Ba-dut beste eskutitz bat ere, zorrotzagoa oraindik lengoa baiño. Bereak eta bost bero-bero kantatzen dituena. Luzegi litzake emen ematea. Azken-lerroan, bere seiñak ezartzean, auxe dio: «edozein kaleko edozein etxean». Esan naiez: nik diotana ez diot nik bakarrik; gaurko Errusi'n ia ezin ittoa den erri-abotsa, oiua da.

Bai, sobiets «angry men», gizon amorratuen abotsa. Ume gaizki eziak bailiran erabilliak izateaz nazkatuta omen daude; okerrago: nazkatuta. Sekulako lanak egin ondoren, ametsa saritzat. Ta gizon ok orru dagite, orru bildurgarri. Ta gazteek ere orru. Bizitzaren ederra ta gozoa noiz txukatu ahal izango zai dauden gazteen amorru gorria.

Bildurgarria au are. Omorru orren dardara B. Obetxkin'ek «Nobi Mir» aldizkarian argitaratu duen lan batean zear entzun dezakegu. Gordin, ausart emana. Bi anai gazte, bata Partidukoa ta bestea «aldi kementsua» joan zala diona, aurrez-aurre jartzen ditu bertan. Ona alkar-izketa batzuen pixua:

Zina'k: (Nikolai'ren emaztea). — «Egia da. Naikoa ta geiegi sufrittu dute gure lenagokoek orain sikera bizitz errezago bat eraman dezagun. Beti sufrimentuak, miñak, mixeria... Zer da au? Noiz bukatu bear du egoera tamal onek? Bost urte bete arte Siberia'ko basoetan ibillia nauzu otsoa banintz. Aski dut. Ta gazte guziak berdin dire. Egi zaleak».

Nikolai'k: (bere anairi).—«Jakiña, iri etzaizkik atsegin ni ikustera datozen tipoak. Nere antzekoak diralako: «ez aszeta ez gizandi». Neri, ordea, barreraiño sartzen zaizkidak. Bizitzen dakitelako. Ta nik ez diat besteak baiño kirtenago izan nai. Bein bakarrik bizi gaituk... Zina'k arrazoi dik. Ikus ditzagun gauzak aurrez-aurre, bidezko danez. Ere in zana biltzeko ordua duk».

Bai, ba-da ordua..., alegia, ainbeste izerditan ereiña parrez ta algaraz biltzeko, ako ura egi biur-

tuaz: «Qui seminant in lacrimis, in exultatione metent». Ba-da ordua... kafe-esne-zopak probatzeko. Beti talo ta esnea ala?

Nikolai'k.—«Probintzietara ea zergatik joan nai ez detan galdetzen didak. Ba... «erriruntz bira edo aldi kementsu ori» aizeak eramán dualakoan nagoelako. Alaxe duk eta. Ori bai, bidal nindezaketen errixka batera, baiña... zertara? Koljoktsetan animala bihurturik lau ankan asi diran batzuek gora begira jartzera? To! Or konpon! Nik naiago diat urian gelditu. Apika ik us-teko duk oso errex egingo zitzaidakela unibersidade - ikasketak kasketan sartzea... Baiña ez al dakik zenbat eta zenbat sufrittu dutan txikitandik? Nere, nere ortz-agiñez atera nian gaur daukadana».

Ez, Nikolai ez dago ain gustora. Amorrázita! Ta Nikolai asko dauka gaurko Errusi'k. Lan ontan zear «nazka» itza bein da bider entzundugu, «nazkatu», «amorratu», «leporaiño egon», tab. Ez ustet nik asmatu ditudanik. Nere lana itzul-keta lasai bat besterik ez baita.

Zinema eta teatro zerbait

Zinema ta Antzerkia ere ikutuzkeko asmoa nuen. Baiña luze dijoakit. Azken urte auetan errusitar zinegillleek ez omen dituzte,

len bezala, marmolezko gizonak sortzen; bizitzara, aragizko bizitzara jetxi omen dira, errealdadea zarrikatuz. Ala obe. Oraindik orain geien kritikaturako zinea Urussebski'ren «Eskutitz bidali gabea» da. Gizona izadiaren, naturaleza ikaragarriaren aurrean zutitzen du. Jakiña, gizona kaxkar gelditzen da, ume. Ta au ez da errusitar agintariek eta jakintsuek predikatzen dutena. Arroak dira oso, ogeigarren gizaldi arro onen sostengu ta zimenduak berak. Urussebski'k apaltasuna, aziña azaldu du. Batzuk —«oraingoek», noski— txaloz goratu dute. Ta besteek... muzinka, muzinka ari.

Teatroa'k etorkizun zailxoagoa ikusten du. Stalin'en denboran dramagille guziak «tesis-lanak» egitera beartuak izan ziran. Lan aietan Ona (Partiduko sekretarioa, Partidu-zalea edo...) beti Gaitza-ren garaille genun. Esan bearrik ez Gaitza konserbadoreak, burgestoak, zelatariak zirala. Orain ere ez dago aurrerago jotzerik. Garbi esan, *errealismu sozialista* (nola esan au euskera errexean?...) auxe duzu: sobiets-gizartean sortzen diran sokatirak eta burrukak txurizkatu, ixildu ta itxurazko mundu eder batean problema ta korapillo danak dotore askatu. Ona gaurko errusitar egilleek daukaten egin-bear jatorra...

Bai, Nikolai, erein zana biltzeko ordua duk!...

"Berri ona" etorri zanku

II.—JAINKOAREN ERRESUMAN SARTZEA: BATEIOA

Arnaud Erdozaincy-Etchart

— Prantziskotarra —

«BERRI ONA» aditueta eta gure gogo-bihotzetan hartueta, ikus dezagun nola den sartzen Jainkoaren erresuman, haren bizi ederraz gozatzeko, ikus dezagun Jesu-Krixto'k guretzat asmatu eta jarri izan duen Bateioko Sakramendua ZER den eta NOR egiten gaituen. Bateioa da Jainko Aitareen seme eta alaba, Jesu-Krixto'ren haurride, Izpiritu Sainduaren egoitza eta Eliza Ama Sainduaren haur egiten gaituen Sakramendu batezpadakoa!

Zerurat joaiteko punduan, bere inguruan Jesus'ek bildu zituen be-

re dizipuluak eta erran zioten: «Zoazte mundu guzian barna eta Ebanjelioa predika zazue kreatura guzieri. Nork ere sinetsiko baitu eta bateiatuko baita, hura salbatuko da; nork ere ez baitu aldiz sinetsiko, hura galduko da». (Mark, 26, 15-16.)

Geroztik, mi mila urte hotan, Eliza doa bere mixionea kunplituz, Jesus-ek utzi erakaspén eta manamendueri jarraikiz. Bi mila urte hotan, Elizak Bateioko Sakramendua eskaintzen eta emaiten diote «BERRI ONA» aditu izan dute-

neri eta «BERRI ONA» -k hunkiturik Jainkoaren erresuman sartu nahi duten guzieri, Bateioak beigitu sararazten Jainko Aitak bere Semearen HERIOTZE-PIZTEAN eraiki erresuma berrian.

Bada oroitzen zaku Jesus'ek Nikodemo'ri egin solasaldia: «Egiaz, egiaz erraiten dautzut, nehork ezin duke Jainkoaren erresuma ikus, non ezden berriz sortzen... nehor ezin ditake Jainkoaren erresuman sar, non ezden uretik eta Izpiritu-Saindu'tik berriz sortzen». (Joanes, 3,3, eta 5.)

Zer atsegina haur baten sortzea familia batean! Aita-Amek ikusten dute haur sortu berri hortan beren amodioaren fruitua: nola ezdute beren amodioaz inguratzen eta berotzen! Nola ezdute orduan hobeki ulertzen beren gizon biziaren baliotasuna, ikusiz beren batasunetik sortu haurra, beren odolaz hazi bizi berria!

Ezda aski gizakizko biziaren emaita. Girixtino kartsuek bada-kite gizonak ba-duela beste bizirik, ba-dela Bateioak emaiten duen bizi berri bat: graziazko bizia, Jainkoaren bizia!

Bateioko Sacramendua ezda formalitate bat, asurantzzen hunditze-ko bete behar ditugun formalitateen bezalakotsu zerbait. Ezda ere haurkeria zerbait. Haur sortu berri

bat familia girixtino batek bateiatzerat ekartzen duelarik, urats handi bat egiten du, urats serio bat, ezen haur ttipi horrentzat Bateioko eguna bere biziko mementorik haundienetarik bat beita. Bateioa sortze berri bat da: Jainkoaren bizia dauku Bateioak emaiten eta Jainkoaren erresuman gaitu sartzen. Bateioa egiazko sortze berri bat da: bekatuzko mundutik idokitzen gaitu eta graziazko munduan sartzen. Bateioak gizon berri egiten gaitu: egiten gaitu girixtino, erran nahi beita KRISTO'RENA.

Horra Jesus'ek zer nahi izan duen Bateioko Sacramendua guretzat asmatzearekin. Bateioak gizon berri egiten gaitu Jesus'en HERIOTZE-PIZTEAN: gizon berri bezala behar beitugu bizi izan gure bizi osoan: ez noiztenka, bainan beti, Jesus'en izpiritua ezarriz gure gogo-bihotzetan, Bateioaz geroz Jesus'en baitan josten gaituen fedez argituz gure biziko harat-hunat guziak. Jesus'en eta Elizaren izenean, Apezak egiten dituen jestuan eta erraiten dituen otoiitzen medioz, gizon bekatorosa Jesu-Krixto'ren gorputzeko membro bilakatzen da, Jainkoaren grazia beharko duela geroan girixtinoki bizitzeko. Jesus'en membro bezala agertzeko. Jesus'ek bere HERIOTZE-PIZTEAN ardietsi daukun Jainkozko bizi berrian parte hartzeko, girixtino berriak Jesus'ekin bat egin behar du, bere egun guzitako bizi

hortan, maiz oroitzuz Jesus'en sakrifizioaren gatik dela abiatu irustasunerateko bidean. Jesus'ek irraiten dauku: «Nor ere nahi heitzait ondotik etorri, harek bere buruari uko egin bezo eta bere kurutzea harturik jarraik betik». Ardura croitu behar dugu beraz Bateioaz geroz Jainkoarenak girela eta ezdugula gure buruaren arabera ibili behar, guharen gisa, guhaurek nahi ginduken edo iduritzen zaukun bezala! Ezdugula guhaurek moldatu mundo hetsi batean bizi izan behar, bainan bai Jesus'ek bere HERIOTZE-PIZTEAN eraiki izan duen mundu berrian. Egun batez, zeruko erresuman, Jainkoaspean nahi balin ba-dugu parte hartu, oraidanik egun guzietz bear dugu bizi izan Bateioan Jesus'ek emaiten daukun bizi berri horrek dauzkan eginbideen eta obra guzietan girixtino izan eta agertu.

Bateioa ezda bakarrik gure be-katoros kondizionetik idokitzen eta bizi berri batean sortzen gaituen Sakramendu bat. Jainkoaren ganik heldu den argiaz betetzen gaitu oraino Bateioak, ezen FEDEA emaiten beitauku.

Zer diozu eskatzen Jainkoaren Elizari, dio Apezak galdegiten bateiatzekotan denari? FEDEA. — Zer emaiten dautzu Fedeak? BE-TIEREKO BIZIA.

Gure bizi guzia argituko duen Fedea Bateioak dauku emaiten. Fedeak dauzkigu ulertarazten Jainko Aitak gure salbatzeko ibili amodiozko uratsak, gure saindutze-ko Jainko Aitak egin eta egiten dituen obra miresgarriak. Fedeak dauzkigu beti hobeki sesiarazten Jesu-Krixto'k eman erakaspenak. Fedeak gaitu argitzen gure egun guzitako eginbide eta uratsetan. Fedeak dauku emaiten Jainkoaren alderako eta gutarteko eginbideen kunplitzeko behar dugun indar. berezia. Fedea, Jainkoak eman do-hain haundi bat delakotz, arta haundi batekin behar dugu entse-gatu fede horren beti ereberritze-rat eta hazterat, Jesu-Krixto'k hortakotz asmatu eta egin izan dituen beste Sakramenduen medioz, bere-ziki Penitentziako eta Gorputz Sa-induko Sakramenduez, Nola beita gure gorputza ahultzen... Nola beita emeki-emeki peritzen ez balin ba-zazio behar zion jatekua emaiten pizkortzeko eta indarren ereberritzeko, hala-hala gure Fedea ahultzen eta peritzen da ezbalin bada Sakramendueri esker ereberrit-zen eta hazten.

Elizaren izenean FEDEA emaiten, Apezak ura ixurtzen du bateiatzerat jina denaren buruaren gainean, erranez Jesu-Krixto'k galdegin bezala: «Bateiatzen hut Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean». Orduan Jesus'ek berekin hartzen du bateiatu

berria, bere biziaz eta indarrez betatzen. Bateiatuaren buruaren gainean ixuri urak erakusterat emaiten dauku nola duen Jesus-ek haren arima garbitzen bekatu ori-jinalatik eta beste bekatu guzietarik. Ordutik harat, bateiatua denak Jesus'ekin bat behar du izan debrua-

ri ezetz erraiteko, debruaren kontra ereman beharko duen gudukan azkar izaiteko. Jesus-ekin beharkodut izan eta agertu, saildutasunerateko hibe dorpean, sekulan etsitu gabe, beti aintzina joaiteko.

Donapaleu'n 1960-ko Abendoan.

LABAYEN (Antonio María): *Jokua ez da errenta*. Komeria iru ekitaldian. Kulis-ka sorta (41-42). Itxaropena argitaldaria. Zarautz'en, 1960

Euskal-antzerki txiroan ezaguna dugu Labayen jauna. Ez du, ezta gutxiagorik ere, oraingo au bere leenen lana, ezta onena ere. Izenpekoak dionez, komeria dugu, baiña erriaren erarako komeria, antzerki denak baidira berarentzat komeri.

Bijoa aurretik oar bat: idazki au ikusi ta entzuteko egiña da ta kritikariarik irakurri egin du bakarrik, ta irakurpen oni lotuko natzaio, ez baidaukat bestela egiterik.

Erritar «komeriak» gora-beera, gaurko au drama da. Dramakizun garratza du, joku-galbidean ondatutako baserria ez baida komerietarako antzoki egokia. Gai jatorra, ta Euskalerrian, zoritxarrez, beti egunekoa. Baiña ortik aurrera bide gutxi egin duela esango nuke. Gaiak ba-zekarkien borroka-gríña bat; baiña inguruko maiteminduen eztikeriak ta Anabixentaren, etxekoandarearen, aiurri epelak agortu egin du drama-iturri ori. Tamala! Ezkongaiak, edo ezkongaiak, «ongi» irtetzen dira; denak ezkondata ez bada ere, esperantza onarekin beintzat. Ta ainbeste gazte ta zaar —neskazaar ta mutilzaarrak ere ba-dira-ta— poz gozotan dabiltzala, zergatik jokoaren ondorio gaiztoz gere buruak samindu? Gaiñera: maitemindu oien «maite!» ta «pa!» gozoak ezineramanak dira, zindotasungabeak. Ta ez diot au moral aldetik, ez bainaiz emen ortan ari, antzerki aldetik baiño. Ala ere, esan dezadan berriro: nik ez ditut *ikusi ta entzun* oiek guziak, *irakurri baizik*, ta au teatro-kritika baterako bide kaxkarra da.

Amaituaz. Nere iritzi apalez, maitemindu oiek kendu ta joku-gríña ta borrokak bizitu bear dira emen. Labayen jaunak ori baiño geiago ba-dezake ta egingo du noski, izan ere gaia apartekoa baidu drama bikain eta ikusgarri bat borobiltzeko. Gure antzertiak gai biziak bear ditu, egunekoak, eta oraingo au oietakoa da: zergatik ez atera duen zumo dena?

Barka bezaizkigu Labayen jaunak drama eder bat osatzera bultzatu nairik esan dizkiogun auek. Ekin eta jarrai!

Muxika'tar Iñaki

IDAZKI AGIRI BATI ERANTZUNAZ

(«Aurraitz» ene adiskide onari, biotzez)

ALDAPEKO

Aspaldiko!

Irakurri diat «JAKIN» eraberri-tuan (1) zuzendu didaken esku-titz agiria. Ire epaietan eta mintzai-ran zorrotz xamarra aiz eta ez-tuk barkatzen ez utsa denik eta ezta di-tekeanik ere. Sarritan zillegi dena gaitzesten duk ire aburuz orrela esan bear eztelako eta etzaiz oar-tzen ire esakera bezain zillegi dela gaitzesten dukena. Adibidez, «Itxa-soa laino dago'n»: «bere huruari tiro bat jo zion», ik onela zuzent-zen didak: «tiro bat emon», mu-til! Nik: «aztertu egin bear ko zaio giltzagaillua ote dunentz». Ik: «egin bear ko da». Nik: «Gizon bi jausi ziren ene gainean». Ik: «neu-

re ganera» eta makiñabat orrelako. Mutil, mutil, ez ote aiz estutxo-a ire lagun urkoa juzgatzen? (2). Ba-ze-kiat nirekin bakarrik ez aizena (3)

(1) Etzait zillegi abagune au gal-esten «JAKIN»i ene zorionik beroenak ema-teke, ain dotore, txukun eta egoki atera digulako azken zerbakia. Lenago ma-miz ba'zetorkigun soilki jakingarri eta eder, orain azalak ez-tio bekaizik bear mamiaren ederrari. Zergatik, ordea, or-tografiaz aldatu? «YAKIN» ene ustez panpiñagoa da, baiñan ezpa-litz ere, zi-llegi ote da aldakuntza egitea?

(2) Irakurlearen jakingarri esanen dut adigarriok Aurraitz jaunak Otsailla-ren 25'ean egindako ezkutuko eskutitze-tik atereak daudela.

(3) Kamiñazpi jaunaren iritzi sendo-

orrelako, edonorekin erabiltzen baituk zorroztasun lege ori (Trillardegire adiskideari egindakoan ere ez uken ezten kamotza erabilli), baiñan iritzi zabalegiak bezala, esuegiak ere kaltegarriak direla deritzaidak. Ba-dakik, ordea, ni orretxegatik mingosten ez naizena. Aitzitik, oarrak eta zuzenketak asmo onez egiñik daudenean, pozten naxiotek, kritikatik —lenago ere esana naizen bezala— beti zerbait ikasten baituk. Losintxak eta palaguak berriz, aundi-iritziak puztuzkeo balio ditek soilki, ots, arrokeria aizatzeko eta ez-jakiteari ateak zabaltzeko.

Ik egindako idazki agiri oni ez ezik, beste ezkutuko bati ere zor diat erantzuna aspalditxo (Otsailaren 25'ean egindakoari, alegia) eta beroietan aipatzen dituken puntuak edonorentzat jakingarri direlako, labur-zurrian erantzuten saiatuko natzaik ik erabiltzen dituken punturik nagusienai. Asi gaitezen lenengo idazki agiriarekin:

1'go.—*Otz naz, gose naz, egarri naz*, esakerak gipuzkeraz ez dizkiagu erabiltzen eta zalantza egiten

garri esan dezadan. Gipuzkoa'n, Zumarraga-Ernio-Zarautz lerroariño beñepein (Bizkaia aldetik begiratuaz, noski) maiz erabilli oi dela —*na* aditz-atzizkia —*la*, ordez. Oartu ahal izan naizenez, esaldi nagusiko aditza baiezkorra denean erabilli oi da eskuarki eta batez ere aditz ori JAKIN sintetikoa denean, adigarri onetan bezalaxe.

niken inun erabiltzen zirenik, Zabalara-Arana ezpaituk niretzat konfidantza osoko iturria. Ur arretik edateko bildur nindukan, baiñan geroztik jakin niken (Aita Imanol Berriatua'k jakin-erazirik, noski) esakera oiek guztiz jatorrak eta errikoiak direla Bizkaia'n. Beraz, *otzak nago, goseak nago* eta *egarriak nago* (Giputzok beñepein orrela esan oi diagu) bezain jatorratz eta egokitzat aitortzen dizkiat orain.

2'gn.—«*Etorr(i) ba'nadi*» eta kidekoak Gipuzkoa'n bakarrik nizekiken erabat arkaikutzat. Bizkaia'n oraindik bizia zeriotelako ustea niken, baiñan ik aditza ematen didakenez, ire aitaren belaunaldiarekin joana zirudik. Etzekiat Laphurdi - Benaparroetan eta batez ere Zuberoa'n bizirik ote diken.

3'gn.—«*Aintza*»k, ots atsegiña izan dezakek; eztiak ukatzen. Baiñan, nun zeukak jatorri? Zer duk «AIN» zelebren ori? Aitza zeukat —ziur etzekiat baiña— tokizentetan ageri zaigun —AIN atzizkiatik (Orendain, Bañarrain, Zirikiain...) atera zuela Arana-Goiri'k edo bere jarraitzaileen batek. Baiñan, batetik, atzizki bat ez diteke erabilli atzizki bezala baizik. Sekula ez aurrizki bezala. Bestetik, etzekiagu —AIN orrek zer esan gura duen. Batzuek «GAIN» itzaren kondar dela ziotek (eta uste ontaz baliatu izan ziren noski «aintza»ren aldekoak) baiñan au hipotesis bat

bestarik eztuk, iñork ezpaitziguk probatu alakorik eta oker ezpa'niok, gaurko izkuntzalariek beste esangura bat ikusten ziotek atzizki orri, ots, gaurko Peru-r-ENA, Mikela-r-ENA'ren (posesivo) senidetzat zeukatek. Bestalde, euskerak ba-dik Gloria» aditzen emateko itz jatorra: OSPE. Onatx, Duvoisin'en Biblia paregabetik artutako adigarri bi: «Ospatua izanen naiz» (Seré glorificado), (68'gn. or-aldea, 4'gn. vers.). «Jaunaren ospea» (la gloria del Señor), (107'gn. or-ald., 23'gn. vers.). Ez adi luzakor -aukerarik baldin ba'duk, beintzat Duvoisin kapitanaren Biblia irakurtzeko eta ontarako betarik edo aukerarik ezpa'duk, irakurtzak beronen «Laborantzako liburua» deritzan idaztitxo zoragarria. Euskerak, estilista gutxi, oso gutxi, izan dizkik Ainhoa'ko seme leñargi onen maillekoak. Ene iritzian beñepein, euskal-idazletan gorenetakua eta apañenetakua diagu. «Itxaropena Argitaldaria»ri eskatu nioken bere nekazaritzako liburutxoa «Kulixka-Sorta»n ateratzeko, gaurko euskal-belaunaldiak ezagu zezan Laphutar idazle au, baiñan, ene eskabideak etziken arrera onik izan. Untzurruntzaga jauna, ordea, oraindik garaiz zegok asmo eder au aurrera eramateko. Entzungo al-dik ala entzungor eginen dik gure adiskide onak?

4'gn.—«Gizonaren gainean» (so-bre el hombre, acerca del hombre),

eztuk nire iritzian baztergarri, gaurko euskal-populuak (4), BASERRITARRAK BARNE, —literatura zaharrak berriz zer esanik ez— noiz-nai eta itzetik ortzera darabillelako. Ik aipatzen dituken tankeretan kondenagarri bakarra «gizona-tzaz» duk eta ik onartzen duk. Zorigaiztoko asmaketa au, izurrite madarikatu au, gurealdiko euskal-pizkundekoa duk. Ni neu (5), bazterrik-bazter aldarrikatzen ari nauk sasi-euskera orren kontra (alderdi bateko «izparringi» eta beste-ko «venturosoa» baiño kaltegarriago baituk ene ustez), ezpaitziok eskubiderik euskal-morfologia jatorra baztertzeo apeta utsez eta bere orde forma berri bat asmatu. Gaztelerazko «sobre», «acerca de» ideia adierazteko tankerarik jatorrena eta zaharrena *izenakin erabilki* (6),

(4) Ez adi ikara «populu» itzarekin, euskal-literatura zaharrean arras sustraitua zioen eta Duvoisin'ek, benetan garbizale delarik (ez ordea garbikeri-zale) erabiltzen dik.

(5) Kamiñazpi jaunaren lasaigarri esan gura nuke «ni-neu», «nik-neuk» tankera sendogarriak (intensiboak) txit erabiliak direla Gipuzkoa'n arestian aipatutako lerro-mugatik Bizkai'runtz. Zalantzarik gabe, forma auk eta «ni neroni», «nik neronek» berdiñak dira. Ienengoak Gipuzkoa erditik aruntzakoak, Bizkai alderakoak alegia, dira eta bigarrenak onontzakoak, Oria ibarretik Naporora'runtz erabili oi direnak.

(6) Gaztelerazko gramatiketan nombre substantivo eta adjetivorekin ezagutzen direnak.

—Z atzizkia duk. «Gizona-Z», *sobre el hombre*, «gizon-eta-Z», *sobre los hombres*. Bidasoa'z andik, labur-zurrian plurala «gizon-e-Z» egin oi ditek. Izaki bizidunak direnean, beste forma auek ere zillegi dituk ene ustez: «Semea-ren-tzaz», *sobre el hijo*, «seme-en-tzaz», *sobre los hijos*, baiñan beti -REN edo -EN tartekatuz, pronombretan bezala, nor-en-tzaz», «on-en-tzaz», «ar-en-tzaz»... Utikan, beraz, kiratsa darion -TZAZ ori izenari zuzen erantxita.

5^{gn}.—Kontsonante osteko -EAN toki-atzizkia. Zorigaitzez, ene aurtzaroan sasi-euskera bat besterik ez nuen ikasi, ene ama maitea zenak (G. B.) oso gaizki egiten baitzuen eta euskeraz egiteko agindua aitarena ba'zen ere, amartikan bederatzi amagandik ikasi geniken, bere ardurapean azi baigiñan senide guztiok eta berak erakutsi baiziguen eskola ikastetxera joaten asi artean. Erorrek ba-dakik aurren aitak, lantegiak beartuta, beti etxetik kanpo ibilli bear dutela eta onetxegatik euskera biziaren salbaidia euskaldun amen eskuetan dagoela batez ere. Beren aurrari euskeraz erakusten saiatzen dituk Donostia'ko guraso geienen aurrak euskera mordollo bat ikasten ditek, naiz-ta gurasoak euskaldun jatorrak izan. Entzunberriok, guraso euskaldunak izatez gainera, iruzpalau urtean «andereño» baten «euskal-ikastolan» ibillitako illoba bati: «Es que, ez naute

gustatzen pimentuak» (Orixe bai, «arkatza», «idaztia», «egazkiña» eta olakoxeak buruz zekizkik), onelatsu esan bear zukeana: «piperrak ezpaitzaizkit gustatzen» edo «piperrak etzaizkit gustatzen-eta». Eta au eztuk beingo oker esana, bere aboak uneoro darion mintzaira baizik. Izan ere, Donostia'ko aurrak geienok -erdal-itzak aparterdal-adimenez mintzatu izan gaituk eta morfologija azpikoz gainera erabilli. Onetxegatik, egiazko euskeraren jabe egin gura izan diagun Donostiarrok zazpi ahalak egin bearrean arkitu gaituk eta oraindik orain, aurtzaroan gaizki ikasiak ezin izan dizkiat erabat uxatu. Neronek batere igarri gabe, -EAN'ordez itz batzuekin -AN erabiltzea ene aurtzarotik elduaroraino iritxitako utsegite bat duk. Esaterako, guk beti erabilli izan diagu, «arkaitzan», «biotzan», «ostiralan», «larunbatan», «ilbeltzan», «trenan», «bigarrenan», «irugarrenan», «autsan», «ondarran» eta abar. Alaere beste itz askotan -EAN erabiltzen geniken. Ik aipatutako «BARATZAN» ez bekik mingarri. Gipuzkoa geienan «BARATZA» duk «huerta» eta ez «BARATZ». Era au ene ustez Napparroa, Laphurdi eta Zuberoa'koa duk eta auek onetxegatik «BARATZEAN» esaten ditek, baiñan, gurean «baratza». -A'n amaitzen delarik, BARATZAN ongi zio. Bizkaia'n ez duzute itz au ezagutzen, zuenean ORTU baituk,

eta onetxegatik eztuk arritzekoa ire belarriak gaizki salatzea.

«Kai-AN, ibai-AN, mai-AN (ots, i letrarekin bukaturiko itzak oro) idatzi bear ote den ala kai-EAN, ibai-EAN, mai-EAN, eztuk txoro-txoro egiñiko galdera, ik ala ba'derizkiok ere. Itz oek -EAN'en geiago erabilli oi dituk Gipuzkoa'n (Beterri'n beintzat) -AN'en baiño. Kampion'ek bere Gramatika ederrean (gure txikitako sasi-euskeran «ederran») onela zioz gai oni buruz: «El dialecto guipuzcoano, aunque no de una manera obligatoria usa de la interpolación de e con los nombres acabados en i: maiean «en la mesa»; loiean «en el lodo»; kuiean «en la cuna». Esto se debe a la consonificación de la i; así que lo que para Lardizábal es una excepción (Gramática Vascongada, página 3, nota), está sujeto a la regla general de los nombres acabados en consonante. Los ejemplos anteriores se pronuncian, y se escriben también a menudo, maYean, loYean, kuYean» (7). Zalantza onetan, beste askotan bezala Euskaltzaindia'ri bere aolkua eskatu nioken eta ik orren bearrik eztiagula esaten didak. Mundu onetan bidegurutze batera irixten geranean eta batez ere aukeran ageri zaizki-gun bi bideok jator antzekoak baldin ba'dituk, zalantzan gelditu oi gaituk ezkerretik ala eskubitik joko eta une orretan aolkari on bat alboan suertatzen ba'zaiguk, lasai-

tasun aundi bat artuaz, bere iritzia eskatuko zioz kagu noski baiño noskiago. Ene ustez, gure zalantza al-dietan Euskaltzaindia duk aolkari-rik zuzenena eta zuhurrena. Bere kontsejua mesedegarri zekigukek eta sekula ez kaltegarri. Ene aburuz, ordea, batasunaren alde, kai-AN, ibai-AN, mai-AN erabiltzea obe duk.

Ille izenetan ere -EAN erabilli bear dela zalantzarik eztiat orain. Eibar'ko itzaldia egitean ba-neki-ken Gipuzkoa-Naparroa'ko mugal-dean Iibeltzean, Otsaillean... esaten zuela erri jatorrak, baiñan batzuek esaten zidateken Bizkai aldera Urtarril-an, Otsailan esaten zela Urtarril-ean, Otsail-ean esan bearrean. Ori egia izatekotan illeen azken -A ori organikoa litzakek, arestian aipatutako «baratza»n be-zala eta bi bukaerak -AN eta -EAN zillegi itukek. Ik, ordea, esaten di-dak Bizkaia'n ere -EAN'en amaitzen dituzutela eta ire esanean konfidantza geiago zeukat beste txosten emalleetan baiño.

6^{gn}.—EGI eta EGIA.—Oso ederki bereizi dituk lenengoa «colina» eta bigarrena «verdad» direla esanaz, baiñan, ik euk eztuk idazten «egia bat» (una verdad). Zergatik ez? Besterentzat predikatzen ari ote aiz?

(7) «Gramática de los cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara», 205^{gn}. or. ald.

Aidean pasa ditzagun ondorengo uskeri batzuek, bestela ezpaitiat sekula bukatuko ire erantzunarekin eta irakurleak gogaituko dizkiat. Gauzatxo bat adierazi nai diat soilki. Nik neuk, *du*, *dot*, eta *det*'on artean ez diatela joan den aspaldian batere zalantzarik. Irakurtzark ongi nik idatzitakoa eta ikusiko duk nahaste orrekin bein bukatzeko Euskaltzaindia'ri «DUT» en alde auzia ebakitzeko eskatzen diotela.

7'gn.—Eztiat uste «ala» eta «edo» ongi bereizten dituenik. «EDO» ene iritzian duk «indistintamente una cosa u otra» eta «ALA» «o bien una cosa o bien otra». Onetxegatik, ik jartzen dituen bi adigarrietan Mitxelena-Elizalte jauna ongi ari duk eta idazlexo au gaizki. Orra Mitxelena'rena danen bixtan: «Bizkaia'n EDO Gipuzkoa'r. (en Guipuzkoa y en Bizcaya, indistintamente) *ken zaitez-kendu* zaitez zillegi dirake». Ni maiz xamar erortzen nauk utsegite ontan igarri gabe, teorian'egia nun den ondotox baldin ba'zekiat ere. Akats au eztuk arritze-koa, Gipuzkoa'n beintzat erriak ezipaidizkik ideia biok ongi bereizten. -EDO, zalantzarik gabe, -ALA'ren barrutia bereganatzen ari duk. Alatsu, ZEIN'ek NOR'en erabilkizuna zearo bereganatu dik Gipuzkoa'n. Orratx, irakurleen bixtan nire, esaldia zuzendu: «Eraso gaizto oni eutsi egin bear al-

diogu ALA (o bien otra cosa) aitzitik, izurrite oldarrari eutsi?». Mitxelena jaunaren alorrean ez adi uts-arrapaketan jardun, denbora galduko baituk eta eskutsik atera... zikindutak ez ateratzekotan. Emen gaituk beste milla gizajo gure euskera sekula ikasi eziñean eta gurekin dudarik gabe probetxu ohea izanen duk.

8'gn.—Amaitzeko, gozemak lenbailen «Amasei Seme Euskalerriko» ren eskubidetasunaz solas arin bat egitera.

Lenago ere mintzatuak gaituk biok auzi ontaz, baiñan, nunbait, nire arrazoiak jai zeukatek ire baitan. Zer egingo nik nire usteak onetsi nai ezpa'dituk? Oraingoan, ordea, idazki agiri batean salatzen nauk eta nik ene buruaren alde ateratzeko eskubidexoa ba-zeukat gure zezen-plazako jendearen aintzinean.

Titulu ori atzekoz-aurrera jartzeko zertan oiñarritu nindukan esan nikan lenago ere, baiñan gure ixtilluai begira dagoen jendearen jakingarri, berriro agertuko diat leerro auetan. Erdi-Aroko dokumentuetan, jendaki izenak, euskeraz emanik daudenean, gixa ortan ageri oi dituk, ots, -KO toki-atzizkia atzera boteaz. Sail bat aldatuko diat ondoren, egiazko euskal-senari igarri ahal dizaioken. Olerkari aize-nez, ez al-diek ukatuko izen labur oiei poesi kutsu zoragarri bat. Onatx: «Igurai Mendiko», «Antso

Iturriko», «Garzia Iriarteko», «Garzia Larraineko», «Garzia Mendiko», «Lop Gamarrako», «Lop Hurduringo», «Lope Iriberriko», «Lope Landako», «Nikolai Urrutiko», «Peru Zaldunbideko», «Teresa Iturraldeko», «Maria Bazterreko», «Orti Erro'ko», «Eneko Arzeiz Iriarteko», «Santso Garrariko», «Orti Mendigorriko», «Lope Anderetako», «Santso Undiko», «Iaun Orti Ataondoko», «Garzia Zuriko», «Eneko Enerizko», «Domiku Larraineko (a)», «Mikeliz Orkoienko», «Garzia Olabeko», «Santxo Etxeberriko», «Orti Elizariko», «Orti Maiñeruko», «Garzia Zumbelzko», «Domeka Gamarrako»,

«Santxo Airetako», «Garzia Ormaetseko», «Lope Oskozko», «Domiku Gibelego (a)», «Garzea Arraitzako», «Garzia Larrainetako» (8). Sail luze xamarra aldatu diat, erabilkizun onek ziken indarra eta sustrai sakona ongi ikusteko. Izen oek guztiak Napparroa'koak dituk —Euskal-lerria'ren zain-enborra gaur igartu zorian—, baiñan, beste euskal-alderdietan ere indar berdiñarekin zioztiken sustraituak. Gure eresi zahar eta bertotan ageri diren erakusgarri batzuek aditzera eman gura dizkiat soilki, jostera onen jator-tasanari obeki igarri ahal izateko.

«Andre Milia Lasturko»ren eresitik ahapaldi bi:

Arren, *Andra Milia Lasturko*,

Peru Garzia'k egin deusku laburto (9):

Egin dau andra *Marina Arrazola'ko*.

Ezkon bekio; bere idea dauko.

Mondragoe'ri artu deutsat gorroto,

Giputz andraok (10) artu ditu (11) gaixtoto (12);

Iturriotz-kalean *Andra Maria Balda'ko*,

Arte-kalean *Andra Otsanda Gabiola'ko*,

Erribalean *Andra Milia Lastur'ko*.

(8) Izen sail au Jose Maria Lakarra'ren «Vasconia Medieval» liburutik ateara dago. Donostia'n, 1957'gn. urtean.

(9) «Laburki» esango luket gaurko euskaldunik geienak. —TO eta —KI atzizkiak esangura berdiña dute: *Txar-to-txarici*, *ondo-ongi*... Emen, ordea, «labur»ek eztu *corto*, *breve*, esan gura, «makur», «dollar», «donge» baizik.

(10) Ba-dirudi esaldi ontatik aldi ar-

tako euskaldunak etzutela Mondragoe Gipuzkoa jatortzat aitortzen.

(11) Orra, «ditu» aditz-jokoa antziñatik Bizkaia euskeran sustraitua, Ez ote du «dauz»ek ainbat merezimentu bizkaitar izateko? Gaurko Bizkaitar idazleek «dauz» baztertuz «ditu» onartuko ba'lute, euskeraren batasunak mesede luke, noski.

(12) Gaiztoki.

Aramaio'ko Eresitik :

«Izarraga»tik gora eltzian joeala (13)
Jaun Peru Abendaño'ko'k esala (14) :
Oñetako lur au jabilt ikara,
Gorputzeko lau aragiok bezala.
Oi, aldi oneri al-ba'negi enpara! (15)
Berriz enendorke Aramaio kontrara!
Mendiola, il deustak Gaxto Apala,
Bere laguntzat beste asko ditubala.

«Apez Beltza»renetik :

Borthagarai Orzaize'ko, Borthairu Ezpeleta'ko!
Hi Bordele'n, ni hor Baiona'n, a zer gizonak galduko!

«Beñat Mardo»renetik :

Ni deitzen nuk Beñat Mardo, *Barkoxe-Baxabilla'ko* ;
Otoitzen hait eztizadala kantorerik hunt haboro,
Eztakika ni nizala buruzagi hartako?

Orratx, ire erri inguruko kanta-
gai zoragarri bat :

Madalen Busturiko :

Gabian, gabian,
Errondian dabilta
Zeure portalian.

Ez al-dik biotza ikuitzen Ameri-
ka nabar orretan ire Bizkaia'ren
margo lilluragarritz jantzitako ko-
platxo xarmangarri onek? Gipuzke-
raz ere ba-dizkiagu tankerakoak eta
eztiat sail onetan ixildu nai gure
euskalkiko bat eman gabe:

Josetxo Olaberriko :
Zer dezu negarrez?
—Amak ezkontzerako
dirurik eman ez!

(13) Eltzian zijoala. *Eltze*, Azkue'-
ren iztegiak dionez: «terreno baldio, in-
culto»

(14) Gure belaunaldiko euskaldunei
bi lenengo bertsuok bitxi egiten zaiz-
kigu. Orain, onela esango genduke:
«Izarraga'tik gora eltzian joeala, Jaun
Peru Abendaño'ko'k esan zuen».

(15) *Preservar?* Azkue'k Duvoisin'i
artzen dion zentzu onekin ongi datorre-
la dirudi. Jatorkiako legoke, ordea, «al-
di oneri al-ba'negi (o) enpara».

Eresi eta bertsuok ahapaldi osotan eman dizkiat gure izen-deituren joskera erabiltzeko oitura zahar ederrari obeki igarri ahal izateko. Geiago ere izanen duk makiñabat bazterretan, baiñan nik une batean bildu ahal izandakoak oetxek dituk eta naikotzat etsitzen dizkiat nire asmoa agertzeko. Alabaiña, xehetasun bat osatu nai nikek nire asmo au obeki borobiltzeko. «Orixe» euskaltzaiñak «YAKIN» onen azken geigarrian (16) —A mugagarriaz diarduela ematen digun albiste jakingarriak, enc ustez euskal-adimetasun zahar eta jator onen sus-trai berbera zeukak. Ormaetxea jaunak Benaparroa'n egin zuen aldian galdetu zioken inguruko bati: «Nongoa zira?» Eta onek erantzun: «Donaphaleu'ko».

Uste diat, orain arte esandakoa-ekin argi eta garbi agerturik utzi diatela zein den egiazko euskal-sena izen-deiturak josteko. Erorrek aitortu idaken eskutitz batean ire erri-tarrek «Balentin Agerre'ko» izena-ekin ezagutzen autela. Zergatik za-puztu nai duk orduan ik, errizale orrek, egiazko euskal-zentzua «Agerre'ko Balentin» edo «Aurre-Apraiz'tar Balentin» erabilliaz? Era herri auek gure euskal-pizkun-de aldian asmatuak dituk, baiñan euskal-arimarik gabeak; areago, euskal-gogoaren kontrakoak. «Agerre'tar B.» tankera alderdi baten eragiñaz zabaldu ukan eta nagusi-tzeko einean jarri. «Agerre'ko B.»

tankerak potto egin ziken, ezpaitzi-ken alderdi baten arnasik izan azi-tzeko eta zabaltzeko. Gaiñera, aur bizkiok, bata bezain ogendun izanik bestea, alkarren kontra asi itukan nork nor itoko eta esan bezala bat atera ukan nagusi; ez ordea arrazoi zuelako, indarra zuelako baizik. Nik, asaba zaharren senari eta era-bilkizunari jarraiki, euskal-pizkun-deko tankera biok gaitzesten dizkiat eta gure-gureak ditukenak onesten, ots, Balentin Agerre'ko» edo «Ba-lentin Agerretarra» (17). Tankera auek gramatika legeen aurka dioa-zela? Euskal-lojickaren kontrakoak direla? Eta zer? Izkuntzak eztituk matematikak, eztituk lege zorrotza-ren jopuak, Mintzairak, txoriak ain-bat, gizonak ainbat LIBERTADEA maite ditek lege nagusi batzuen har-rutian eta Jaun Justo Garateko'ri eskutitz batean esaten nioken beza-la, ha-zirudik mintzaira baten gra-zia gramatika legeak urratuz sor-tzen dela zenbaitetan.

Orra ba: ene biografi liburuaren izena gure aurrekoen joskera sus-traitsu ontan oiñarritu niken, izen-deitura bakarrarekin erabillia izan dena gizatalde sail bati zabalduz. Nire euskal-adimenak (sasikoa ba'duk, barka) ongi erabillia dagoela esaten zidak eta ez nauk damutu, orain artean beintzat, izena tankera

(16) «YAKIN»en geigarria, I (5-6) 1960.

(17) Ez nauk ari pont-izenaz.

ortan jarriaz. «Euskalerrri'ko Amasei Seme» izen arrunt eta prosaikuaren aldean, urre diztira dariola esango nikek.

ERASKIÑA. — Ire Otsailleko 25'ekoan egiten dizkidaken galdegarrik nagusienak NUEN-NUAN-NUN'i eta ZAN-ZEN'i dagozkie-nak dituk. Ikusi diat, ordea, nik gai oietaz esandakoak irakurri ditukela 1960'ko EUSKERA aldizkarian eta bertan emandako arrazoiak naikotzat irizten dizkiat berriaz ere zurian beltz egiten ibilli gabe.

«Itxasoa laino dago...» eleberrian akats mardul au idoro didak 25'gn. orrialdean: «zularik eskuan abaniku bat». Etezkiat nola arrai atera uken akats mingarri ori, nik neronek ezin sinistu bainikan nire lumatik aterea zenik argitaratua ikusitakoan. Joskera ori erabat arbuia-tzen diat. Etezkiat errua nirea ala inprentarena izan uken, baiñan dena dela, nire borondate kontrakoa. Joskera orrek iri ainbateko belarriko min egiten zidak niri. «Euskaltzaindia»ren esku dagoen bigarren ediziñorako antolaketan onela zuzendua zio: «abaniku bat zuelarik eskuan».

«IZORRA» itzarekin ere jarri didak auzi eta nire ustez batere arrazoirik gabe. Orra ire itzak: «Xeie izorra gelditu... izkera motza, mutil. Leenago ondo esana ba'zoan bere, orain ba-dakik IZORRA'ren esangurea» Poliki ortxe,

Aurraitz adiskidea, poliki labain egin gabe. Gaur-gaurkoz, nik daki-telarik, IZORRA'k atzeukak, zorigaitzez,, erabilkizunik euskaldunen artean, beraz, ez dezakek zentzu zatarrik iduki. Itz eder au, gure antziñatean ain erabilia, orain igartua zegok eta bere orde z euskaldunak, cmakume bat izorra dagoela esateko «aur egiteko» edo «aurdun» dagoela esaten ditek («estaduan» ere bai makiña batek). Nire ustez, mintza-molde onek izkuntzaren pobretasuna besterik ezтик aditzera ematen. Gure zaharrentzat «IZORRA» itz garbi eta errespetagarria uken eta garbi eta errespetagarri izaten il duk, ZORIGAITZEZ, diot berriaz ere, euskaldunen ezañnetan. Oihenarte gureak itz eder au Ama Birjiña'ri eskeintzeko kezkarik etziken izan, zikin-kutsu izpirik izan ba'leza ezañnik erabiliko. Onatx, Oihenarte'k Gabirel Goiaingeruaren ezañnetan jartzen dizkiken itzak Ama Birjiña agurtzerakoan:

*Zure bizitze zuhurrak
Zeru-lurrak
Derakarzke bakera,
Ezi Iwinkoa'z zar'IZORRA
Harh: nigorra
Hunen zuri erraitera (18).*

(18) «Oihenarteren Gaztaroa Neurtzitzetan», 56'gn. or-ald., L. Mendizabal'en irarkolan, Tolosa, 1936. Ediziñoa au 1657'koaren tankeran egiña dago.

Itz oni aditz-tankera ematen ba' iziokagu, orduan, izan dezakek itz itxusiaren usai gurealdian, baiñan bein bitartean ez. Nire ustez euskaldunok ez gindukek saiatu bear IZORRA itza bazterten loi-zipriztiñak irixten zaizkiolakoan, baizik eta sustrai ontatik sortutako itzai erantsi zaien zikin kutsua garbitzen. Ez ote duk uste euskerak eta erlejiñoak mesede geiago luke-
ta orrela?

Oarra: Nire azkenekoan esaten niken ire «Ume zapuztua» etzitzai-

dakela atsegin izan. Ori beingo irakurraldiaren iritzia uken. Geroztik bizpairu aldiz irakurri diat ire olerkitxoak eta bakoitzean mamitsuago eta ederrez ornituago iruditu zaidak. Izan ere, olerkiak ezituk nolana irakurtzeko, egonarriz baizik, sarritan gertatu di baituk ederra ezkutuan egotea eta ez azalean. Orduan, erleak loreai bezala, eztena barru-ezkutuan sistatuz, gozoa ateratzen jakin bear. Agur, adiskide eta gaizki esanak barkatu.

LORAMENDI, *Olerki ta idatzi guztiak*. Yurre'tar Julian Abak eratua. Itxaropena, Zarauz, 1960.

Zorionean erori da nire eskuetan liburu zoragarri au. Loramendi-ren olerkiak, orain arte sakabanaturik zebiltzanak, bilduma eder batean eman dizkigu Yurre'tar Julian Abak. Loramendi olerkariak ez dago zer esanik. Oraindik berri baiditugu aren jaioterrian egin zitzaizkion gorasarrea ta orduko lanak, batez ere Jauregi'ren saritua. Eta argitaldi oneri buruz berriz ez dugu eskerrak eman baizik. Alegia, bilduma osatu duenari. Gaztediari begira egindakoa da, oarretan aberats eta ugaria. Zail xamarra egingo bailitzaiguke bestela Loramendi'ren olerkietako euskerara oitugabeoi. Ta obeto dago alaxen, erderazko itzulpena alboan ezarriaz baiño, hai. Alperkeriari ateak itxi zaizkio. Bedoña'tar Joakin «Loramendi»-ren olerkiak on asko egingo dute gazteon eta guztion artean, ezpairik gabe. Ba-dugu nun ikasia hai euskeraren aldetik, bai bere oleri frantziskotarretik ere.

Idazkiak azalean «Olerkiak» izena daramalarik argitaratu da; baiña ba-ditu itz lauz egiñiko lantxo batzuek ere, izenburu osoak adierazten digun bezala. Itz lauz daudenak ere oleri dira, beraz. Yurre Abaren Aurreitz mamitsu batek azaltzen dizkigu erabilli dituen idazki ta kriterioak xeetasun guztiz. Orixe andiaren itz labur batzuek irikitzen dute libururako atea.

Azken orduan esan zituen itz aiek bete dezaizkigula orain an goitik Loramendi aingeruak: «Zerura noa... zerutik lagunduko dizuet zuei... euskerari... Euskalerriari». Ta bukatzeko, milla esker gaztedi euskalzalearen eta olerki maitaleen izenean Yurre'tar Julian Abari.

KALERO

TERESA DEUNAREN IRAKATSIAK

Sekundino Anaia

— Karmeldarra —

IV.—OSOTASUNERAKO BIDEA GARBIKUNTZA

Osotasuna irixteko iru gauza eskatzen dizkigu Teresa'k, ikusia dugunez: garbikuntza edo ukoa, onoi-menak, otoi-tza.

Iruotan aurrena, garbikuntza. «Gogo garbia duzute leen arria; oben ariñenetatik ere aldegin eta oberen: bete bear duzute» (C. P. 5, 3). Kurutzeko Jondonek ederki dionez, gogoa Jainkoz bete al izateko, Jainko ez dan oroz ustu egin bear dugu. Ustutze auxe, garbikuntza.

Nola garbitu baño egokiago zer garbitu, zer kendu ikusiko dugu.

Teresa'k, ordea, griñak-eta ez dizkigu aszetikoak bezela xeatuko. Teresa Deunaren idaztiak ez dira aszetika-jardunak. Uka bearrak laburki azalduko dizkigu. Aszetika—jardun landuak ez dira Teresa' rentzat.

Obenak, legeausteak, bi eratako ditugu: aztunak eta ariñak. Ba-dira ere utsarteak, aolku-austeak. Guztion zer izatea ez dugu azalduko. Oien buruz Teresa'k zer dioskun bakarrik jakin nai dugu; oiek baidira gure gogoa orbantzen dutenak.

OBEN AZTUNA

«...eta nere gogoa izpillu disdi-

ratsu iruditu zitzaidan; atze ta alde, goi ta bee guztiz argitsu zitun. Erdian Kristo agertu izan zitzaidan, ikusten dutan eran. Ene gogoaren alde orotan izpilluan bezin argi Kristo ikusten nun. Izpillua ere, nola ezin dut esan, osoro Jau-nagan antzetzua zan, adierazteko ez naizan ar-eman txit maitetsuaz... Au aditu nun, ots, gogoia oben az-tundun izatea, izpillua gandu itsuz estalia ta guztiz belz geldjtzea dala. Ori orrela, Jaun au ezin dazakegu ikusi, uneoro jzatea ematen geu-Tongan daukagun arren» (V. 40, 5). M. 1.^a, 2, l'an idea berbera dakarkigu: «...eguzki bera gogoia- ren erdian oraindik dagola ere, ez balego bezela da».

Zein izugarri dan oben aztun- dun gogoia! «Illunperik illunenak eta gauzarik belizenak ere baño as- kosaz illunago ta beltzago da». Loi- tan irauli bitxia, noski.

Belzkeri onek nolako ondorenak dakarzkio gogoari?

«Onurarik batere ez du atera- zen. Oben aztunean dagola egin- dako egintza on guztiak zoriona irixteko ezer ez ditu, ez baidatoz Jainkoagandik. Jainkoak bakarrik egiten du onoinen gure onoinena; Argandik alde egiña, beraz, ezin izan Ari atsegin». (M. 1.^a 2, 1).

Goraxego csana zun olako go- goan Jatma ez bailegoan dagola. Orregatik dio orain alakoaren egin-

tza onak ere ez datozela Jainkoa- gandik.

Oben aztundun gogoia nolako ger- tatzen dan jakin luken «iñork ere ezin luke oben egin, naiz ta arris- kuetatik ateratzearen nekerik la- tzenak leporatu;» (ibid. 2) Ain itxu- si la bildurgarri Teresa'k ikusi zun nunbait» «Orregatik au guztxei adie- razteko nai bizia sortu zitzaion... iturri garbia uizita, ur beltz-zikin eta ats naskagarria darion iturrira aldatzen dan gogoari darion guztia ere zorilxar eta zikinkeria bera bai- da» (ibid.).

Oben aztunen bat egin duna beti- rako galdua otc. beraz? Teresa'k ez dn ori esan nai. Oben aztundun go- go doillorraren zerurako ezer iraba- zi eziña adierazi nai du bakarrik.

Olako gogo zatarra Jaunaren aur- ka ari da. Amaibako sutan datzan gogaiztua du buruzagi. Onek, be- rriz, ez dio erruki aundirik. Sasi- lagunaren atzamarretan bildua da- go pekalaria.

«Jaunartzera ninjoalako batean deabru oso naskagari bi gogo-begiz ikusi nitun, soiu-begiz baño ere ar- giago. Aien adarrek apaiz gaixoaren zintzurra loturik zeukaten... gogo ura oben aztunean zegola aditu nun». (V. 38, 23). «Urte askotan gaizki bizi izan zan norbait... aitor- tzeke il zan. Ura jazten ari zirala, zera ikusi nun, ots, deabru-oztea arekin jolasean..., burni-kakoz ba- tetik bestera baizerabilten... Illa

obiratu zutenean, alako deabru-oztea ura artu zai an baizegon, izututa nengon... Soñaz ala nausitzen ziranek gogoaz zer egingo ote zuten?» (ihid. 24-25).

Orra zein bizirot ta soilki Tere-sa'k adierazi digun oben aztunean dagon gogoaren egoera negargarria.

Gaztelu dirdaitso, eder, bikaiña da Jainkoaren grazian dagon gogo. Erdi-erdian Jauna dago argi ta indar dariola. Gogo ta Jainkoa elkarturik daude, maite-maitezko elkartasun gozoan bizi dira. Ur gardena ibaiak darion iturria gogoak dirudi.

Oben aztunduna, berriz, illun, zikin eta bezturik dagon izpillu dirudi; istil kiratsa. Jainkoagandik aldegin eta deabruaren menpean jarri da, deabrua atsegin nai izan du. Deabruak, berriz, Jaunaren zigorra izan, sekulako jipoia eman dio.

Egi oietaik iru ikaskizun Tere-sa'k atera zitun:

1.^a Jaungoikoari zeinbat zor dion ezagutzea (V. 38, 23 ta 25).

2.^a Oben aztuna ez egitearren milla ere bizi galtzeko asmo bizi-bizia egin bear dugula. (C. P. 41, 3).

3.^a Oben aztunean dauden ga-xoen alde otoitz egin bear dugula. (M. 1. \ 2, 2; VII, 1, 4).

Oben ariña.

Oben ariñik sarritan egiten dugu ez jakiñean, igartzeke. «Olakorik asko egiten ez ditunik bai ote ditek?» (C. P. 41, 3). Oiek ez diote kezkarik ematen.

Besteak, jakiñean egiñak Teresa kezkatzen dute. Kristau txepelak errezen iresten ditu. Ez orrela kristau jatorrak osotasunera eldu nai dnak. Bizirik dagonak edozein ikutu nabaitzen du, naiz ta orraztxoarena izan. Olaxe kristau jalorrek oben ariña. (Concep. 2, 5). «Ariñik ez egiteko ardura aundia izan zazute... Oartu orduko egiña dugu batzutan. Guztiz iakiñean oben egitetik, orde, Jaunak begira gaitzala. Izan ere gutxirik ez baida, begira dauka-gun onenbesteko Jaunaren aurka danean: (ibid.). «Aztuna» ta «ariña», beraz, ez ditugu itz egokiak; oben guztiak dna aztunak. Eta zein aztunak! Iraindua bikaiñago, iraiña aztunago noski.

Egite bakoitzak, ikutu bakoitzak bere aztarna uzten du. Egiteak. ikutuak ugariago ta aztarna egiñago, barnetuago, sakonago. Aztarna sakonago ta aztarnatua aztarnatzaile-zaleago. Aztarnotzailearen erro bezela baida aztaxna.

Oben ariñarrkin orixe gerta ditek. Ezer gutxi dala-ta, jaramonik egiten ez badiogu, lenbizikoan utzi azlarna barrenagotzen doa, nausitzen doa. Obena sarriago: aztarna

sakonago, errotuago, gogoa oben-berago, obena utzi-gaitzago.

«Landaratxoa egunero ureztatzen badugu, aundi egiten da ta ura erauzteko aitzur: ta guzti bear ditugu. Olaxe ere oben bat egunero egitea, naiz ta txikiena izan... ipiñi ta bereala erauzi, ordea, errez erauzten da». (Concep. 2, 18).

Oben aztunetan ibillitako batzuk, bizikera ori utzitakoan, oben ariñen ardurarik ez dule izaten. Oben ariñak, orixe, gauza arintzat, zer gutxilzat dauzkafe. Ta oztopo emen, oztopo an dabilta. Ta oben-aztarna nausitzen baidoa, oben aztunetatik ere ez daude ain urruti eta alden-durik. «Ontaz arduratu?» —diote. «Zertako dira, ba gure Ama Eleizak dauzkan ur bedeinkatu eta beste ainbat sendagarri? —Negargarria au—dio Teresa'kx Jaungoikoagatik, arren, ez zazutela iñoiz oben txikienik ere egin, sendagarririk ba-dalata; ez da, ba, zuzen ona gaitzaren aitzaki izatea» (ibid. 20).

Gaitzik egin orduko, sendagarria billatu ta okerra zuzendu, bai, len-baillen egin ere. Ez, ordea, sendagarria eskuan dugula-ta okerra egin. Jainkoarekiko eginkizunak ez dira jolasak. Jainkoarekin ez-bai'ka ibiltzea ez al da lotsagabekeririk makurrena?

Oben aztuna alde batetik begiratu du Teresa'k; ariña bestetik. Oben aztunak gogoia nolakotzen

dun azaltzn batik-bat jardun du lenbizikoan.

Oben ariñaz aritzean, ez du aiatatu ero orrek gogoia illuntzen, bez-tutzen. Jaunarengandik alderagiten dunentz. Beste au dio, ordea, ots, oben ariña deritzaguna ez dala ariña ta uts aztunagoetara gogoia daragila, ta onegatik aal bestean itzuri bear dugula. Jaungoikoari zor diogun maitasuna bezainbateko ardura erc bear Ari utsik ez egiteko.

Utsak.

Utsik eta etenik asko dugu guttiok. Zeinbat etu zeinbat egunero! Igarri gabe batzuk; makalaren makalez besteak...

Oiei ere, ordea, aal bestean atepak itxi bear. Izan ere, bestela bai ote gindezke, ba, osoak? Akastunik ezer ez da oso.

Ain ugari ta 'txiki» ditugularik, berriz, nola oiekandik gogoak begirai? Ba-dira oben nagusi deritzatenak. Oiek dira besteen iturburu. Emen ere berebat gertatzean da. Uts batzuk dira nagusi, besteen eterburu, Auek gudan zer ikusirik ez, noski, aiek ez balute. Aiei burua zapaltzea, beraz, gure leen eginkizuna... Ta nagusirik ez bada, morroirik ere ez.

Zeintzuk dira Teresa'k nagusientzal ditunak?

Elkar-maitasunari ta apaltasunari buruzko utsak. Bi oiek izan ere

baidira onoimen nagusienak. Adierazia dugu, ba, maitasun betea dala osotasuna; apaltasuna, berriz, Jainkoa lagun, esanen dugunez, osotasunaren oiñarria. Onoimen oiei buruzko utsak, beraz, uts-iturburu.

Urkoa maitatzea zein bearrezkoa zaigun ikusia dugu. Ez dedilla, ba, gure artean —monjei desaeie, baiña guztioi dagokigu— alderdikieririk, elkar ikusi eziñik, elkar-artu nai ezik. Gauzok sarriaskotan gure erruz ez baiña berez sortzen zaizkigu, edo gerok ia igartzeke. Zergaitik ez dakigularik, au etzaigu begiko; besle onek esanari, onek esana dalako oker deritzagu; alako aren edozein itzak min ematen digu...

Olako akatsek ez dezatela bizi-tza luzerik, zaarrago ta erauzi-zai-Uago baidira. Igarri orduko sendatu bear ditugu (C. P. 7, 10).

Beste uts bat alare zaio gogaikarrien: aundikerin (mayorias) oorekerifl (puntos de honra). Au da geien ailtzen dun utsa.

«Odola izozten bezela zait, iñoiz oorekeriak scrtu ditezkel, gogorazten zaidanean, komentuetako gaitzik nagusiena baida» (C. P. 7, 10). Arrckeriaren erro izan, noski. Ta gaitz oroen iturri arrokeria, beronek ekarri baizigun leen obena.

«Gauza izugarriak egiten dituzten batzuk ezagun ditut. Zer dala-ta, ordea. ez dira osotasun azken mailaraiño eldu? Ara, oorekeria dutelako». Oorekeria sitsa bezela da. Ez

ditu onoimen guztiak galtzen, baña bai zurilzen. Ta landare zurindua, arrak jana, azten ez. «Sarritan esaten dizuet oorekeri txikienarekin ere organu-eresiarena gertatzen dala neurri batean naiz ots batean uts egiteak eresi osoa galtzen dula. Jainkoarekir. bat egin naiean gabiltza, irain eta gezurrez estaldua izan zan Kristoren aolkuak bete naiean, eta guretzako oore ta izen ona osooscrik nai? Orrela ezin araiñotu, noski; oorea ta iraiña ez baidoaz batera» (V. 31, 22).

Orra uko egin bearreko gauzak. Gaitz aundiari uko egitea ez da ain zail; txikiari uko egitea, ordea, bai zailla! Zintzoa egunean zazpitan jausten dala dio Idazteunak. Iñoiz ere, beraz, ezin p.tsedenic artu, beti ernai egon bear. «...azke gerala us-te dugunok ez gaude guztiok azke» (V. 31, 20). Gure gogo-biotzak Jainko ez dan ezer gabe eukitzea ez egon gure esku.

«Jainkoak bakarrik, guk otoitz eta egiñalak egindakoan, lokarri ori autsi dezake». Gu gabe egin gaitunak ez gaitu gu gabe gaizkatuko. Osotasuna irixteko gure indar guztiak **erabilli** bear. Egiñalak egin eta eziña Jainkoari biotz-biotzez eskatu.

Okerrerakoan geron indarrez —egokiago: indar gabez;— beruntz goaz; onerakoan, gorantz joateko, Jainkoaren indarra nai ta naiezko.

Orra Teresa'k garbikuntzaz irakasten diguna. Gurutzeko Joan eta

beste ainbat aszetikoenaren ondoan
bai laburki! Ezezkoa baiño ardura-
tsuago haiezkoa Teresa'k azalduko

digu; ipintzekoa kentzekoa baño
luzekiago.

JAKIN-sariketa

Bere egunean adierazi zan bezela, egin da JAKIN-sariketa, ta maiburukoek eman dute erabakia. Gogoan ez dutenentzat, berriro gogoraten dizuegu: epailleak Mitxelena ta Txillardegi jaunak, Aita Santiago Onaindia (karmeldarra), Imanol Lekuona Apaiz jauna, Aita Iturria (prantziskotarra) izan dira. JAKIN'en. 1960'ko urtean, argitaratu dan lanik onena aukeratu bear zuten bostok. Ortara, esan dute, beren eritiz, zeintzuk ziran lan egokienak, eta bakoitzak leenengo lauak izendatu ditu, beren balioeri zegokienez ordenatuaz.

Auek onela, bosten artean leenengo lau maillatan banatu dituzten lanak auek izan dira ta ordena ontan gelditu dira:

1.—Intxausti, Arantzazu'koa: SCHOPENHAUER EDO ZORIONIK-EZA:

2.—Jose Azurmendi, Arantzazu'koa: *Adimen beartzea*:

3.—Olaberría, Arantzazu'koa: *Anton Txexoj*:

4.—Osa, Laterandarra: *Nola ezagutu Kristo*:

5.—Sekundino, karmeldarra: *Teresa Deunaren irakatsiak*:

Mikel Lasa: *Georges Bernanos*:

6.—Iztueta, Billaro'koa: *Eriotz-ondorengoaren berri*:

Erdozaincy-Etchart, prantziskotarra: *Berri Ona etorri zauku*:

Intxausti, Arantzazu'koa: *Oteiza'tar Gorka - Arte berri bat?*:

7.—Jose Azurmendi, Arantzazu'koa: *Russell: jakiterik bai?*:

Urange, Billaro'koa: *Aurrerapena ixiltasunaren truke*:

Ulazia, Arantzazu'koa: *Teknika Jainkoaren aurka?*:

8. Intxausti, Arantzazu'koa: *Filosofia, zertarako?*:

Auek dituzu epailleak leenengo lau maillatan eman dituzten lanak. Zorionak irabazleari ta gaiñerako guziei.

Aipamen berezia izan dute, gaiñera: Azurmendi'k (Jon), Joxe Austin'ek (pa-siotarra), Laskibar'ek, eta Saitza'k (Billaro'koa).

Erri baten misterioa

Arruti'tar Dionixio

—Arantzazu'koa—

Bere txikian aundia dala esan dezakegu judu-erria edo arraza. Derriorrez bear indarra eta kemena, gizaldiz gizaldi izan dituan ezbear eta sufritudearren gain, iraun eta bizi izateko. Eta azken bolara ontan iñoiz baiño indartuagotu dan berenganako ikusi-ezin edo antisemitismu ori bera ere, ez ote da gero, erri onek zerbait berezi eta arrigarri barden seiñalea? Judu-erriaren edestia eta izatea misterio bat dala esan dezakegu. Eta kristauok bakarrik ulertu dezakegu, erdika baikere, misterio onen mamia. Judu-erriaren berezitasuna, bere izateraren muiña, Jaunak Igarle eta Arbasoen bi-

dez eman zion betebearrean dago. Jaunaren «autatze» uraxe da bere edesti guziaren ardatz bezela. Ba-du, bai, judu-erriak bere edestian beste erriak ez bezelako zerbait. Eta zerbait ori ikusi ez dugulako, edo erdika ikusi dugulako, or dabil judu-erria, bere izakera oso gutxik ulertzen dutelarik.

Ez al dira ba gaiztoak juduak?

Aur txikiak ipuietako mamuak bezela ikusi izan ditugu maiz juduak. Aitatu utsarekin ere bildurra edo ikara sortzen digutela dirudi.

Askotan entzun bear izaten ditugu onelatsuko galderak: «Ez al dira ba gaiztoak juduak?» Kristauon artean ere sartuegia daukagu «antisemitismua» deritzaion gaitz ori. Eta ain zuzen ere kristauok geok izandu omen gera —Jules Isaac-ek dionez— gaitz onen zain eta iturburu. Berak dionez. IV mendean agertu zan gaitz ori. Orduantxe asi ziran, kristauak asi ere, juduei gaur erasten dizkiegun akatsak bizkarreratzen: Kristoren etorrerarako juduerria gaizki gertututa eta erabat gaiztatuta zegoala; Jaunaren itza entzuteko gauza ezta, Jainkoari **berari** eriotza eman ziola; Jaungoikoak betirako madarikatu eta sakananatu zuala esanaz. Batere uste gabea, judu-erria orrela ikusiaz, kristauok sortu eta indartu omen dugu antisemitismu-gaitz ori, eta geok omen gera izan ere antisemitismurik itxuenaren, nazismo beraren zain eta sustrai.

Geitxo dirudi Jules Isaac-ek diotak. Elizak onartu ez ezik gogor gaitzetsi izan baitu beti nazismoaren joera eta juduenganako ikusiezina. Erdi-Aroan eliz-gizon sonatucnak bere euslerik sutsuenak izan ziran. Eta batez ere Jules-ek ezin dezake esan antisemitismu guzien **iturri** kristauok geranik, kristianismua sorlu aurretik ere gaitz ori nolabait ezagutua baizan, eta gauregun berian ere gaitz ori musulmanen artean ondo zabaldua eta itsatsia dago.

Baiña ezin dezakegu ukatu. Kris-

tau askoren artean sartuta dagon gaitza da juduak, juduak direlako bakarrik, ezin ikusi eta nolabait gorrotatze ori. «Ez al dira ba gaiztoak juduak?» Sarritan entzun bear izaten degu kristauon artean ere galdera ori. Eta gure akats ori, juduenganako ikusi-ez) ori alegia, ukatu ez, baiña zuzendu egin bearra daukagu. Ikusi dilzagun beraz, judu gizajoei bizkarreratzen dizkiegun **salaketa**, eta salaketa oien oiñarriak, gezurrezkoak ala bidezkoak diran.

Baiña aurretik Jules Isaac berak esan zituan itz aiek gogoratu nai nituzke: «Kristianismuak erabat baztertzen du antisemitismua». Izan ere krislau-erria, judu-erriarekin lokarri hatez alkartuta dagola dirudi. Liturgian, esate baterako, Israel eta Eliza batera erabiltzen dira maiz. Eta Aita Santu Pio XI'ak zion: «Espirituz semitarrak gera guziok».

Kristauok eta juduak lokarri batez lotuak, alkartuak gaude, eta lokarri ori Kristo dugu. Izakeraz eta tradizioz, otoiitz eta salmuetan esate baterako, zerbaif aztarnatu ezkeru, uste baiño alkarren antz geiago arkituko gendukeala uste dut. Testamentu Berriko Teologia, Zaarrekotik asita osatua daukagu, atal askotan beinlzat. Eta Kristo bera ere etzan etorri bere aurreko guztia aushi cta desegitera, osotu eta obetzera baizik.

Zergatik juduenganako ikusi-eziña?

Jules Isaac-ek garbi adierazten dizkigu juduei bizkarreratzen dizkiegun akats eta salaketak. Berak bezela, irutan sartu ditzazkegu. Aurrez aurre irurak erabat gezurrezkoak, edo egia erdika dutenak direla esanda, ez genuke utsegingo.

Judaismua jaunaren etorreran erabat gaiztatua zegoela esan oi da. Ez omen zan gauza Igarleak esanak ulertu eta berarengan aragitzera zertorkion Egia ezagutu eta onatzeke.

Nunai eta beti, aldi guzietan bezela, judu errian ere Jaunaren etorreran barrabas-belarra eta garia biak zeuden naasian, bai naasian, baiña biak. Kristok zekarkigun Berrri Ona eta eginkizuna erri xeean, Yabe-ren itzari zintzo zitzaion taldean bete eta zabaldu zan, beartsu eta zintoen tartean. Beraz, utsegin ote zuan ta, lurean bere sarrerarako aukeratu zituan garai eta lekuak aukeratzean? Gaiñera salaketa ori geon buruaren kontra datorkigu, Elizatik kanpora dauden asko, Kristo aaztuaz bere Ebanjelioa betetzeke gauza ez gerala salatzen ari zaizkigu etengabeta.

Bigarren akatsa edo salaketa, eta juduentzat minberagarriena noski. Jainkoaren eriolzaren erru guztia judu-erri osoari eta berari bakarrik bizkarreratzea da. Jainko-eriotzaren erru ikaragarria judu erriari bakarrik erantsi izan diogu sarritan. Salaketa (akusazio) ori zabaltzen dutenak, kristau-lege eta maitasuna-

ren izpirik ere ez dutela besterik ez dute adierazten.

Emen bai gogoratu bear ditugula Jesus-ek berak esaniko itzak: «Zuetan inor errugaberik bada, bota dezaiola lenengo arria». Eta baldin fariseo zaar aiek aiña buru eta zentzu badugu, ixil ixillean bazertu beste biderik ez dugu izango. Jesus-en oriotza. Bera gurutzeratu zutencn asmoetan, —Juduen Apaizburu, Fariseo, Pilatos, Herodes eta azkenean judu erria—, etzan Jainkoaren eriotza izan, gizon errugabe eta zintzo baten eriotza baizik. Jesus, ez noski Jaungoikoa zalako, beren erriarentzat politika kontuan arriskuzko gizon bat zalako gurutzeratu zuten. Eta nork ez du beste orrenbeste egin bere bizitzan? Gizadi osoa, gu geok izandu giñan Jesus gurutzeratu genduenak, eta ezta inola ere juduerria bakarrik. Beraz ezin ditzazkegu eskuak garbitu. Bestela fariseo aien antzekoak giñake: «Eskerrak. Jauna, beste asko bezela lapur, lizun... ez naizelako...» Ela fariseo aiek bai izan zuten orrurik asko.

Eta azkenik sarriena entzuten dugun salaketa: judu-erria mada-rikatua, erriz erri sakabanaturik, jomuga jakiñik gabe, ibiltzera kastigatu duela Jaungoikoak. Ori dalata, Eleizaren kontrako joeratan etsaiaren lagun bezela ikusi izan dugu geiegitan judu erria.

Emen Paulo-ren itzak gogoratu bear: «Bere erria gaitzetsi eta mada-rikatu ote du ba Jaunak? Ez ori-

xe! «Judu erri osoak etzuan ezagutu cta onartu ez, berari, ainbeste urtetan zai egonda. zetorkion egiazko Mesias. Baiña judu-errian bazan talde txiki zintzo bat, eta onek bai, onartu ela ezagutu zuan. Eta talde txiki orrek etzuan sekula ere pentsatu gaiñentzeko erritik sakabanatu eta apartatzerik. Ori ez ezik persekuzio bolaratan ere ondo gogoan zeukan Kristoren Berri Ona «lenengo juduei eta griego» zuzendua zetorkiela. Eta Paulo-k berak: «Israel salbatuko da, eta bere itzulera illen artetik bizitza izango da».

Eta judu erria betirako madarikatu duela uste izatea, Paulo-ren itz aiek belcko diren esperantza galdu dugunaren ondorioa besterik ez dala dirudi. Gogoratu ditzagun Paulo beraren itz aiek ere: «Etzaite arrotu... ezazu ikara, ez baiduzu zuk zaiña eutsi eta indartzen, zaiñak zu baizik. Israel-go talde bat gogortu bazan, beste errietakoak itzuli ziteziiio gogortu zan; eta orduan Israel osoa salbatn egingo da».

Onetsek izan bear du erri onen misterioa ikusi araziko digun argia: gure anai ditugun illunpeko aiek Mariaren Semea egiazko Mesiasztat ezagutzero itzuli ditezen naia eta itzuliko diren esperantza. Ainbeste ezbear eta naigabe izan dituzten errukarri oiek beren erriagatik negar egin zuan Arengana itzuliko diran ustea eta ametsa. Eta kristau izena daraman batengan ezin dezakegu iñola ere aintisemitismurik

onartu. Bestela baledi, geok giñake erri orren zigorrik gogorrena.

Gure mendearen lausoa

Persegituak izan dira joan diran ogei mende auetan judu gizajoak lurralde guzietan. Ala ere aldirik gogorrena geon mende auxe izan zaiela esan dezakegu. Or geldituko dira gure gizaldi aurreratu onen lotsagarri bezela. Hitler-en Alemania-n crretako sei milloi juduen autsak. Eta oker ori Alemani eta gizadi osoaren lctsgarri izango da. Hitler-en Alemania-n juduak txakur amorratuak bezela persegituak zirranean. beren etxe eta eleizak erre eta ondatzen zitzaizkienean, gaiñentzeko Europa-ko nazioak lasai zeuden, errukarri aiek beren gaizki-Ueari eskuetara emanaz.

Gure demokrazia-mende ontan, juduei ukatu egin zaizkie edozein gizonek dituan gizatasun eta eskubideak. fpar-Amerika-n bertan, askatasun eta demokrazia-nazio ortan ere, juduak gizarteko gaitz bat bezela ezkutatu arazi naiean ikusten ditugu oraindik: otel, klub eta eskolatarako sarrera ukatuaz. Judu erria oinbeste urtetan sakabanatuta ikusi badugu, ez da noski Jaungoikoaren madarikazioak ala erabilli dueJako, gizonok gizarteko eskubideak ukatu dizkiogulako baizik.

Eta ala ere bizi

Sasiz inguratutako zugaitz gerri-tua bezela, or dago oraindik zutik eta keraentsu, etsai guzien gainetik, judu erria efa arraza. Zergaitik iraun ote du bizirik —eta iltzeko asmorik gabe iraun ere, dirudinez—, erri arrigarri onek? Nundik ote datorkio bere kontrako erauntsiak menperatzeko indarra eta adorea?

Iru sustraiek eusten diotela esan dezakegu, iru iturritatik datorkiola batez ere bizitz-indarra.

Misio bat

Izan ere Jaungoikoak misio, bete-berezi bat eman zion Israel-go erriari. Erri auxe aukeratu zuan, lur ontara bere sarrera egiterakoan, bere sukalde eta jarleku bezela. Bera izandu zan Jainko Mesias artzeko aukeratufako erria. Eta «autatze» ortantxe. misio ortantxe dago Israel-erriko edestiaren oiñarri eta errazoi gutzia. Israel ez da «Erri autatua» bakarrik, «autatze» ortatik bertatik sortua baizik. Yabek Abraham egin zion agindutik sortu zan: «Zugandik sortuko dut nik erri aundi bat».

Kristauontzak Israel-go erriaren misio ori Kristo gure Jaunaren erio. tza eta mundu osoa erostearekin bukatu zan. Baiña juduentzat ez. Egiazko Mesias ura, egiazkotzat ar-tu etzutelarik, oraindik Mesias. no-

labaiteko Mesias baten zai daude. Israel-go Estadu eta bere zuzendarriak ia erabat laiko eta ateoak izan arren, ondo itsalsia dago oraindik juduen barnetan beren misio onen konzientzia. Oraindik betebear berezi, mundu osoari zabaldu bearreko misio baten jabe dalakoan dago.

Konzientzi orvek beste erri guzien gain erri aparteko eta erri berezi baten konzientzia sortu dio. Bere burua oinbestetzat eukitzeak eutsi izan dio judu erriari. Eta, zalan-tzik gabe, oinbeste persekuzio eta ezbearrek tinkofu eta indartu egin diote misio-konzientzi ori.

Familia bat

Beste erri gutxik bezela eutsi izan dio judu-erriak alkartasun-lokarri oni gizaldiak zear. Eta judu gut-tiek familia bakar bat osatzen duten konzientzi onek ere indar aundia eman dio judu-erriari persekuzio guzien gain iraun eta bizi al izaleko.

Ogei gizaldien luzean, lurbira osoan sakabanatuta bizi bearra izan arren, beti uste izandu judu erriak, erri bakar bat, familia bat osatzen dutela judu gutziak. Eta ontan ere beste errien aldelik oinbeste sufritu bearrak asko lagundu dio. Sufritu bearra, juduek direlako sufritu bearra, izan da erri onen alkartasun eta batasun-lokarririk sendoenetako.

Izan ere judu erriak ba-du aita

bat, ez irudimenak asmatutako gizon bat, emen lurrean noizbait, 2.000 urte Kristo aurretik, bizi izandu zan bat baizik: Abraham. Aita onen itzak ain zuzen ere auxe adierazten digu: «giza-talde aundi baten aita». Eta izatez, guziak odol batekoak izate orixe da judu abendaren oiñarrria. Ortik datorkio judu erriari bere aurrekoenganako, eta judu dan guziantzako, itzal eta hegirunea. Juduak sakabanatuta bizi arren, familia bat osatzen dute. Lord Balfour-ek. familia bat ez ezik sukalde bat dala esango digu: «Sukalde bakar bat judu erri osoarentzat». Eta familia eta sukalde bati dagokicn alkartasuna noiz lortuko irrikatzen daude.

Lur bat

Judu erria, bere sorreratik, Jaungoikoak aginduriko lur bedeinkatu artan noiz sartu eta betiko bertan noiz ezarriko irrikatzen ibilli da, eta oraindik ez du ase al izan egarri ori. Oraindik gogoan dauka, oso gogoan ere Siken ertzean Jaunak Abraham-i egin zion agindu ura: «Lurralde au zure andorengoei emango diet nik».

Judu erriaren edestia zerbait aztarrikatu ezker, bere asieratik gaurko egunetaraño, lur ontan sartu eta bertan iraun al izateko burruka gogorrean jardun dala ikusten dugu. Egipto eta Babiloni aldean zebiltzanean bezelaxe, gaur

nunai sakabanatuta dabiltzalarik re, amets berdiñak eragiten die: Jaungoikoak aginduriko lurrera lenbaitlen eta betiko itzultzeak.

Lur aginduaren ametsa eta bertara itzultzeko irria, tinko josita dago judu bakoitzaren erraietan. Eta urteak zear, erriz erri sakabanaturik atzerrian ibilli bearrak, irri eta aberri-min ori oztu edo itzali ez ezik indartu eta bizkortu egin die. Eta batzu-batzuk diotenez, beren lur-amet^o ori Geo-Teologi antzeko zerbait sortzeraño iritxi omen da, Lurra Absolutoarekin Jaungoikoarekin berdintzeraño alegia. Oinbesteraño ote? Nolanaietan ere, judu erriari atzerrian ibilli bearrak ematen dion miña adierazten digu eritzi onek.

Judu erriari etzaio atsegin «bere»lurretik kanpora bizitzea; ezta lur orlean berak bakarrik erri askatu bat osatuaz bizi al izanda ere. Dabiltzan tokietan egin dituzte egiñalak gizartean edonungoen parean egoteko, gizarteko lege eta eskubi-deetan beste edozein gizonekin berdintzeko. Eta berdintasun ori lortuta ere, ezin zitezken juduak beren oitura eta tradiziok baztertuaz beste errietakoengana makurtu. Eta orduan juduentzako bakarrik izango ziran lurralde batzuk aukeratzeko idea sorlu zan, baiña onek ere etzitan asetzen nunbait. 1903'gn Ingalerra-k Uganda eskeiñi zien. baiña juduek etzuten onartu. Geroago, 1928-30 urtelan, Errusia-ko Gobernuak bertako juduei Asia-ko Bi-

robadjan lurraldea eskeiñi zien, lurralde ontan askotasun osoz eta iñori menperatu gabe bizi al izateko kondiziotan; egin zituan alegiñak itzez eta aginduz, lur ontan ezarri zitezten. Baiña utsa. 30.000 judu bakarrik joan ziran alde artara; esateko utsa: eundik bat bakarrik, Errusia-k garai artan 3.000.000 judu baiziluan.

Juduak etzeuden Birobadjan eta Ugandaren truke beren bere zuten Palestina aldeko «lurra» saltzeko.

Misio bat, familia bat eta lur bat. Iru oietzek eman diofela esan dezakegu judu erriari bere iraupe-naren indarra. Amaika buruauste sortu dizkiote oinbeste mendetan, baiña oiefek eulsi diote judu erriaren batasunari, eta batasun eta alkartasun onek judu erriari.

Geroari begira

Judu erria ornin artean misterio bat izan bada, gerora begiratuta ere ez du asko argitzeko itxura aundi-

rik. Israel-go Estadu berriak, juduen erriz erri sakabanatuta ibilli bear orri, askatasun bat ematen asi zaiola dirudi. Oraingo beren lurre-ra itzuli nai dutenak an ondo artuak izango diran itza, zerbait la-saitu eta arnasa artzeko lain ba-da beintzat. Baiña judu guztiak ez daukate naita ere bertara itzultze-rik. Israel-go Esladua txikitxo ba-da lurbira osoan zabaldurik dauden 13 milloi judu, (Amerika - n 6.000.000; Europa-n, 4.350.000; Asia - ru 1.966.000; Afrika - n, 549.000) bere altzoan artzeko.

Beraz beti ikusi bearco ditugu nazio guzietan judu-talde txiki edo azitxoak. beren oitura, tradizio eta izakeraz jantzirik. Eta ez da bidezko eta zuzen beren oitura eta tradizio oiek kendu nai izatea, beste naziotakoak bakarrik artu ditzaten.

Zer bide jarraitu bear orduan? Juduei ere, gizon guziei jatorriz eta kristau-legez dagozkien gizatsun eta eskubideak, ezagutu eta ematea litzake benetako bide eta joerarik egokient:.

Jdazleeri:

Bear bada oraingo onetan ere batek baiño geiagok ez dute irakurriko oar au. Baiño bijoa berriz, leen egindakoa ikusi ez dutenenlzat: lanak argi ta garbi kopiatu-rik bialdu, bi lerro-unetara makinaz (aal dutenak, eta lana luzeeegia ez balitz, alegia), ta itz ezezagunen zerrenda batekin, zenbakiaren azkenean ipiteko. A! Ta gainera, prakadunok noizpait esnatzeko asmorik bazenute... Nun da ainbeste gazte euskaldun ikasle?

BALMES ETA KANT JAKINDURIAREN ASIERAN

Arregi'tar Rikardo

—Donostia'ko apaizgaia—

I. *Sarrera.*

Eskoletan jakinduria «buruko argiaren bitartez, azkeneko sustraie-tatik ateratako jakintza» dala esaten da. Mugapen ontan jakinduria jakintza bat dala dute. Eta mugapen onen bitartez jakinduriari mugak ipintzen dizkiote. Izan ere jakintza guztien artean jakinduria nolakoa dan esaten dute. Azkeneko sustraietatik ateratakoa dalako sustraisuena dala esaten dute.

Zugaitzak sustraiak dauzka, orregatik bizi da. Izate guztiak bere sustraiak dauzka ta gauzen zergaitik'a galdetzen danean, aren sustraiak erakusten dira, ta orduan asetzen da jakin naia.

Jakinduriaren mugapen au jakintzale guztiak ez luteke beretzat artuko. Eskoletako mugapena dalako. Mugapen au gizon sentsuarengan sustraitzen da. Gizonen iritzi ta usteen sustraia adierazten duan jakinduriaren mugapena da, berak egiña. Tomas deunaren eta eskoletako erakusle aundiaren jakinduriaren asmakizun aundiena orixe izan da, gizon sentsuaren jakinduria izatea.

Eskoletarren artean, batez ere Balmes izan da bere jakinduria gizon sentsuaren gaiñean egin duana. Jakinduria egitea ez da egia arkitzea, baizik eta egiaren sustraia adieraztea. Onela benetasunatzaz

itzegiñaz, «jakinduriak benetasunaren izatearen galderagatik ez, baikik eta benetasunaren adierazteagatik asi bear du». (F. F. I, 2) dio.

Nola alabait eskoletan jakinduria gizonen ezagupenak, aien sustraiak erakutsiaz, adieraztea da. Eskoletarrak gure ezagupenetatik dakigunagatik ez dira zalantzan ibilli. Bakar-bakarrik ezagupen ori nola ditckean galdetu dute.

Balmes ere eskoletarra da. Baiñan bizi izan zan garaian eskolatasuna il antzean zegolako, Tomas deunaren jarraitzailea izan arren, bere gizaldiko korapilloak beregan ikusten ditugu. Iñor izan baldin bada gure entendimentuarengan siñismen osoa eduki duana Balmes izan da. Entendimena entendipenen sustraia da. Entendimenak entendipenaren bitartez gauzaren sustraia irakurtzen du. Entenditzea gauzen sustraia irakurtzea dalako. Eskoletan dabiltzan ezagupen auek Balmes'ek maiz darabilzki. Gaiñera, bear bada aldikideko jakinduriaren aurkatasunagatik, entendimenarengan siñismen osoa jarriaz eta gaiñera nigandik kanpo dakarzkitan ezagupenei balio benetakoa emanaz, egiten du bere jakinduria.

Jakinduriaren bizitz guztiak bi muga izan ditu: sentsupena ta entendipena. Ta batzuetan sentsupenian, besteetan entendipenian jakinduria ortxe ibilli da beti alde batetik bestera. Bi muga oiek beste era askotara esan ditezke: izan, ez izan; batasun, askotasun; gogo,

gorputz: etab. Sustrai batera biurutzen dira, bakar-bakarrik gauz baten agerpen ez-berdiñak dira ta. Sentsupenaren bitartez ez-izatea, askotasuna, gorputza, datorzkigu. Entendipenaren bitartez izatea, batasuna, gogoa.

Gai onetaz, ezagupenari dagokionez, bi eskola izan dira: sentsumen-tasuna ta arrazoimentasuna. Lenengoarentzat sentsumena ezagupenaren iturria da ta gaiñera sentsuetan bukatzen da. Bigarrenarentzat, pentsamentuz bearrezko ta guziekiko balio duana da benetako ezagupena. Bi eskola auek aurka daude.

Bien artean, biak batu naian, beste eskola batzuek sortu dira. Bat eskoletako jakinduria, bestea Kant'ena. Eskoletan ere arrazoimentasunarekin batera bearrezko ta guziekiko pentsamentuak ba-dira, ez pentsatu ditezken guztientzat bakarrik, diranentzat ere bai. Baiñan arrazoimentasunak pentsamentu auek buruak herez, beregandik ateratzen dituala dion bitartean, eskoletarrak gauzetan sustraia irakurtzen dugulako dala diote. «Nihil est in intellectu quod prius non fuerit in sensu». «Entendimentuan, lenago sentsuetan egon ez danik, ezer ez dago».

Kant'ek ordea, pentsamentuen gaia nigandik kanpo diranetatik datorrela dio, baiñan gai ori ezin degulako ez sentitu ta ez entenditu, gure buruak zuzendu bear du. Ortarako gure buruak sentsumenarentzat erak eta entendimenarentzat

kategoriak «a priori» dauzkala dio.

Sentsumentasuna ta arrazoimentasuna batu nai ortan, eskoletarrak lenengoengandik eta Kant bigarrengandik gertugo daude.

Eskoletarrak diotena gizon sentuari dagokiona da, Kant'ek diotena, aurrenengoz beñepeiñ, gizon sentsuarekin aurka dagona da.

Balmes'ek entendimentuarengan siñismen oso-osoa dauka, Kant'ek nigandik kanpo dauden gauzak diran bezela ezagutzea gure entendimentuak inola ere eziñ duala esaten du. Dirala bakarrik jakin dezake, bere ustez, Balmes'ek ere aitortzen du, bai, gauz guziak diran bezela ez dirala ezagutzen-bakoitzekiko sentsumenak—, baiñan nigandik kanpo diran gauzen izakera entendimentuak ezagutu dezakela dio. Orregatik neri askotan, Balmes Kant'ekin asarretu egiten dala deritzait. Balmes'ek Kant'ek esaten duana entenditzen du, baiñan askotan zergatik esaten duan ez duala ikusten deritzait.

Balmes eta Kant'en artean dagon aurkatasun au, batez ere aien Jakinduriaren asieran ikusten da.

Descartes'ek Jakinduriaren asierarako zalantza artu zuan bide. Zalantza ortan bere izatearen egia arkitu zuan eta orrela arrazoimentasunaren asiera jarri zuan. Baita ere Jakindurian gogoia eta gorputza geiegi apartatu zituan. Bikotasun ortatik bi Jakinduri sortu ziran, bat goarena ta bestea gorputzarena. Eta

oraindik biak alkartzeko era—eskolatasunez aparte—etzan arkitu.

Orregatik Hume gure entendimentuaren baliotasunagatik galde-tu, pentsatu ta idazten asia zan. Hume'ri irakurtzeak esnatu zuan Kant. Egia-aren baliotasunagatik galdezka asten da. Ezagumenaren baliotasuna nolakoa dan arkitu nai du. Ortarako ezagumen bat edo bestearen egiagatik galdetzea naikoa ez dala dio. Descartes'k ere Kant'entzat, ez darabilki ondo gauza. Gauz guziegatik zalantzan dabil baiñan ala ere asieratik entendimentuak gauzak diran bezela ezagutu dezakela deritzaio. Jakinzale guziek baliozkoa bezela eman dutena Kant'ek aztertu nai du. Ia entendimentuarekin zerbait ezagutu al ditekanean, eta ezagutzerik baldin badago nola ezagutu ditekanean.

«Orduan, Jakinduria, azterketa batetik ez, baizik; eta baipen batetik asten dala esango da; ta ez det ukatuko» (F. F. I, 8) Orrela mintzatzan da Balmes. Betikoa, batek entendimentuarengan siñismen osoa dauka, besteak ez.

II. *Jakintza ta Jakinduriaren balidantzak.*

Egia epaipenetan bakarrik dago. Epaipena eskoletan «zerbait izatea baieztu edo ukatzen degun entendimentuaren egipena» dala diote.

Egia epaipenaren bitartez bakarrik iritxi ditek. «Egiaren sustraia

entendimentuarengan gauzagan bañan lenago dago» (S. Th., - Dist., 19, q. 5, a. 1). Gaiñera bene-benetan mintza ezker, Jainkoaren entendimentuarengan dago. «Benetan eta lenengoz Jainkoaren entendimentuarengan dago, gizon-entendimentuarengan berriz benetan baiñan bigarrengoz, gauzetan berriz ez benetan ta bigarrengoz» (S. Th., De veritate, 1, 4 c.). Egia «Entendimentuarenganako gauzaren batasuna da». Egia baietz edo ezetz esatea dalako epaipenetan bakarrik arkitu diteke. Egia antzez gudan zerbait adieraztea bakarrik ez da, baizik eta zerbaitegatik bai edo ez esatea. Ori epaipenetan bakarrik gertatu diteke. Orregatik Kant'entzat korapillean asiera epaipenetan dago.

Epaipeñak *banatzailleak edo batutzailleak* izan ditezke. Epaipeña adi-jabeak, aditzak eta esanak egiten dute. Aditzak adi-jabea ta esana batzen ditu, ta esanak adi-jabeagatik zerbait adierazten du. Epaipeñ banatzailleetan esanak adi-jabearengan dagoan zerbait banatu, zabalitzen du. Epaipeñ batutzailleetan esanak adi-jabea aunditu egiten du.

Arrazoimenzaleak dana epaipeñ banatzaillez jakin ditekela esaten dute. Baiñan ez da orrela. Epaipeñ banatzaillez berez ezagutu ditezken gauzak bakarrik ezagutzen dira. Ta nola gauz guztiak berez eziñ ditezken jakin, jakintzarako zerbait berria adierazten duten epaipeñak bear dira. Jakintzarako gaiñera bea-

rrezko ta guziekiko diran epaipeñak bear dira.

Aurrez-aurre epaipeñ banatzailleak «a priori» diradela esan diteke, adijabea banatuaz ateratakoak eta batutzailleak «a posteriori» diradela. Lenengoa egia da ta «a posteriori» diran epaipeñak geienez batutzailleak dira; baiñan danak ez dira «a posteriori»; arritzekoa baldin bada ere, epaipeñ batutzaille «a priori» ba-dira. Auek dira jakintzarako bear diranak, zerbait berria esaten dutelako (batutzailleak dirata), eta bearrezko ta guziekiko diralako («a priori» dirata).

«Gorputz guztiak edatsua dira esaten detanean, epaipeñ banatzaille bat da, gorputzak esan nai duanagatik atera gabe gorputzarengan arkitu dezaketelako; banatzea naikoa zait, au da, naikoa da gorputzarengan pentsatzen degun guztietan, darabilkigun esan ori (edatsua) beregan beti arkitzeko. Baiñan gorputz guztiak pisudunak dira esaten detanean, emen esana (pisuduna) gorputzarengan bakarrik pentsatzen detanean baiñan beste gauz bat geiago da; orrelako esanarekin batutzen dana, epaipeñ batutzaille bat ematen du». (Kant, Kritik der reinen Vernunft, In. 1).

Balmes'ek orde, orain Kant'ek esaten duana ez dala gauza berria dio. Naiz orrelako izenekin ez esan arren, lenago ere, eskoletarrak, epaipeñ oiek erabili zituztela. «Epaipeñak banatzailleak eta batutzailleak dirala esatea oso aipatua

da oraingo Jakinduriān, batez ere alemanen artean; eta zigurki «Kritik der reinen Vernunft» en egillearen arkitze berri bat dala uste duanik ez da falta; izenaren berritasun bereak okerrera eman genezazke» (Balmes F. F. I, 191) Ta gero Tomas deunak esaten duana adierazten du.

«Emendik, esakizun bat berez ezagutzen da, esana adi-jabearengan sustraitzen danean; onela *gizona animalia bat da*, animalitasuna gizonaren sustraian dagolako. Bada, guztiak bai adi-jabea, bai esana zer dan jakingo baluteke, esakizun ura guztientzat litzake ezagutua» (S. Th. I, q. 2, a. 1), Eta onela beste leku askoetan.

Lenago, Kant'ek jakinzale guztiek baliozkoa bezela eman dutena aztertu nai duala esan da. Ia entendimentuarekin zerbait ezagutu ditekian galdetzen duala. Baiñan ez du onek esan nai Kant'ek entendimentuaren baliotasunean ez duala siñisten, asieratik beñepeiñ. Ez, ez da orrelakoa Kant'en Jakinduriaren asiera.

Kant'ek jakin nai duana au da: gizonaren entendimentua bearrezko ta guziekiko egitara iritxi al ditekete? Benetako jakintzara iritxi al ditekete? Nola iritxi ditekete?

Dakarkin erantzuna ondo ikusteko Kant'en garaiko jakintzari begiratu bat eman bear zaio. XVIII'garren gizaldia da, Jakintzaren gizaldia dala esan ditekete. Newton'ekin pisika jakintza indarrez beterik da-

go, Matematika ere Descartes eta Leibniz'ekin bereala dago. Danak Matematikak eta pisikak esaten dutena egia ta benetakoa dala siñisten dute. Ez orrela, ordea, Jakinduria. Jakinduriaren alkar aurka arkitzen dira jakintzale guztiak eta jakinzaleek esaten dutena.

Jakintzaren gertakera ontatik sortzen da Kant'entzat benetako korapilloa. Jakintzak (pisika ta matematika) benetakoak dirala ezin ditekete ukatu, gizon guztiak onela pentsatzen dutelako. Gauzak onela, galdetu bear dana ez da jakintza oiek benetakoak al diran, galdetu bear dana da benetakoak *nola* diran.

Jakinduriarekin ordea ezin ditekete orrelakorik egin, benetakoa dan eta egia esateko balio duan ez daki-gulako. Orregatikan Jakinduriaren gainean itzegiterakoan galdetu bear dana da: ia Jakinduria izan diteketean, eta erantzuna baiezkoa baldin bada, nola diteketean.

Benetako Jakintzarako epaipen batutzailleak «a priori» dirala balio dutenak esan da. Jakinduria diteketean eta jakintzak nola diteketean, epaipen batutzaille «a priori» nola diteketean galdetzea da. Kant'ek gai berri bat dakarki, au da, «nola ditekete epaipen batutzailleak «a priori»? Gai onen korapilloa askatzeko bide berri bat dakarki: *banatze kritikoa*, au da, gure ezagutzearen azterketa onen ezagutzeko moduari ta esanari dagokioenez.

III. *Leku-unea.*

Leku-unea ta aldi-unea dirade Kant'enizat sentsumenarentzako bi «a priori» erak. Lenengoz kanpoko sentsumenari degokion «a priori» eratzaz mintza bear da. Baiñan, nola iritxi da Kant ortaraiño?

Jakiña da Kant'en Jakinduria ondo konprenitzeko, batez ere leku-une gai onen asieran, Leibniz eta Newton'en dotriñak zer ikusi aundia daukatela.

Kant'en erakusle Wolff eta Wolff'en bitartez Leibniz. Kant'ek ere asiera leku-une gaiñean zeukan iritzia bere erakusleak zeukan iritzia zan.

Baiña polliki-polliki Newton'en bitartez erakusleagandik urrutitzen dijoa. 1747'garren urtean gorputzak, batzuek besteagan adierazten eta ekiten duela dio. Gorputzak ez dira ia *monada* itxiak, alkarren artean ekin dezaketelako. Ala ere oraindikan leku-unea nigandik kanpo benetan dagola uste du. 1755'garren urtean oraindikan almenaren baldintza dala dio. Baita ere urte ortan leku-unea nigandik kanpo dan bezela ezin ditekela entendi, esaten du.

Baiñan leku-unea ezin ditekela entenditu esatea, leku-unea, sentsumentasunera biurtzea da. Orañ datorkio Kant'i korapillo gogor bat. Alde batetik leku-unea bearrezkoa dala esan bear du, leku-unea gorputzen almentasunaren baldintza dala uste dualako. Beste

aldetik ordea bearrezkoa dala ezin du esan, sentsupena bearrezkoa beiriñe ez dalako. Ta leku-unea ezin ditekela entenditu esatea, sentsumentasunera biurtzea dala esan da lenago. Ara emen Kant'ek daukan korapilloa.

1776'garren urtean askatzen du korapilloa. «Leku-unea nigandik kanpo zerbait ez da, baizik eta nigan kanpoko sentsupen guztiak zuzentzeko dagon buruarentzat dan arau bezelako lege iraukor bat da» (Kant, *De mundi sensibilis atque intelligibilis forma et principiis dissertatio*, 1770, AB. II, P. 403).

Eta ara orañ Kant'ek esaten duana: ez da egia guziekikotasuna ta beartasuna entendenetan bakarrik arkitzen dala, nola-alabait ere sentsupenetan ere arkitzen dalako.

Batutzaille ta bearrezko ta guziekiko dan epaipen bat arkitu du Kant'ek. Zerbait berria esaten du epaipen orrek, eta ala ere bearrezkoa da.

Egin bear dana da, Kant'ek dienez, gogapen gaiaren barne-mamia ondo ikasi onela ezagupenaren baiiotasuna arkitzeko. Au da KRI-TIK DER REINEN VERNUNFT en egin nai duana.

Lenen, lenengo zatian, leku-unea aztartzen du. Nigan dagon zuzentzaille bat dala, nigandik kanpo ez dala. Iru dira lenen Kant'ek esaten dituanak 1) leku-unea «a priori» dala. 2) sentsumenaren era bat

dala, ta 3) nigan dagon zerbait dala.

Leku-unea, «ezagupen guztiaren almentasunaren baldintza ukatzen baldin badugu, ezer ez da» (Kritik der Reinen Vernunft, AB. III, 56).

Balmes'ek «Filosofia Fundamental» en bigarren eta irugarren liburuan gogor ekiten dio korapillo oni. Lenago ere esan det, eta berriro datorkit, Balmes Kant'ekin asarretu egiten dala ematen du. Balmes'en «Filosofia Fundamental» en bigarren eta irugarren liburua orixe egin nai dute: leku-unea gauzetan dagon zerbait dala adierazi.

Ez uste ordea, Jakinduriaren gaia, gure barnetik datorrena, gizon sentsuarengandik dakiguna baliokoa izatea dala. Ez, gugandik berez datorriguna ezin diteke baliokoa baizik izan. Orregatikan, Balmes'ek dionez, gure sentsuaren auka dagoan jakinduria beregan danka okertasunaren asiera.

«Eta, beartasun baten asarre ta egite baten aurka dagoan jakintza okerra dala argi ikusten dan gauza da; gizon guztiak menperatzen dituan legearen aurka dagoan Jakinduriak ez du izen ori merezi» (F. F. II, 24).

Egin bear dana da Jakindurizko benetasuna arkitu, kanpoko mundu edatsua ba-dala esateko.

Kant'ek eta Balmes'ek gure go-goan azaltzen dana artzen dute azterketaren gai, baiñan ez berdiñ. Kant'ek azalpen orretzaz ezin de-

zake ezer esan aurrez-aurre; Balmes'ek ordea, ba-dala beñepeñ, azalpen orrek izatea ba-daukala esaten du. «Gogomenean izatea ta azaltzea naastu egiten dira, ez dana ezin ditekelako azaldu» (F. F. I, 148).

Kant'ek azalpen oiek aztertzean, aiek duten beartasuna ta guziki-kotasuna ezagutzailleak jarriak dirala uste du. Balmes'ek ez du au egiten, kanpoko ezagupenak alkarren artean begiratuaz emanak edo jarriak al diran galdetzen du.

Sentsupenak berez emana edo jarria dan ez dute esaten. Emanak edo jarriak dirala bakar-bakarrik pentsamentu baten bitartez jakin ditekelako. «Sentsupena berez, barneko zerbait bakarrik da; baiñan geienetan pentsamentu baten laguntzarekin dator» (F. F. II, 1).

Laburki, bukatzeko, Zeiñ da Balmes'entzat sentsupenen gainean Kant'ek esaten duana okerra dala adierazten duan sustraia?

Gugan dauzkagun sentsupenak bi eratakoak dira. Batzuek gure naiaren legearen bitartez ibiltzen ditugu, besteak guk nai ez ta ere eman egiten zaizkigu. Sentsupen oiek ez daude naiaren legeari itsasita, ez, naiaren legetatik askatuta daude. Orregatik kanpotik emanak izan bear dute. Auetakoa da leku-unea, orduan leku-unea ere nigan-dik kanpoko gauzetan dagoan zerbait da.

Oar bat.

Idatzitakoa ikasle batek egiña

da. Ikasketa lanen artean beta txiki batzuek artuaz egiña. Ez euskeran, ez Jakindurian, ez da trebe. Itz auek bakar-bakarrik nola ala-

bait batutako apunte batzuek dira. Nere itzak Jakinduria edo euskera zauritu baldin ba'dute, barkatu, aurretik damutua nago ta.

YAKIN'I ETA...

Orixe

YAKIN'i. Iru illabetez beitik ortzaz gora egon beharra ukan dut ezer ezin egiñez. Aurrera, osasunaren iabe danak esan beharko. Albait, ez niza ixilduko. Gure Aldizkariak ezagutuko ahal dute, oraingoz kasu gutxiago egiten ba'diet.

ETA... ZENBAIT EUSKALZALERI: *-la, -na*. Auzitxo bakarra gaurkoz. Iru gerta-agi bereizten deuz garbi gure Gramatikak: 1) *-la=que ya es*; 2) *-na=lo que ya es*; 3) *ba'dan (ala ez)=si es (o no es)*. «Ba-dakit etorri dana» ori sasi-kume da. Batek, eta ez da edozein, Euskal-Ikasbid: bat argitara emana baitu, au esan dit: «zuk ere ez'ekin *-n* erabilten duzu, ez *-l*». Bai, baiña nik ez dut artzen *-na'tik*, au da, bigarrenetik; bai irugarrenetik: ez du esan etorriko danik (etorriko dan ala ez). Beraz *-na* ori nAspide da.

Altube aipatu didate Erderismos liburuan. Ez daukat nerekin; baiña nire arrazoiaren aurka ioan gabe, beste arrazoi bat atera dezake, alegia. errian oso sarturik dagola, ta gaurgero ez ditekela kendu; eta beste izkuntzetan gerta oi dana, oker sarturiko itzak eta esaerak ere, lege berri baten bidez gainzuritzen dirala: *el imperio del uso*. Beste arrazoirik ez diteke, nere ustez, atera. Nik au erantzuten dut: *error corrigitur ubi deprehenditur*, au da, arkitzen dan une berantuzendu bedi okerra. Oraindik erriak, Gipuzkoan beñipin, *-la* esaten *deu*, eta Bizkai'ko moda orri, Bizkaia'n ere oitura iatorra egotziko diogu. Galdekizun edo *inquisitivo* atzerik doala, bai, geienez ala esan oi dute, baiñan aurretik dala, ez, nire denboran beintzat. «Peru etorri dala esan dabe», ta ez «Peru etorri dana esan dabe». Ez al da esaten Bizkaian dana dala=*sea lo que fuere*. Ez diteke esan dana dana.

Giputz batek esan didanez, Lekuona'k ere bai omen du erru gauza ontan. «Siñisten det Jesukristo... jaio zana, il zana, &», ipiñi zulako.

Erria erri ta autorEk autore, oraingo idazleEk *-la* orri eutsi behar lioteke Gramatika arauz.

Gure idazle gazte batzuk, autorez Arretara jotzen dute babes billa. Zeintzuk eta zenbat aldiz erabili dute *-na* sasiko ori? Gaur bertan zenbat idazle bikaiñek erabilten dute *-na* itsusi ori? Etzait iduri, ez Luis Mitxelena'k, ez Altube'k berak ere asko darabiltenik.

Erria, erria! -Ongi mintzo danEn, bai, erria. Baiñan erria mozkortzen ba'da, gu ez giten mozkortu euskera gisakoa idaztean.

Adiskide autorEk, adiskide Altube, adiskide Lekuona, adiskide erria; baiñan AdiskidEgo EGIA.

ELIZA'RENAK EGIN OTE DU?

Osa'tar Eusebi

— laterandarra —

Idazburu au ez dut nere burutik atera. Gizonen esamesetik jaso dut. Eliza onek ba-du oraindik indarrrik asko giza-kolkoetan kezka gorriak sortzeko. Gizonek beti begiratu izan diote ta gaur ere ortarako prest daudenak ez dira eskas. Batzuntzat goragarri da. Besteentzat beragarri, edo obeto, zokoragarri.

Ta, baliteke, bai batzuek eta bai besteak Eliza'ri oker begiratzea. Ta oker ikustea, Eliza'k *duana* ikustea errezo da Eliza *dana* ikustea baño. Askok ez dute oraindik *dan* ori urratu ere egin. Ta ezjakin ortatik sortzen dira alper-itzak eta oker-itzak ugari.

* * *

Lehenik, Eliza zer dan eta zertarako dan jakin bear genuke. Ta Eliza, atzokoa, gaurkoa ta biarkoa, Jesukristo'ren Sakramentua da. Egiz, ez da beste ezer. Bere egitekoa, berriz, esker banatzalle izan eta gu Jainkoa'gana eraman. Beste ezer badu ta beste ezer badagi, geigarri izango du ori ta ez bere muiñari nai ta nai-ez dariokena.

Ondo ikusten dana da, geien geienak Eliza'ren geigarria, azala, soñekoa besterik ez dutela ikusten. Ta soñeko ori oso zaharra da, bi milla urte ba-ditu. Ta jakiña, erabat garbi etzaigu agertzen. Orbanak ere agiri zaizkio. Orregaitik, aipa-

garri ugarien artean ba-du erdeña-garririk ere.

Asko, gogo onenak eraginda, Eliza onek mendez mende, bi mila urte auetan gizartean egin dituan lan bikañak goratzen ez dira aspertzen. Gizaldiak zear beti izan ditu Eliza'k agiriko alderdi eta jokabide onak eta egokiak, ta ori guzti ori da aipagarri aunitzen aotan. Ainbeste urtetan eta munduko ekaitz biurri eta eraso guzien artean tente jarraitu duala ikusteak asko arri ta zur uzten ditu. Jakintza bideetan dabilzanak, berriz, ezin ixildu Erdi Aroan egin zuan lan ederra. Erromatarren aginteak lur jo ondoren erri basatien atzaparretan galzorian zegoan erromatarren ta grezitarren jakintza aberatsa berak ez al zuan zaitu ba? Galbide izugarri benetan munduarentzat, orduan Eliza jakintza so-roan arduratu ez bazan. Ta antzeari eman izan dion bultzada ta eskeñi dion babesa? Ta gero mendez mende egiaren eta zuzenaren alde egin dituan alegiñak ere ez dira utsaren urrengo. Ta gizonaren ezipen zuzenerako egin dituan lanak; ta gizartean erein duan maitasun giroa. Eta abar.

Aipu eder asko, ta mereziak ere bai. Baña, ortan ote dago Eliza'ren barne-kemen ta betekizun guztia? Ez. Ba-du geiagorako eragiñik ere. Goraipamen guzti oiek zuzenak izan arren, goragorako biderik irikitzen ez badute, Eliza'ren muiñe-ra biderik erakusten ez badute,

kaltegarri dira. Bai, ta oso kaltegarri gañera, erdiegiak diralako. Ta erdiegiak gezur biribillak baño okerrago dira sarritan. Ta zer ontan ala dala usied dut. Orrela, Eliza kemengabetu egiten dute. Biziturria ukatu besterik ez diote egiten, bidenabar bezela ematen dituan frutuei begiratuta baño ez goratzearekin. Ta ori, norberak jakin gabe etsaiaren alde jokatzea da. Gorespen oiek Eliza'ren geigarriari degozkionak dituzu, azalekikoak, ta ez diote mamiari, muiñari, esenziari ikutzen.

* * *

Ba-dira, ordea, Eliza'z beste irizirik dutenak ere. Bein baño geiagotan entzun oi da: «Eliza zahartu da. Gaurko aurrerapenak zokoan utzi dute. Ez da gauza ezeri bizirik ezartzeko. Komunismoak ere aurrea artu dio».

Olakoak eta antzerakoak maizko irixi oi zaizkigu belarrietarano. Katoliku batek baño geiagok pentsatzen dizu orrela, ta itz egin ere bai. Arrazoiz ote? Ori besterik da.

Lehen, Eliza'ren alde itxu-itxuan mintzo diranak ikusi ditugu. Orain, itxuago kontra ari diranak salatu ditzagun. Arestian aipatuak, Eliza'ren igaroaldia, kondaira dute begien aurrean. Kontrakoak, berriz, orainaldia, ogeigarren gizaldi au, gaurko mundua. Bearbada, neke gabe onartuko dituzte bere

orainarteko merituak. Bai, gauza bearrezkorik asko egin du ta urtien buruan oso onurakor izan zaie gizonari ta gizarteari. Nork ukatu, alare, gaur-egunerako ez duala balio ta illetak egin bear litzazkiokela? Bai, gizarte-arazoetan ez omen du ezer lortu abal izan, Beti atzetik, gaurko aurrerapenei jarrai eziña. Teknika-aro onek sortzen dituan buruauste audiei erabakirik eman eziña. Komunismoaren aurka nai dana esango da baña, orixe dirudi gaurdaño biderik aukeratuena gizartean gauzak zuzen ezartzeko. Beste gobernu-bideak ez al dute ortan pot egin? Ta Eliza'k berak ere zer egin du ba?

Orra or gaurko katoliku aunitzen burutapenak eta pentsakera. Eliza'renak egin duala diote. Agian, sentipen onekoak dituzu ta, biotz miñez diote ori; baña egia—beren egia— aitoritu bearrean arkitzen dira.

* * *

Emen ez noa esamesa oiek, alegia, gaurko gizarte au bide zuzenetan bazkatzeko Eliza'k indarrak ez duala dioten mintzoak egizko ote diran edo ez azaltzera. Jardun guzti oiek Eliza'ren ikusgune oker-oker batean finkatzen dirala esango dut bakarrik.

Orrela itz dagitenak gauza bat jakin bear lukete ongi: Eliza ezin ditekela beste mundu ontako gobernu-bideekin alderatu; Eliza sozie-

dade oso-osea dala, baña ez mundu ontako, ez gizonen asmakizun, ez gizonen erakunde. Eliza, bere esentziaz izadi-gañetiko soziedadea da.

Jainkoa'gandik datorkigu, Kristo'ren sorkari, Jainkozko da. Gero, bere Erroma'ko buruak, jerarkiak, erriak eta legeak mundu ontako beste soziedadeen itxura eman ditekela? Bai, alaxe da, baña itxura bakarrik. Itxura, ordea, ez da dana. Ez da aurrekoena ere. Guzti ori giza-jantzia duzu. Ta nai ta naiezko jantzia. Ori ere ba-da zerbait. Eliza'ren alderdi bat duzu, agiriko alderdia, alegia. Alderdia, ordea, ez da izate osoa. Ikusten ez dan saietzik ere ba-du: Jainkozko alderdia, Jesukristo'ren Sakramentu izatea.

Kristo'ren eta Eliza'ren artean paralelismo aundia auteman deza-kegu. Gure soin au artuaz Kristo here gizatasunean Jainkoa'ren Sakramentua dan bezela, Eliza Kristo'ren Sakramentua da ta beste sakramentu guztien bizi-emalle. Baña, Kristo jainkotasunik gabe Aren Sakramentu izan ezin ditekian eran. Eliza ere Kristo'ren bizitarik gabe ezin Bere Sakramentu izan.

Gaur aunitzei Eliza'rekin, anartean judutarrei Jesus'ekin getta zitzaiena bera gertatzen zaie. Kristo gizon aundia zana, besteak ez bezelakoak zana ikusten zuten, geiagorik ez, ordea. Aren gizon-alderdia, giza-jantzia ikusten zuten. baña Aren jainkotasuna ezagutzera etziran iritxi. Gaurko kristau eta katoliku askok ere Eliza'ren bika-

intasuna eta jokabide zuzena aitortu arren, Bere Kristo'gandiko bizian eta grazizko frutueta ez dute siñismenik.

Izan ere, Eliza'ren muiña ta betekizuna ezagutzeko begiak ongi iriki ta Aren jokabidea *ikustea* ez da aski. Beste begi batzuek iriki bear dira, fede begiak. Ta fede ori ez dugu munduan ugariegi ikusten.

Eliza'ren muiña, esentzia, gauza guztien esentzia bezela, izkutua da, soin begien mendetik kanpora dazta. Orregaitik eragiten digu ain gutxi, muin orren inguruak, jantziak baño gutxiago. Eliza'ren agiri danak eragiten digu; agiri danak ez du guztia osotzen, ordea.

Eliza, ba *Jainkoaren* da, ta Kristo'ren sakramentua. Bere betekizuna, berriz, guri Kristo erakutsi, gu Kristo'gana eramane eta gizonok Kristo'ren graziaren jabe egin. Ori da Eliza'ren eginbearra. Ortan ez du utzik egin. Ta ori ondo badagi bere egitekoa zuzen betetzen du. Geiagorik egiten badu geigarri bezela egingo du, ez, ordea, bere muiñari dariokenez.

Eliza gizonen artean Jainkozko gauzen aitoregille da ta, jadanik betikotasunean bizi da. Siñismenean du bere bizi-iturria. Mundu ontako aurrerapenekin ez-baña grazi-aurrerapenekin du zerikusi guztia. Esker-aurrerapen auek ez ditugu gure aragi begiz ikusten, baño, izkutuko lan ortan diardu berak.

Eman dezagun. Eliza'k gizarteko

artu-emanetan begi zoliz jokatzen duala ta mundu ontako zereginetan beti egoki ari dala. Izan ditzagun begien aurrean bere iraupen arrigarria ta kondaira-aberaskiak ere. Baña, guzi orren kolkoan eta azpian Jesukristo'ren baitan federik ez badu, bere joritasuna Kristo'gandik ez badatorquio, ez da *izanbear* lukena. Gauza errukarri ta itxusi bat izango litzake. Bere sortzalleak izendatu dion izateari uko eginik, gezur-ontzi gertako litzake.

Eliza'k, mundu ontan dagian etengabeko alegin goragarriaren bidez, gizarte-mallak zuzenago biurtzea, lojikazko gauza da ta berez sortzen dan emaria. Ez da, ordea, ori, bere elburua, gizonei betiko osasuna ematea baizik.

Aor ba. Eliza'k Jesukristo'ren Arpegiaren edertasuna islatzen ez badu, ez du edertasunik. Bere eza gutza ta jakinduri guztiak utsak eta ustelak dira, Jesukristo'gandikoak ez badira. Dirdiratzen digun argia Kristo'gandikoa ez bada, argi ori illunpe dala esan genezake. Bere irakaspena gezurra, Egia, Jesukristo irakasten ez badigu. Eliza guretzat ezer ez da Jesukristo'ren Sakramentua ez bada.

Bere egitekoa ta jomuga ez dira orainaldiko auziak erabakitzea, Kristo'ren eskerra giza-biotzetan ezartzea baño.

Kristauok Jesukristo'ren sorkari au ankazgora ezarri ta itxuragabetu egin nai ez badegu, siñismen begiz begiratu bear diogu.

DESARMEARI BEGIRA

AZURMENDITAR JUAN

—Arantzazu'koa—

Gaurkotasun aundiko gaia iruditu zait «El Ciervo» aldizkarian irakurri berria dedan au. Itz berriak asmatzen ez naiz batere saiatu. Errex ulertzeko moduan jardun naiz.

Ezurretariñoko bildur - ikara sartzen zaigu gure barnean, gaurko guda-tresnak nola aurrera dijoazten ikusita. Gaurko politika-bide ta nazio-arteko arazoak kezka ikaragarri onekin naastuak agertzen zaizkigu.

Bi irteera dauzka gaurko munduak egoera bildurgarri ontatik: bere akabera, gizon geienak ilda, edo pake-bidezko aurrerapen zoragarriak.

Baiña ortarako mundu guziko nazio guzien desarmea lortu bearrakoa da. Desarme au zailla ta komplejoa (aitzingibel asko duena) izango da, baiña egin diteke.

Philip Noel-Baker'ek 1958'garren urtean argitaratu zuan bere «Armamentuen aurrerapena» («La carrera de las armas») liburua, eta 1959'garrenean beronekin irabazi pakearen Nobel Saria. Aurten argitaratu du beste liburu bat, «Albert Schweitzer». Liburu txit dokumentatua, gauzak diran bezela agertzen dituana. Baker'en liburua ezta edozein idazle berriren liburu bat.

Britania Aundiko Estadu-ministroa izana da eta bere nazioko or-

dezkarri, lenengoz Nazioen Liga zeritzanean eta gero O.N.U. deritzan organizazioan.

Ondo ezagutzen ditu Noel-Baker'ek darabilzkian gaiak. Erremedio onak ematen ditu desarmeak dakazkian eragozpenak kendu ta pakea luzarorako lortzeko.

Liburu au politiko guziek, militar-buru guziek eta internazional-politikako herrikerari guziek irakurri bear lukete. Baiña edozein entzat ere ba-du jakingarririk, azken aldi ontako «aurrerapenak» gizona iltzeko nolakoak diran jakin nai dutenentzat batez ere, eta ori galarazteko hibe bakarra dagola ikasi nai dutenentzat.

Liburuaren atalburu nagusienai begirada labur bat ematea naikoa izango degu zertaz ari dan jakiteko.

Gero ta arma obeak eta geiago

Frantzia ta Britania Aundia asi ziran aurreko mendearen azken aldera (1884) gudarako itxason-tziak egiten, norgeiagoka. Amabost urte geroago, 1899'garrenean, Alemania ere egiñala guzian jarri zan guda-ontziak fabrikatzen. Krupp eta beste arma-egille guziak zeoro aberastu ziran orduan. Baiña bizi-eziña ere laister sortu zan. Jendeari pagakizun aundiak ipiñi baizizkion estaduak. «Obe, gerra etorriko balitz txorabio astun ontatik irteteko», zion jendeak.

Gerra etorri zan. Alare bizi-eziña

etzan bukatu. Len baiño ere aundi-agoa zan gerra estekoa.

1932'garren urtean Ginebrako desarme-batzarrak lur jotzen du. Binbirtartean armak ugaritzen eta obeagotzen dijoaz. Ondorena: bigarren gerrate audia. Ba-dakigu zer izan zan: 25 milloi gizonen azkena.

1948'garren urtea ezkerro ikaragarrizko abiadan dijoa armamentuen aurrerapena.

1939'garren urtean, gerra asi zanekean, EE. UU.'ek militar-gastuetarako 267 milloi «libra esterlina» jarri zituzten (*Libra esterlina* da diruetan garestiena. Libra esterlina bakoitzak balioko ditu 120 peseta, bi dolarrek aiña); 1955'garren urtean 13.749 milloietara iritxi zan.

Rusiak 1939'garrenean 1.575 milloi eralgi zitun eta 1955'garrenean 9.900 milloi.

Eta ondorengo urteetan geiagotzen joan dira. Eisenhower'ek 1957'en deklaratu zuanez, inbestigazio ta probatarako bakarrik 1.600 milloi dolar gastatzen omen zituzten. Investigazio auetarako Britania Aundiak 1959'garren urtean 1939'an baiño 35 aldiz geiagio eralgi zuan. EE. UU.'ek, herriz, 66 aldiz geiagio.

Dirua beeraka joan arren, armamentuko presupuestoak goraka ikusgarrian dijoaz. Britania Aundian 10.000 zientifiku ari dira militar-investigazioetan; EE. UU.'en 300 millatik gora.

«Estadu aundietako gobernuak ezta kite zer diran gaurko armamentuak», idazten du Noel Baker 'ek. «Itzetan dago errua, eufemismoetan», dio berak.

Hiroshima kixkali zuan bombari (70 milla il, 100 milla eritu ta 50 milla etxe eratxi zituanari) «bomba nominal» deitu diote. Eta gaurko estadu aundiak «bomba taktikoak» deitzen diete Hiroshimā'n lertu zana baiño lau aldiz indartsuago diran bomba batzuei. Zer ote dira, orduan, «benetako bombak»?

1954'garren urtean Bikini'n (Ozeaniako ugarte) lertutakoak, Hiroshiman botatakoak baiño 750 aldiz indar geiago zuan. Bere radioaktibidadeak 7.000 milla (milla, itxasorako bide-neurria da; milla bakoitzak 1.852 metro ditu) artu zitun.

10 megatoneko bomba T (Hidrogenozko) batek 20.000 milla'ko radioaren zirkulua deuseztuko luke, naiz bomba garbia naiz zikiña izan. Zikiña balitz, edozein ilko luke 225 kilometrotara arrapatu ezker. Danak ez lirake batbatean ilko; askok lau bat aste iraungo lukete bizirik. Baiña suerterik onenekoak ere, miñ gutxiago artuta gelditu diranak alegia, aldi batean biziko lirake *luzemia* edo ezurreta-ko minbiziakin.

Arma kimikoak eta biologikoak dira auk. Epidemia zabalitzen dituzte: *psittacosis*, *disenteria*, *kolera* ta *sifilis* dira gaitzak. Gas batzuen bidez, airean edatuz, jendea gaixo-arazten dute.

Airezko arma-gurdiak edo koeteak

Errusitar jeneral Pokrovski'k 1957'garrenean xetasun oek eman zitun airezko interkontinental oietako bati buruz:

100 kilometroko alturan dijoa eta pentsatzerik eztagon abidan jeixten da eldueran, agian orduko 25 milla kilometroko abidan. Amarretik ogei kilometroren utsaldia izan dezake jo bear duan tokian.

Atlas amerikanoak 15 milla kilometroko abiada artzen du. New York'etik Mosku'ra 20 minutuan iritxiko litzake.

Orain airezko oien kontrakoak asmatzen ari dira bidean datozenak arrapatu ta eraxteko. Baiña ez gaudu seguru oraindik. Edozein koetek 15 milla edo 30 milla atal diferentek ba-ditu beregan. Eta oietako edozein'ek utsegin baleza, ezta balio antikoeteak. Elektronika aparatuz gidatuak dijoaz. EE. UU.'etan gaur 100.000 langillek egiten dute lan koete-fabriketan.

Eztago inola ere gordetzerik

1957'garren urtean britaniar defentsako ministrorak deklaratu zuan, eztagola nazio bat bomba H'ren kontra zaitzerik. EE. UU.'etako defensa zibilleko buruzagi Mr. Peterson'ek urte berean auxe agertu zuan: «USA'ko 170 milloi giza-emakume guziak beren babeslekuak izango balituzte ere, 100'tik 50 ilko lirake ezjakiñean erasoko baligute etsaiak. Ori bera aitortu bearra daukate rusoeck, egia eñan nai badute».

Gerra, toki batean mugatzea, ameskeri utsa

Ederki erakutsi zigun Hitler'ek. Uriak bombaz kixkaltzen jardun zan, merkatuko itxasontziak ondo-ratzen, internazional legeak autsiaz. Baiña «aliadoak» berebat egin zuten 1942'garren urtea ezker. RAF'ek Hamburgo uriaren erdia erre zuan suzko bombaz, eta 70.000 persona il.

EE. UU.'ek Tokio uriburuari eraso ziotenean, gau batean bakarrrik 83 milla persona il zituzten, uriaren zatirik aundiena sutan utzirik.

Desarmearen erapozpenak

Arma berri auen aurrean eztago beste salbazio-biderik: desarme osoa ta betiereko inspekzioa. Baiña ezta

gauza errexa. Lenengo militar-sekretuak utzi bearko lirake ta estaden agintaritza neurtu. Nazio batzuk ez lirake orretara makurtuko aiñ errex, batez ere nagusienak. Bi ditugu gaurko munduan. Baiña orretaz gaiñera eragozpen aundiak daude teknika-eldetik. Nork zaindu atomiko-nuklear indarra *erabat?* Oso zailla da.

Zergatik? Ara:

1. Asieran prueba berdiñak egiten dituzte naiz bombak sortzeko naiz pakezko aurrerapenatarako;

2. Atomiko edo nuklear gaiak pisu txikia du. Nagasaki ta Hiroshiman erabilli zutena pelota baten neurrikoa zan. Beraz, pakezko probatarako gordetzen danetik artu ditekete bomba berri bat egiteko aiña;

3. Izkutuan gorde ditezke atomiko ta nuklear gai-puskak. Tekniko batzuek diotenez, ondo kontrolatu ta zaitu arren, gorde ditezke pakezko esperimientuatarako lagatzen danetik 100'tik 3 eta gaur dau den stock'etatik izkutuan gorde litezke 100'tik 30. Auxe izan da desarme-hatzarretako arazorik zaille-na orain arte. Orregatik egin zuten atzera EE. UU.'ek 1955'garren urteko erabakietan. Eta Rusiak, berak dauzkan stocks'gatik utzi zitun Desarmearen Subkomitea ta Komisia 1957'garren urtean. Ala ta guztiz ere, Norteamerikako delegadu Mr. Stassen'ek deklaratu zuan urte artan bertan: «Uste dugu lortu ditekela ia erabateko inspekzioa desarme kontu ostante. Ondo lortu dite-

ke arma guzien kontrola; besterik gabe eztago, beraz, aitzakibiderik el-kargoa baztertu edo austeko».

Ona kontrolatu ta zaitu ditezke armak

Noel Baker'ek bere liburuaren atalik positiboenean erakusten digu nola kontrolatu ta begiratu ditezken ondo.

Administrazio Zentral bat bear da ONU'ren mendean. ONU'k bearak bidaliko lituzke munduko nazio guzietara bere ordezkariak, inspektoreak. Inspekzio onek etengabekoa izan bearke luke. Rusiak asieran *aldizkako* bakarrik onar-tzen zuan.

Inspekzio onek izan bear luke al dan zabalena eta askatuena. Au da, inspektoreak nai duten lekuetara sartzeko eskubide osoa izan dezate-la, edozein tokiraino eltzea libre izan dezatela, eta alkarren berri on-do jakin dezatela.

Utsegiteak agertu balitez ere, be-giratu ditezke: a) kastigu gogorrak desarmea biolatu dutenentzat; b) mundu guziko jakintsuak liberta-de osoa izan dezatela alkarri beren asmakizunak agertzeko; z) ONU'ren mendean nuklear-arma ha-tzuek; d) deuseztu ditzatela bom-bak bialtzeko ta jartzeko medio gu-ziak: koeteak, abiazioa, sumarino-ak, portaabioiak; e) defensako pre-supuesto guziak jexi ditzatela, in-formazio kontrolatu baten bidez.

Desarmea erabatekoa izan bear du

Len eman ditugun azkeneko bi puntuek eskatzen dute desarmea izan dedilla jenerala, osoa, nazio guzietakoa ta bazter guzietakoa. Be-netakoa, ziurtasun osokoa izateko ezin ditek nuklear armetara baka-rrik mugatu.

Ofensiba ta atakeko arma guziak zokoratu bearke lirake. Ta gainera erabat galerazi arma berrien mili-tar-investigazioak.

Koeteak eta gerrarako abiazioa baztertzean, abiazio zibilla eta koe-te bereziak kontrolatu bearke lira-ke, nazio guziak ondo zaituz.

Inspektiorako beste medio batzuk

Eisenhower'ek 1955'garren ur-tean Ginebrako Biltzar Nagusian agertu zuana, alderdizkoa izan arren, ona da. «Goia libre» deitu zion. Esan nai baita airetik artu-tako fotografien bidez ondo zaitu ditezkelako arma-toki berriak. Orrela desarmea biolatu lezaketenak bere-ala arrapatuak izango lirake. Foto-grafi-makina arrigarriak baidaude gaur egun. 1956'garren urtean, lau abioien bitartez Italia osoa ordu be-tean fotografiatu zuten. Oso garbi artzen du fotografiak lurreko edo-zein gauza. Baiña garestia da; sar-rritan atera bearke bailirake foto-grafiak bein da herrero.

Saio oiek naikoa ezpailira, orain-

dik zerbait geiago egin diteke. Sal-
latariak ipiñi bazter guzietan, ondo
ordaintzen zaiela. Eta salatu deza-
tela nun ari diran nuklear probak
egiten, jarritako legeak ausiaz.

Zaintza-bide au bein baiño geia-
gotan erabillia izan da eta ondore
onak ekarri izan ditu. Alemanian
orrela arrapatu dituzte oraindik as-
ko ez tala «criminales de guerra»
akusaturik zeuden ex-nazi batzuek.

Rusian egindako nuklear probak,
egindako egunean bertan jakin di-
tuzte Norteamerikan, berak dauz-
katen informazio-bideai eskerrak.

Noel Baker'en liburua ondo az-
tertu ondoren, desarme jeneral eta
ongi kontrolatua oso zaila dala
ikusten da. Gaurko estruktura as-
koren aldaketa eskatzen du eta na-
zio guzieren gainetik legoken agintza

bat. Ortik konprenitzen da zenbat
eragozpen dauden eta estadu aun-
dienak zergatik ez duten alkarren-
gan konfiantzarik.

Gaurko egoera ez tu sekulan eza-
gutu munduak. Ezta iñoiz azaldu
dilema au bezelakorik kondairan
zear: *pakea*, desarmearen bidez, edo
munduaren *azkena*, gizadiaren za-
tirik aundiena ondutzen dalarik.

Lord Russel ingles filosofoak dio-
nez, jendea, *gaiñera* datorkionaz
konturatzen bada, desarmea auke-
ratuko du, zaila izan arren. Kris-
tau ikuskerak oiñarrizko itxarope-
na ematen digu Jaungoikoak bere
gizonarekiko Ardurapena kondai-
ran zear beti agertu duala siniste-
ko. Baiña ez dezagula aaztu itxaro-
penak beti naimena ta alegiña es-
katzen dituala.

Eskual adi-hitz batua

Zulaika'tar Sabin

JAKIN'en azken zenbakian irakurri dut ohar haur: «O. Gure adiz-iokua oinbeste naspillatzen duten *it* eta *zki* baztartuz, batasunera-ko saioa du! au, bizkaitarreri eskua ematen diedala». Orixe jaunak dakar haur bere lana amaitzean.

Ohar hunek pentsarazi egin nau, eta oinarrietan, nolabeit erraiteko, Orixe jaunarekin bat natorren arren, ez gatortzi erabatez. Batasunak eragin dio jokaiterat horla ta ni ere gose berarekin nator ene iduria agertzen. Zorigaiztoko nahasmendu ta zorigaiztoagoko adi-hitza. Urte oro emaiten zaigu, azken urteotan, adi-hitz-kumeren bat.

Ta noan mamiñera. Guri ere «Esperanto»-arena gertaiten hari zaigu. Munduar ele-batasuna behar omen zen (ots, hemen adi-hitzarena) ta mintzaira zabalduenen bidez ezin zena, bertze berri ta asmatu batek emanen digu azkenean. Latiñak edo txinerak ezin eman zuten batasuna, «Esperanto»-aren bidez dator.

Orobatsu, guri adi-hitzarekin. Han edo hemen bizirik dagoen adi-hitza jasaiten hasten balin bagizatzi, hemengoek eta bertzeakoak muzin eginen diote, ez baitutetzi era horiek heienak. Gizonak, zoritxarrez, aisago du nehorena ez dena

albokoarena baino. Ta giza-joera hunek gogoan behar dugutzi ukhan.

Hunegaitik eskualki huni edo bertzeri gehiegi behaturen ba'diogu ez dugutzi erabakiren zonbeit hauzi. Guzion gaindi behatuz, bai.

Orixe jaunak bizkaitar askartzai-lea hartzen du: z, bainan non nahi itsasten adi-hitzean, giputzerara ta bizkaieraz: «duzte», «duguz», «diozte», «gaitezke», «dudaz», «dakizadan», «ditezke», ta abar. Ta huna nondik ene zalantza: ez litzake hobekixago guziak bardin erabiltea? Jakina, hobe litzake bizkaitar z hartu arren, bertze eskualkien manerara itsastea —adi-hitz barneetik erran nahi dut, ta ez azkenean—, horla guziontat baitlitzake adigarria: bizkaitarrentzat hizkia heiena dutelakotz eta gainerakohontzat gure erara itsatsita legoke-lakotz.

Hunegatik, Orixe'ren oinarria zimentarri delarik eta bertze jokabide hau lagun, era jatorrenak hunek litzaketzi: «dust», «duzgu», «duzute», «duzte», «diozt», «diozte», «dizuezu», eta abar. Ta ez: «dudaz», «duguz», «duzutez», «diotez», eta abar.

Lan hortan arkhitu dut hainitz harritu nauena: zergaitik erabili behar dugutzi «ditudan», «baitzituden», «betozkit», *it* eta *zki* bazterrerat ba'dugutzi. Ez ahal dizatzi ba horiek khen behar dugutzinak? Ha-ur, bai, nahasmendu beltza litzake: z eta *it* askartzaile biak darabilgutzila, batasuna ez baino bitasuna

ukhanen dugu. Hori ez dateke batasunerako bide!

Arestiko eztabaidak gohora-behe-ra, bertze bat dut nik okherrago. Zergaitik hartu behar dugu Bizkai'ko z hori, adi-hitz batu bat egin dezagun? Ez dut uste eskualdunek maitehena duguna. Ez ote hobe *-tzi* (*-zi*) laphurtarrena hartzea? «dakartzi», «dathortzi»... Hori bai, itsasketa bizkaierara egin behar litzake, guziontzat entzungarri izan dakidigun. Ene adi-hitz-batasun askabide hunerakotz ba'dudatzi hirur arrazoin hunek: guziona izanen da *-Tzi* hori:

—gipuzkoar, nafar eta laphurtarrena, jatorriz heiena dutelakotz.

—bizkaitarrena, heien askartzai-learen erara darabilkigulakotz.

—guziona, horrek bezain doinu ederrik bertze askartzailek ezpeitute.

Nik, bada, *-tzi* hautetsiren nuke, *it* eta *z* horien lekhu. Hunegaitik Orixe'ren bide huni ez deritxat eni batasun-bide, ta ez laket ere hortarakotzat. *-Z* edo *-tzi* hartu? Ene irudiz, hobe bigarrena, entzungarriago delakotz beitiapat, lehenbailehen behar dugun adi-hitza asmatzeko, bainan bethi atzhizki bihurturik, bizkaieraren maneraz. Hola:

ditugu = dugutzi
gera = gizatzi
lituzke = luketzi
zerate = zizatzi
dira = dizatzi
lirake = lizaketzi
dakizkidion = dakidiotzin

zitun = zutzin
gaitezke = gaiteketzi.

Horra ene eritzia, nehork jarrai

nahi baleza, nik bertze ainbertze
eginen ezpadut ere.

Donosti'an, 1961-IV-6

VILLASANTE (Aita Luis): «*Nere izena zan Plorentxi*». *Angeles Sorazu'ren bizitza*. Itxaropena argitaldaria. Zarauz'en, 1961.

Aita Villasante langille porrokatuak eman digu herriro ere beste frutu eder bat: Ama Sorazu'ren bizitza. Gaur-egun nekez aurkituko genuen Euskalerrian —mundu osoan ere esan dezakedala uste dut— berak artu duen lan au burutzeko gizon egokiago ta prestuagorik. Sor Anjeles'en bizitza ta mistikaz, berak eman baidigu gaurdaño egin den istudiorik osoena. (Ikus: *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio Místico de su vida*). Bi tomotan.

Esanetan labor ta egiteetan luze omen da euskalduna ta orixe gertatzen ari zaigu nolabait Ama Sorazu'rekin. Teresa, Gurutzearen Joan ta gaiñerako mistiku gaillenen pareko dela esan digute, kanpokoek esan ere, ta aren senideok ez dugu oraindik ezagutzen gere sukaldean. Utsune barkagaitz au betetzera edo geiagoren egarria piztera datorkigu liburuxka au. Euskalduna ez omen da mistikarako jaioa (au ere esan da), baiña erregla denak dute beren salbua nunbait... Ola dio Ama Anjeles'en bizitzak.

Liburua, ez zitekean bestela izan, Sorazu'ren barne bizitzak betetzen du geienik. Euskal-birjin onek autobiografia sakon ta paregabe bat utzi zigun eta bertatik jaso ditu Aita Villasante'k atal berezi ta jakingarrienak, aren espiritu-igoera maillakamaillaka ematen zaigula. Liburu egokia auxe gure euskal-sukaldeetan irakurtzeko, Euskalerrria'k bere alaba baten bikaintasuna ikus dezan ta, Jainkoa lagun, leenbailleen Bernini'ren aldarean argiz inguraturik munduari erakus dezaion.

Iturriotz

JAUNGOIKOAREN ITZA LITURJIAN

Eizagirre'tar Joan Gurutz

—Villaro'ko sakramentinoa—

Edonork igarri lezaioke gaurko liturji - moimentuaren elburuari: Kristauak liturjia bizi dezatela, bertatik al-dan igali edo frutu ugarie-nak atera ditzatela. Aita Santuak bein baiño geiagotan adierazi di-gute elburu au. Itzez batzutan, e. b., Pio XII'garrenak oraingo Aste San-tuari buruz itzegin zigunean: «Kristauak eleizkizun auetatik iga-li aundiagoak atera ditzaten». Sal-mutegiaren biurtze berria jakiñara-zi zigunean, orela mintzatu zitzaigun: «...emendik aurrera argia, grazia ta... ateratzearren»... Egi-tez bakarrik, bestetan: Arratsal-dean mezak emateko baimena esku-

ratu digutenean, barau orduak al-datzean, et. a.

Jaunaren Itzak ere ba-du bere to-kia liturjian. Ez dezagun, beraz, li-turji-moimentu onetan Idazteuna aaztu. Egin dezagun lan kristauak ezagutu dezaten. Egite onen garran-tzia neurtzen, *kondaira* ta *teologia* izango ditugu lagun. Ondoren, Jau-naren Itza eta Eukaristia *Alkarre-kin* jua bear dutela adieraziko dut. Ta azkenik, *ondoren* bat ate-rako.

I. *Kondaira.*

1. «Jaunaren Itza liturjian» dio-dan bakoitzean, Sarrera, Zurubiko,

Eskeintza ta Mai santuko otoitza ez ditut buruan. Ori diodanean, eguneroko mezetan irakurtzen ditugun Irakurgaia ta Berri Onari buruz ari naiz. Aueri jarraitzen dien sermoia ere, irakurritakoaren esanaiaeren adierazte bat denez, itz oien barruan sartzen dut.

2. Gaur Jaunaren Itza ta Oparia alkartuta ikusten ditugu. Ta ez gera batere arritzen. Bidezko gauza iruditzen zaigu. Elkartze onek, ordea, asiera kristaudiarekin du.

Erroma, Grezi. Babiloni ta Egipto'ko ziñezkoen (pagano) eleizetan, oparia bakarrik eskeintzen zan. Aien eleizak etziran egundo eskolak izan.

Jerusalen'go eleizan bertan ere, lareun baiño geiago eziñ zitezkean sartu. Oparia eskeintzeko egindako jauretzea zan ura. Moises'en Legea ta Igarleak, eleiz atarian edo Uriko Ate ondoan zegon enparantza aundian erakutsi oi zituzten judutarak.

3. Jesus'ek ekarri zigun aldaketa. Ark alkartu zizkigun oparia ta Jaunaren Itza. Ostegun Santu egunez. Arratsalde illun artan, Eukaristia egiñ aurretik, apaltasuna ta maitasunari buruz itzegin zien amabi bidalieri. Bere gorputza ta odola eskeiñi, ta jatera eman zizkien, urrengo. Esan bearrekoak garbi esan zizkien. «Apaiz-otoitza» deitzen dioguna esanaz, bukatu zuan aparti ura.

4. Andik aurrera beti alkarrekin juango dira. Bidalien egiñetan

ala azaltzen zaizkigu: Paulo D. itzaldi bat egiten ari omen zitzairen Troade'ko kristaueri; luze xamarra nonbait, alako batean Eutiki zeritzan mutiko bat, leioan exerita zegola, loak artu omen zun ta bera erori; oraindik arima berekiñ zuala mutillak eta, Paulok ogia ta ardoa sagaraturik, jateko eman omen zizkien entzuleeri. Justino D. onela mintzatzen zaigu: «Eguzki-eguna, deitzen diogun egunean, urikoak toki baten batzen gera ta, astia dugunean, Bidalien Gomutakiak ta Igarleak irakurtzen ditugu... Ondoren otoitzak egitera altxatzen gera gu, auek bukatutakoan ogia ta ardoa urakiñ eskeintzeko». Paulok jokabide berdiña adierazten digu zenbait tokitan.

5. Guk Idazteuna irakurtzen dugunean, ez dugu aiek bezela egiten. Emendik pixkat, andik beste pixkat, orrelakoa izaten da gure Idazteunaren irakurtzea Aiek artzen zuten Idazteuna ta atzo nun irakurtzeari laga, andik asten ziran urrungo egunean: «asieratik bukaeraño irakurtzen zuten, Jokabide onen berri Agustin Deunak ematen digu: «Nere eskuetan ikusten duzuten Jon Deunaren Berri Onetik asko entzun duzute... entzun orain arretaz, ondoren datorren au»...

Irakurri ondoren, gotzaiak edo apaizak itzaldi bat egiten zien, irakurritakoaren esanaia ondo artu zezaten. Sortaldeak sermolari bikaiñak sortu zitun. Origenes'en berreun itzaldi ezagutzen ditu gure gi-

zaldia. Gaiñera, Itun Zar eta Berria osorik esplikatzen omen zituen bere itzaldietan. Ara emen, Eleizaren izleri onena izandako Krisostomo Deunaren itzaldia: 140'tik gora Itun Zarrari buruz; 90 Matai'ri buruz; Lukas'i buruz 88; 63 B. Egiñai buruz; itzaldi onenak Pauloren eskutitzari buruz egindakoen artean arkituko ditugu: 250 ta auetatik 32 Erromatarrai zuzendutakoari buruz.

Sartaldean, Agustin Deunaren «Enarrationes in Psalmos» ta bere 124 «Tractatus in Joannem» arkitzen ditugu; Gergorio Aundiak «Expositio in Beatum Job»'ez gaiñera, beste asko egin zituen.

Aitatutakoak eleiz gizonak ditugu. Baiña, prakadunen (seglar) artean ere amaika aitatu ditzakegu Idazteuna ondo ezagutzen zutenak. Ara emen izen batzuk: Aristides, Justino D., Atenagoras, Minuzio Peli, Laktanzio, t. a.

Antziñakoak orrelako garrantzia eman zioten Idazteunari.

II. Teologia.

Lenengo kristauen bizimoduak arreta ematen zien sinisgabeeri. «Begera nola maite diran» zioten, arrituta. Martirien sinismen sendoa etzitzaien inñundi ere buruan sartzen. Estuasun eta bearren neurrian Jaunaren grazia, esan oi dugu. Ta aieri ere etzitzaien paltako: etsaien erasoak gogorak baziran, Jaunaren grazia etsaien indarren

neurrian zijoan, Baiña, sinismen ta maitasun aren *sustrai*a, etzazu zaltzarik eguki, Idazteuna zan. Emendik sortzen da galdera: Nundik nora Idazteunak olako indarra?

I. Batek baiño geiagok, indar orren iturria literaturan ta izlarien mintzo ederrean ikusi izan dute. Bigarren aukeretan danak Krisostomo ta Austin. Ala izan balira, beste izen batzuk iritxiko ziran gure belarrietara. Itz moteleko amaika arkitu zitezkean ordun ere, gaur bezelaxe.

Idazteunaren ele-ederra etzan gauza ondoren aiek ekartzeko. Mintzaera polita liburu santuaren alde baten baiño geiagotan arkitu dezakegu. Paulo Deunak goi-goitiko esanak ba-ditu, Joan'enean gogalpen sakonak arkitu izan ditugu Isaias'en olerti politik amaikari arreta eman dicte, Jeremi'ren orri-alde batzuk ezta dariote. Ez dago, ordea, Idazteun guzia orrela idatzia. «Jakintsuen jakinduriak» Paulo'ren itza eskastzat zeukan: «...guk, berriz, Kristo gurutzatua aldarrikatzen dugu, juduentzat tupustarri, elendarentzat tentelkeri». Apolo'ren itz landua atsegingarriago zitzaien askori, Paulo'rena baiño. Austin Deunari gertatzen zitzaien beste askori: «Beraz, Liburu Sainduak nolako ete ziran aztertzea erabaki nizun... Izkerre arrunta, esankizun autu, izkutapean emana... Kikero aundiarekin alderatzeko kaxkarregia iruditu zitzaidan». Ta Anburusi

gizon santuak Isaias irakurtzeko agindu zionean: «Nik, ordea, lenengo irakuraldia ez ulertzen eta gaiñerakoa olakoa zala ustez, gero-ko utzi nuan».

2. Homero, Platon, Dante, Shakespeare ta olakoak bai elertia! Ala ere, Idazteuna aiña aldiz ez da argitaratu idazle aurtako baten liburu-rik. Esiz bestaldeko aldizkari bat eskuan nuala onela irakurtzen nuan lengo batean: Idazteuna aiña ateratakorik ez dala? Kenpis'en «Antz-bidea»'k darraikiola; Dante'ren «Divina Comedia» datorrela irugarren; ta Cervantes'en «El Quijote», laugarren. Zergatik ote liburu danen artean Idazteuna nagi? *Jaungoikoaren Itza* dalako.

Ez dut esan Jaunaren Itza an dagonik, Jaunaren Itza dala baño. Gizonaren izkeran idatzia dago. Ala ere, an arkitzen duguna Jaunak idaztea nai izandako guztia ta barkarra besterik ez da. Ta au da len aitatutako Idazteunaren indarraren sorburua. «Jainkoaren itza, bizi, eragintsu ta sorbatz biko edozein ez-pata baiño sarkorragoa bait-da; gogo ta adimena. txunku ta miñak sakailtzeko ainbatekoa, ta biotzeko oldotz ta asmoak bereizteko zorrotza», orrelako itzakin neurtzen du Paulo'k indar ori.

Sakramentuak indarra «beren eragiñez» dutela, esan oi da. Idazteunak ere orrela ote duan, baten batek esan du. Zortzigarren sakramentua, deitu ere bai. Ez da, ordea, ori egia.

Gizonen itzen indarra austen duan beste Itz orren eragiña, ikuskarria izan da zenbait santuen bizitzan. Austin larri ta estu zebillen «ar, irakur, ar, irakur» itzak entzunarte. «Ez ian-edanean, ez mozkorkeria, ez oeko lizunkerietan, ez eletan eta bekaizkerian; iauntzi ezazue Jesukristo gure Jauna, ta ez axola aragiaren lizunkeriz» zioten itzak irakurritakoan, zion: «Ez nuan geiago irakurri ez bearrik ere». Anton Deunak, berari zuzendutako itzak zirala, uste izan zun onako auek: «Oa, sal etzak ditukanak, emazkiek landerri, eta badekek altxorra zeruan; ator ta iarra akit». Ta bakardadera ezkutu zan. Prantxisko Deunak, «ez artu urrerik, ez dirurik, ez makillik, ez aldagarririk»... irakurtzean, bear-tasun osoan Kristo'ri jarraitzea erabaki zuan.

Idazteunaren indar ori etzaigu beti aiñ garbi azalduko. Ala ere, beti izango du Jaunaren Itzak gizonarenak ez duan zerbait, Paulo berak dionez: «Jainkoak idarakitako idazi aro adiñan ere da irakasteko, akar egiteko, azterteko ta zuzenbidean azteko».

3. Gizonak okerbidetik zuzenera ekartzeko, itsueri bide zuzena erakusteko, pekataria bide zuzenean jartzeko, zalantzan dabillena sendotzeko, illun dabillena alaitzeko, atsekabez inguratuak pozteko, itz eragokiagoak nun arkituko ditugu Idazteunean baiño?

III. *Jaunaren Itza ta Eukaristia.*

1. Jaunaren Itzak indar bereizi bat duala esan dugu. Indar ori aundiago egin diteke. Nola? Eukaristiarekin alkartuta.

Eleizan, Jaunaren Itza arreta aundiagorekin entzuten dugu. Izan ere, Itz orren egillea aldaretik begira daukagu. Gaiñera, bata bestearen anparua, bata besteen alkartzea onuragarri zaigu.

Baiña batez ere, mezarekin batera dijoanean egiten da aundiago indar ori. Asten da meza. Meza-emaillekin batera, kristauak bere utsegiteak aitortzen ditu «Kirie'n» Jaunari laguntza eskatzen dio. Otoitz xamurrak errezatzen ditu gero. Ze sarrera polita, Jaunaren Itza entzuteko! Orain Jaunaren Itza ez da lur etzean eroriko, lur landuan baiño. Jaunaren Itza entzun du, ta oparia eskeintzera doa. Ontan entzun duan Itza du lagun: sinismena pixtu egin baidio, itxaropena sendotu ta maitasuna aunditu. Obetogo nola gertu zitekean kristaua, «opari garbia, opari santua, opari itzalgabea» eskeintzera?

2. Eukaristiaren ta Jaunaren Itzaren elkartzeko au, apaizak ez bezate alperrik galdu. Aste guzian lanean ibilli da gizona: etxetik lantegira, lantegitik etxera. Artzaiak ez du izan aste guzian bere ardiakin itzegiteko aukerarik. Or datorzkio igandean auek meza entzutera. Abagune au artzaiak galtzen badu, noiz erakutsi bear die Jaunaren

Itza? Egun artan irakurritako Berrri Onen zatiaren esanaia adierazi bezaio bere artaldeari. Ala aginduta bai dago.

3. Jaunaren Itzari garrantzi geiegi ematen ari naizela, pentsa lezake baten batek. Ez al-litzake milla aldiz obe, Jaunari opari eder bat eskeintzen saiatzea, erriari bere itza erakusten saiatzea baiño?

Erantzun au datorkit lenen burura: Eleiza, Gogo Gurena gidari duala, orrela jokutzen ari da, beraz... Baiña, au da arrazoizko erantzuna: Ezazu pentsa liturjiaren elburua, Jaunari oparia eskeintzea bakarrik danik. Au du elburu nagusia, ez ordea, bakarra. Gizonak zeruratzea ere, bere egitetan sartzen baita. Gaiñera, Jaunaren Itza arretaz entzutea, bere ordekoaren egotik Itzaren esanaia ondo ulertzea, ez al-da bera opari ederra?

Bata bestearen lagun dira biak. Jaunaren Itza entzunaz, oparia eskeintzeko gertutzen gera. Jaunak Idazteunaren bitartez esan diguna betetzeko, ez dugu Eukaristia aiñako lagunik. Ez ditzagun bada guk sakabanatu.

IV. *Jaunaren Itzaren ta Sakramentuaren banatzaille.*

1. Orainarte esandakoetatik ondoren bat ateratzen dut: apaizak oparia eskeini ta sakramentuak banatu bakarrik ez duala egin bear. Jaunaren Itza ere zabaldu bear duala. Bigarren eginkizun au betetzen

ez luken apaizagatik au esan bear-ko genduke: olako apaiza, apaiz erdizka litzakela bakarrik.

Liturji-moimentuak eziñ aaztu Idazteuna. Lan au lagata, beste gauzetan ari balitz, ez bai genioke barkatuko... Azkenengo Aita Santuak orregatik itzegin digute ainbeste, gai oni buruz.

Leon XIII'garrenak egin zigun lenengo deia, bere «Providentissimus Deus» idazki nagusian. Apaizgaileri Idazteuna irakurtzeko, ikasteko, bere esanaia ondo ulertzeko esaten zigun, egunen batean, apaiz izatera iritxitakoan, Jaunaren Itza bear bezela zabaldu genezan. Pio X'garrenak lan asko egitea pentsatzen zun gai onetan, Etzuan nai aiaña asti eguki. Pio XI'garrena, aurretik Bendikto bezela, saiatu zan berak asitako lanak bukatzen. Pio XII'garren «Divino afflante Spiritu» idazki nagusia, ez da aitatu gabe uzteko modukoa.

2. Lan onetan, Joan XXIII'garrena atzean geldituko ote zaigu?

«Eleizaren egite danak ditugu maite, baina batez ere, Liburu Santua zabaltzeko ta ezagutuarazteko egiten diran lanak ditugu gogoko... Anai maiteak, ez al-da apaizaren egite nagusia, Itun bietako dotriña

erakustea ta zabaltzea? Aurreneko Eleiz-gurasoak zer izan ziran batez ere, Idazteunaren berri emaille ezta?» Orrelakoak esan zizkien Idazteunaren XVI'garren astea Erroma'n ospatu zuteneri. Besterik ez dugu bear, Erroma'k Liburu Santuari ze garrantzi damaion jakiteko.

«Kristoren Antz-bideak» bi mai aitutzen dizkigu Ara nola: «Nere gorputzaren espetxe ontan nagoño, bi zertxo etsitzen ditut nai ta naiezko: janaria ta argia... Bi auk gab eziñ ondo bizi nindeke: Jainkoaren Itza, nere animaren argi baita ta zure Otamena, ogi bizigarri. Esan diteke bi auk Eleiz Donearen altxorraren ezker-eskuinetan jarritako bi mai dirala. Bata opamai deuna, ogi santua, ots: Kristoren Gorputz ederra daukan maia. Bestea, berriz, Jainkoaren Legeko maia, ikasbide santua gorde, sineste zuzena erakutsi ta estalkiaren barrene-raiño, Guren-Gurena dagon tokiraiño, zuzen eramaten dun bidea».

Inguratu gaitezen, kristauok, mai auetara; ta apaizak eskuratu bezaitute gure animaren argi dan «Jaunaren Itza» ta ogi bizigarri dan «Eukaristia».

Etika berria

Izagirre'tar Felipe

—Arantzazu'koa—

Gaurko munduak krisi ta larri-
miñetan daramala bere bizitz-neka-
dia esar da. Ta arrazoiz esan ere.

Gizaldiek oro izan dituzte egural-
di latz eta illunak. Ogeigarrenak
ere ba-ditu noski, ta agian, egune-
tik-egunera gogorrakoak. Gere gi-
zaldi onek, asmakari bikain asko ez
ezik, estuasun eta larri-min gorriak
ere sortu dizkigu. Larrimiñak
ekonomi-kontuan, erlijioan, politi-
kan eta soziedadeko beste zenbait
alderdietan. Egi garratza baiña egi-
egia. Gerrateak bildurtu egiten gai-
tu ta aldiaren izkutu ezjakiñak dar-
dar-arazi... Geuk ala nai ezta ere,
egia egi ta ezin ukatu gaurko mun-
duaren teknika ta aundiki naia.

Onen ondorioz, berriz, askatasuna
ta alkarrerrespetoaren galera... Zen-
bait tokitan, gizonak agintarien jos-
taillu biurtu dira. Askotxok gizata-
suna ere galdu egin dute, ez baidira
gizonari dagozkion eskubideen jabe.
Munduan-zear dira beste asko beze-
laxe, baiña alare... presondegian.
Gezurra dirudi, baiña egia da.

G. Marcel'ek bere «Monde cassé»
antzerkian, onela itz eragiten dio
Kristinari: «Askotan ez aal deritza-
zu mundu zarpil batean bizi gerana
—gure oni bizitza dei aal bagene-
zaio?...— Munduak, gizonon mun-
duak, leenen-leenen biotz bat bear
luke, baiña biotz orren taupadak ito
egin dirala dirudi».

«Gaurko mundua, legeak bere jokabide iraunkorrak noiz jarriko zaidago. Bitartean, millaka gizon nausikeripean zanpatuak. Ez dute, ez kanpoko ta ez barruko eskubideen segurantzarik. Etxea, ondasuna, askatasuna... ezertxo ere ez. Bere biotzeri ez darie itxaropen printza-argirik. Bear bada, egizko demokrazian jarriak zeuzkaten itxaropen apurrak, baiña demokrazi oni dagozkion egiteak falta...» (Pio XII'k 1947-VI-2'an Kardenaleri zuzendutako itzalditik).

«Gaurko gizona, bere izate guziko zoritxarrez konturatuta bizi da. Zoritxarra gorputzean, animan eta biotzean... Ez du itxaropenik bere lagunaren artu-emanetan. Itzak uts eta epelak birtu zaizkio». (Guardini: «Freiheit, Gnade und Schicksal»).

«Egungo mundu biotz-gabe au indar eta nausitasun-naiak derabilki. Bost ajola zaido itzen balioa; itz asko baiña ustel-pipiz jotakoak. Oso gaurkoak dira: gizatasuna, personalidadea, askatasuna, demokrazia, t. a. baiña itz puztuak, mamirik gabeko itzak...» (G. Marcel'ek: «Le mystère de l'Être»).

Filosofiaeren larri-miña.

Filosofia ere egungo gaitzak kutsatu duela esan genezake, ta ez nolanaiko kutsua erantsi ere. Esistenzialismua gerrateak jorratutako estuasun eta pake-gabeko lurrean jaiotako landarea dugu; larri-min orren agerpena alegia. Etika edo Moral berria berriz, beraren ondo-

ria. Etika Berria izendatu dut, baiña beste izen asko ere ba-ditu: Egokeraren, situazioaren Etika, Moral Berria...

Edestia-zear mota askotako filosofiak arkitu ditzakegu, baiña denak edo geienak beintzat, epoka bateko bizitzaren agerpen zaizkigu. Orixe bera dugu Esistenzialismua: azkeneko gerrateak sortutako larri-miñaren agerpena. Jaioterria Alemani, Izan ere, ez da arritzekoa, bera izan baizen gerratearen bokaturik gustokoena. Ezin zezakean, noski, bizitzako sustraiak tinkatzeko Alemani bezain Nazio egokiagorik arkitu, ta antxe jaiotzen. Kierkegaard dugu bere aitona. Bai bizitza illun eta erretxiña gizon onetxena! Ondoko guziak etsai ta ezberdiñak zitzaizkion. Bera zen munduko zorigaiztokoena, ta iltzeak nazka ta amorrua sortu oi zion. Gizon berezia noski, Esistenzialismuaren idea beltzak asmatzeko.

Esistenzialismuak joera bi izan ditu: kristau joera, Max Scheler eta Gabriel Marcel'ekin. Bestea, Jainko-gabea: Alemanian, Heidegger eta Jaspers; Frantzian berriz, Sartre ta Camus.

Esistenzialismua idealismu ta errerealismuaren aurrez-aurre jaiotzen da. Etzaido gustokoa esenzia, izatasuna baiña. Bere sistemak ez du batasun lokaririk, an-emengo dotriñaz jositako sistema dugu. Oinarririk edo asiera-gaitzat gere izatearen errealdadea aukeratu du; jakiña, metafisikaren balioa beragan duelarik edo

erantsi nai diolarik beintza: Ni, neure izatearen kontzientzia naiz, eta konturatze ori da esistenzialismuaren gaia.

Esistentzi edo izatasun itzak esanai asko ditu. Zabalenean artuta zera esan nai du: kanpoko zerbait (existere), gauza bategandik jasotzen dan zerbait; gauzek duten zerbait, baiña errealidadez jantzitako zerbait.

Esistentziak gizon bakoitzaren izatea eman dezaiguke, ta orduan, esistentzia gizonaren bizitza dela esan genezake.

Azkenik, personalidadea ere esan nai du, esate baterako: gizonak bere bizitza bidez egin duen personalidade ori. Esistenzialismuarentzat esenzia errazoimenaren idea utsa da; izatasuna da egizko errealidadearen jabea, ta izatasun orren mendeko gera guziok. Beraz, izatasuna ez da astratu zerbait, konkretua baizen.

Askatasuna da izatasunaren esenzia, baiña esenzi ori izatasunaren lana, berak egindakoa da. Obeki: berak aukeratutakoa da ta aukeraren jabe izanik, berea izan bear du askatasuna. Izatasunak besarkatzen duena ezer gutxi da, ta bestalde, autatu bear orrek garrantziena aukeratzera eragiten dio derrior.

Esistenzialismua gizonaren filosofia dela esan genezake, baiña gizon konkretuaren filosofia, bere bizitza, egokera ta berezitasunekin. Mundu zarpil ontara erori danik,

emene egin bear du bizitza, al duen eran, bizitzaren zergaitiak jakiteke. Bestalde, eriotz eta ezerezean murgildu bearrak estuasun eta zorritzarrez betetzen du; bizitzaren izakera aldrebesak, berriz, bere bizitza desegitera eragiten dio. Orixe da gizonaren bizitza: estuasuna, larrimiña...

Beraz, esistenzialismuak ez du gizona teori-munduan ikusi nai, eguneroko egin-bearretan baiña, eguneroko egin-bearretan baiña, prolema ta ezbear guziekin bat. Esate baterako: objetibismuaren gainetik sujetibismua aupatu nai luke.

Baiña alare, ez uste idealismuan erortzen dana; ba-du sistema orren-gandik iges egiteko bidea: askatasun bidea alegia. Alde batetik, gizona or dago zer eta zertarako jakiteke. Baiña bestalde, gizona beti berritzen dabil, eta betiko lan ori ezin genezake leendik jarrita dagoen legearen ondoriotzat artu, askatasunetikoztat baizen. Gizonak, ordea, ezin lezake askatasuna eza-gun, ezin esan bein betiko: bukatu diat nere egin-bearra ta kito... Opor-aldi ori etzaio zillegi; beti egiten eta jardunean ekin bear du.

Derriorrez sortu gera, baiña bearezkotasun orrek ez dio izateari askatasuna ukatzen. Jatorriz, au edo ura izateko aaltasuna dugu; munduan ez gera azaldu osotasun guziarekin, baizik, aaltasun oietatik nor berak aukeratzen du dagokiona.

Ta nola liteke, gizona askatasun onen jabe izanik, ain bakar eta zorritzarrekoa izatea... Or dago, ba!

Askatasuna askatasun bezela azken gabea da, bai; baiña gizonaren zer-bait izanik, bukaera ba-du. Orregatik, ori dugu gere estuasun eta larrimiñen iturria.

Bizitza aukeragarria izan da, baiña geuk egin, eutsi ta egin bear ori neketsua zaigu; orrezaz gaiñera, ez dugu geure izatasunaren ziurtasunik; bizi, bai, bizi gera, baiña norako jakiteke. Askatasunarentzat dena jostaketa da, baiña arau edo erreglamentuz egiña; baiña bestalde, geurok aukeratutako jostaketa.

Etika berria.

Leen esana dut Etika Berri au esistezialismuaren ondorioa dela, ta ala izanik, filosofi orren gun berak bizi-erazten du: sujetibismuak alegia. Joera berri onek ez du eragozpenik arkitu, errex egindu du bidea gaurko munduan; jakiña, agindu ariñak baidakarzki. Ta aiiñ ariñak gaiñera... Geuk egin genezake gere bizitza... Ariñagorik! Sujetibista danez, ez du unibersalkutsurik; oiñarriak bakoitzaren kondizio ta egokeran tinkatu ditu.

Beraz. Etika berri onen ezaubiderik hereziena une bakoitzeko egin bearra adierazten digun biozkada edo intuizioa dugu. Orregatik, ideak eta unibersal-legeak ez dira zein kontzientziari au edo ura egi-tera agintzeko, bera naikoa baida une bakoitzean erabaki berezia asmatzeko.

Jakiña, kontzientzi orren aginduak ez dira Jainkoaren legeari da- gozkion eratakoak, baiña alare, eti-

ka berriaren iritiz, gustokoak izan- go litzaizkioke egizko kontzientzi, agindu ta legeak baiño balioetsua- goak baidira.

Kontzientzia kreatzallea da, ta ez, inñolaz ere, Jainkoak gizon ba- koitzaren biotzean ezarri dituen aginduen artzaillea, ta gutxiago amar agindu edo ta giza-legeena. Kontzientzia ezin genezake legearen morroitzat artu, ori, bere aundita- suna lapurtzea litzake; kontzientzia ez da ain apala agindutako bidetik jarraitzeko, bai zera!, berak egingo du bide.

Beraz, egin bear edo kez karen bat gere barruan erneztean, kontzientziak asmatuko digu, edo obe- ki, kontzientziak egingo digu une artantxe erabaki egoki ta bereziena. Egin esan dut eta alaxe da, ez leen- dik neukana agertu edo billatu. Onela izanik, bizitza guzian moral berria osatzen giñake, baiña azke- nera irixteke; esate baterako: bide oni jarraiki, ezin genitzaizke norma edo arau sendoak tinkatu ta, dudarik gabe, gere aultasunari bearrez- koak zaizkio.

Etika Berria guztiz sujetibista ta berekorra da, Kontzientziaren egin- bearretan, gizona ta Jainkoa, biak bakarrik, aurrez-aurre mintza oi dira, ta alkar-izketa ontan arkitzen du egitekoa; alperrikakoak deriz- kio legeeri, eta areago erlijio ta agintariari, ez baida gizon eta Jain- koaren artean tartekogabetasuna bezain moral jatorrik. Jainkoaren aurrean balio duten gauzak, bi aue-

txek dira: gogo zuzena ta egizko erantzuna... Baiña nora goazke bide auctatik...?

Gaiñera, une bakoitzean erabakia arte orrek ba-du beste erreztasun bat ere: denbora irabaztea alegia. Erreztasun oni esker, gizonak ez dauka an-emango lege ta aginduak zer dioten gogoratu bearrik. Une bakoitzari berea ta kito.

Orrezaz gaiñera, gere bizitza fariseismu-kutsutik gorde oi du; berak dionez, ez da bidezkoa legearen morrointzan bizitzea... Au bai dela beste puntaraiño jotzea!

Ta goazen orain, adiskide ori, Kristau Etika, azalez badere, jorraztera Etika berri onen gaitza auzartzeko argi izan dezagan.

Kristau Etikak izakera du oiñari. Ba-da emen filosofiarieri kasakoa herotu dien prolema bat: izakera ta egin-bearraren artu-emane-kikoa alegia. Zein garaille? Gure filosofi zaarra izakeraren alde jarri da. Izakerak jartzen dizkie gere pentsakera ta egite-erari bakoitzari dagozkion legeak.

Etika berrian, ontasun-araua une bakoitzeko biozkada edo intuizioa dela esan dugu; Kristau Etikan, berriz, izakera, esenzia, natura. Lendabizi, gizonaren izakera ta azken, Jainkoarena; baiña eza aztu gizoarena Jainkoaren irudia dela. *Imago Dei*. Ba-da gere barruan, errazoimenak bere sakontasun indarrez arkitzen duen programa bat. Programa ontan direla esan geneza-

ke egin-bear edo bete-bearrak. Deontologia Ontologiaren bizkarean dijoa, ta ez aldrebes.

Beraz, Eleizak erakutsitako Etika objetibua dugu, ez baida gizonaren egiña, izakeraren barruan arkitutakoa baiño. Ondorioz, kontzientzia ezin genezake Etika berriak ematen dion jabetasunez jantzi; kontzientzia arau-agintzaillea da ta ez legcaren egillea; ez du lege edo aginduak egiteko eskubiderik, leendik dituenak agertzeko baiño.

Baiña nere iritzi apalean, Etika berri onen sustraia edo iturria, kontzientziaren jabetasunean jarriko nuke, ta Pio XII'k ere ori bera zion. Onatx, gai oni buruz zuzendutako itzaldi baten laburpena.

«Kontzientzia santutegi bat dugu, ta itz oni dagokion errespetu guzia zor zaio. Kontzientzia gizonak duen doairik aundienetakoa da. Bera zaio bakar-tokirik atsegingarriena, eleizatxo ortan entzun oi baidu Jainkoaren zerutar itza. Or barruan aukeratu oi ditu bide zuzen-okerrak. Bizitzako zenbait unetan urrun naike luke, ta ain urrun nai ere, baiña nai ori ezin ase, bere bizitza osoan nai-ta-nai-ez beragan izango baidu; ta ori ez-ezik, bera izango zaio epaillerik egizaleena. Kontzientzia, ba, santutegia da, ta atari ontan guziak itxoin bearra dute. Beraz, edukadoreen egin-bear garrantzietakoa kontzientziaren egizko eziera da.

Baiña, nun arkitu lezake ezitzai-

Ileak Kristau Etikaren egiazko iturri ori? Kristok erakutsi ta Eleizaren eskuetan utzitako aginduetan; au ez beste denak, sasi iturriak lirake, ez dago ukatzerik. Moral berri onek, ordea, Kristoren agindu oiek berrikusi ta ziaro aldatu nai lituzke; bakoitzaren kontzientzia Eleizak, ta berak bakarrik, duen jabetasunez jantzi nai du. Baiña jabetasun-bide onek Kristorengana eraman bearrean, oker bidera garamazki.

Moral berriak dionez, Eleizak askatasuna txalotu ta maitasun-bidez biotzak bereganatu bearrean, zigor ta kastigu-bidez jokatu oi du. Orre-gatik dio: «Beartuak zaudete, etzazue zillegi...»

Baiña ori ez da egia. Eleizaren naia bestelakoa da; konbiziozko kristauak nai ditu, ta ez azalezko katolikoak. Orobat, kontzientziak ezitean, siñismen eta goiko grazia-
ren aberastasunean gogor egiteko esaten digu, bere aunditasun paregabea ikusita, konbizioz joka dezagun. Bestalde, ezin litzake kristauren eginbearrak baztertu, auetxek baidira aberastasun ori iristeko biderik egokienak; gizonak gera, ta gizon geranez, saria erakarkorra zaigu. Kristok esana da gaiñera: «Ez da aski zeruan sartzeko, Jauna, Jauna deitzea, bearrezkoa da Aita zerutarraren naia gudan betetzea».

NORA EROAN GURA GOZUEZ?

Aurraitz

Azkenengo erroi-aldian agertu yakuzan erdal gogodun idazle batzu oba euren idaztortza baztertu, ta erderarik ez dakien menditarren artera bizi izaten joango ba-lira, amar urterako, euren gogoak euskal-izatez jantzi ta euskaldunak egiten dogunez euskeraz egiten ikasi-arte; eta euskereari kalteak-kalte dagitsozan erdal-kutsua erantzi, ta benetako euskaltasunaz gogoak apaindu dagioezanean, idazten asi.

Esku-artean daukat 1960'gko. 3-6 EGAN eta garramuraz irakurri ta birrirakurri dodaz dakazan lan guztiak... Baiña bi, bata baiño bestea ulergatxagoak: bata lorriña ta bestea ganora gitxikoa. Jakin-gu-reak zirikatu ezpa-nenduan iraku-

rri bere enebazan egingo... Naiak egin bear izan nebazan, ba, ulertuko ba-neban. Bekokia eukan gizon ak, egin eban euskereaz eta esan abazanak Donosti'ko euskalduneri esateko. Eta bai egotarria be entzuleak, azkenerarte iraun ba-eben entzuten, urduritu barik.

Bizkaitarra ta baso-basokoa naze-nez, bizkaierea ondo dakit. Gipuzkerea bere neiko ondo. Lapurderaz ondo-samar, ta zuberotarrena ta en-paiduak bere taiuz ulertan dodaz; baiña gure bilbotarrak eta beste banna batek darabillena, ez. Nungo euskerea da ba, ori? *Amesetakoa* ala benetakoa menperatu ezin dabi-nena? «Orixe» maixu andiak esan dautsuenaz, «Arriandiaga ta

A. Urrutia ur gardena dira zuen aldean».

Neure euskal-odol basatia irakitan jarten yat olako euskerea betaurrean ikusi dagidanean, eta olakoen lanik berriro ez irakurteko gogoia sorten yat. Eneuke gura geure-geureak doguzan itz asko, beste izkuntzetatikoak diralako baztertarik, baiña ez iñok ulertan ez daben eta geurea ez dan joskera naastea artu, ta *desajola*, *deserritu*, *pietate*, *empirikoa*, *astrato*, *esprimi* ta aula-ko gauzeztan itzekaz geure izkuntzea lorrindu ta ondatuterik be.

Idazleak berak diño: «*Eskribitzen ditudan gauzekin, eztaikit nik zer gertatzen den, baina beti pasatzen da gauza bat esan nai dudala, eta euskaldun irakurle gutxi nik eskribiturikoak irakurten dituztenek, beste gauza bat, guztiz dife-rente eta desberdin, entenditzen dutela*». (Au nastea!)

Jakin bear leuke ba, zer jazoten dan: Euskerearenak ez diran itz eta joskera lorriñaz esan-gura guttia naasi ezkeru, ezin iñok ulertu.

Gernika'tik urreko baserrietan, atxuxeriak (1) saltan ibiltan zan, astoaz, erdaldun bat. Bein ankatik oratu ta errekarra jaurti eban bere zamaria, zubitik igaro gura ez ebalako. Urrengo eldu zan etxean salgaiak zelan busti eikiozan itandu outsoanean, euskera gaizto baiño gaiztoagoz erantzun etsean aulan: «*Astoa ankie oratu errekie bota*». Atxuxeridun aren antzekoa da, ba,

(zoritxarrez) oriek dabillen joskerea (2).

Besterik ezean, eta astirik izan, egunean ordutxu bi egin ba-legiz Bilbo'ko ibai-ertzean bearrean ibilli oi diran txorierriar eta arratiar mutil jatorrakaz eta gero, orrek itz egiten dabien lez idatzi, ondo baiño obeto ulertuko leuskiue irakurleak. Baiña aitatu dodan EGAN-eko ipu-ña lakoak iñok ulertu ez oba...

Eta euskera naasi, ulergaitz eta lorriña bakarrrik ez: ba-da, burutasunak bere ganora asko bakoak. Olerkiak *olerki* izateko bear dabezan «tasun» guztiakaz egiteko, (idazteko), olerkari bat bere ez da gai, antza, gurean, arek diñoskunez. Oraindik atxiña berak bakarrrik egingo dauskuz, oiez, olerki izena (a!, *poesi* izena) merezi dabien olerkiak. Nundik atera ete dau, lorrin-zale onek, gure olerkiak ez dakiela euskal-*metrika* zer dan, eta bertsulariek bai? Bertsulariak, (geienek beintzat), neurtitzneurria ondo erabilten dabiela uste dabenak ez daki bape gure olerki-*neurrietaz*. Or Bilbo'ko sokondoren batean baztertuta izango da «*Ortografia del Euskera Bizkaino*» deritxon liburu txiki mardotxurik eta

(1) *Atxuxeri*, *Atxuxeridun* = Quincalla, Quincallero. Geure errian, Aien-giz'en, erabilten dira itzok.

(2) Musikari onak gurata be ezin txarto jo aal izaten dau berak ondo josten dakian joarea. Euskaldun utsak bear ezin joskera txarrez idatzi naita be.

ikusteko erarik orain arte izan ez-pa-dau, begitu-aldi bat egin bear leuskio, here onerako; arexeaz ikasi daike ba, euskal-bertsuak neutan.

Beste lorrin-zale batzu be ba-doguz, baiña gitxi, aiatu dodan onen lainekorik. Batzueri gaitz baiño ez-pa-da bere, ulertu be egiten yake; baiña oni...

Naiz garbitasunerantz naiz mor-doillukerirantz bazterregeri joatea kaltegarri yaku izkuntzearentzat; eta onena bien erdian geratutea; baiña garbi-zaleen alderatxuágo, au bestea baiño urtxuágo dago erriagandik ba-ta. Atzekoz-aurrerako ta goikoz-beerako joskera nazkagarri ori erriak ez dau ulertan, eta, bai ondotxu, garbikeri larregira jauzi ez dan euskera leuna.

Batzuek oarrez, (aprapoz), dabilzala uste geinke erriak inoz erabilli ez daben joskera lorrin orreaz idazten. Villasante - Kortabitarte Abari irakurri dausat: «*Komunisten artean jakintsuak ez omen diote ezeri ainbeste bildur, nola objatibidadeko pekatuari*». Zu ta ni, Aita Villasante, erri bateko seme gara. Zu, (uste dodanez). Errenteria'ko ibai—ertzean, (kale-etxean) jaio ta kaxkondua; ni, zuenetik— oiñez orduerdiko bidera, Gantzabal ton-torraren ertzean, Mendieta'ko baso-arte olerkoian jaio, azi ta bizi izana: ba-da, biok aiengiztarrak. Eta jakin bear zenduke, au aiatu dodan atal au, gure erri-inguruan aulan esango leukiela: «*Komunisten arteko jakintsuak ez ei dausie oje-*

tibidadeko pekatuari beste bildur ezeri». Zer dala-ta, ze zentzuaz bas-tertu, ba, adiskide, geure errietan ikasi genduan joskera garbi ta jatorra, benetako euskaldun zintzoek ulertu ezin daikien beste lorrin eta motz, (itxusi), orren orde, antxiña txarto idatzitako idaztien batzuetan aurkitu dozuela-ta? Nora eroan gura gozuez?

Aldea makala Kerexeta jaunak darabillan izkereak eta zuenak. Gure olerkari goenengo onen idazkerea ikasi naiz ez ikasi guztiak uler daroe oso-osorik, eta zuena zatika ta txarto baiño ez.

Zuzen baiño zuzenago genduan gure «*Orixe*», euskaldunok bata-besteari ikasten diardugula esan ebanean. Geienok gabiz, ba, alkarri irekatsi guraz ibilli bere.

Baiña euskaltzalerik jakintsue-nak be larrapastada itzelak egin daroetz euskal-zidor labanean. L. Mitxelena jaunak diñosku: «*santu eta frutu-ren igesi genbiltzala, deun eta arrari* guraso gabekoak (gabeko gurasoak ez gero) artu genituen», *Arnaritaz* ezer bere ez dakit, baiña *deun* asmakizuna danik ez daustazu esango, gizona, Bizkai'an, Gernika-inguruko errietan eta beste leku askotan beintzat, aurrez erabilten da *deunge*, (*donge* bere bai), *deuna* ez daitena, (santu ez daitena edo gaiztoa) adirazteko. Azkue'ren iztegiari jaramon ba-dagiogu *deun* ez da euskal-jatorrikoa, baiña zuendako niretzat baiño ardura gitxiago dau jatorriak, eta noien aurrera.

Deunge-ri ge atzizki bagetzaillea ken ezkeru *deun* geratuten da; eta *deunge* santu ez daitena danez, *deun* santua izan bear, gura nai ez, (nai ta ez). Gurasoak ezeze izen ona bere ba-dau, ba, *deun*-ek, adiskide. Obarik asmetan dabe lorrin-zaleak!

Ditu ta kideak, giputzak *dijoa*-ren ordez *doa* ta anaiak onartu da-gizuezanean erabilliko doguz.

Euskera *garbi* ta *bizia* gura dogu guk geuk. Mordoillu-zaleak barriz, loa, ulergatxa ta egundo bizirik izan ez daben eta izango bere ez daben azpikoz-ganerako lorriña. Ez dogu ulertan, «...baizik eta...» ta beste onen antzeko asakera arrotzik. obeto esan daroaguzan itzen tokie-

Euskaldun -errietan ondo baiño obeto esan daroaguzan itzen tokie-tan emon gura dautseen esan-gurea barik beste esan-gurarik adirazten dabilenak idaztea arbuigarri baizen kaltegarri yaku berbetearendako. Idazle batek bein, *gitarriaren kor-dak afinatu* idatzi eban. Euskaldun

jatorrez *gitarra-ariak gozatu* esaten dogu. *Korda* euskeraz gaztelerazko *guirnalda* edo antzekoren bat dogu. *Piper-korda lukainka-korga, lora-korda* ta abar: ba-da, ariaz, lora-az, (alanbreaz), naiz beste joskarriren batuz ondozkatu, (alkarren jarrai josi), ta eskegitoko eraz txortatuta-ko edozer gai. Idazlan onen asike-ran eragon dautsadan idazleak ai-tatu dodan EGAN-en *kontulari* di-ño *kontugille*-edo esan bearrez. *Kontulari* barritsueri, berbalduneri, esaten dautsague euskaldunak. Erdalkeriz kutsutu bako euskaldun jatorrak olako ganorabakakeriak irakurri dagiezanean, irri-barre lar-rririk egin daroe idatzi eukeanaren errukiz. Eta erdal-joskereaz idatzi-tako euskerea irakuten asi ba-daitez asi, irakurgaia amurrus jaurti, ezer ulertu eziniik.

Ikasi daigun besteak ulertako eraz idazten eta beingoan indar-ba-rrituko dogu gure berbetea maita-garria.

GAZTEDIA ZAARKERIAREN AURKA

L. M. Aranzeta

—Karmeldarra—

Ainbat mintzatu da gaurko gizonaren bizikeraz... Ainbat aburu eman dira... Eta ainbat auresan da beratzaz... Osoki, iguin ematen du guk, gizonok, Jaungoikoaren ezkukiak jakiteko dugun gogo itxusiak. Eta gaurko mundu ontan, dirudianez, denok dugu igarle izateko eskubidea; nai badugu gure ustea jaungoikoarendu egin genezake, edo ondorengo urrun edo gertu bat paren-parez munduari agertu eragin.

Aldi ontako krisisa gure gogokera artegak geiegi idealizatu du, eta ia izendatutzeak bakarrik atzera eragiten dio edonori; askoz geiago gazteoi. aundi-ustea gurenean edozer egiteko dugula.

Esango nuke aldi ontako krisisa deitzen dioten naaste den ori giza-diaren gogo-egokera bigatik bakarrik dala: Lenbizikoa, gogo-zaarkeria, ta bestea gaztedi berriaren bulzaka gogotsua, ludi guztia oiñarri gogor eta betirako izango litzakezen idea berrien gainean jarri naia.

Aurrenekoa, era guztietako pre-juizio eta garratz-aldiak osatutako aro naastuak antolatu du. Bai oinperatu ta etsi dituala zenbait kementsu aro orrek...! Bigarren konplejoa, ordea, gizaldi berri edo gaztetuak eratua da. Gazteak gertu daude norberekeri guztiak uzteko, azkencan udaberri loretsu bat iritxiko badute.

Etsita nago, gizona dala bakarrik

goibelkeria ta poza, gaztetasuna ta zaartasuna, egiten dituana, eta ez inguruko gauzak.

Gogo ta gorputza banatuta dabil, naiz-ta kidesan aundia izan batak besteakin. Baiña gogoia beti da gorputzaren goitik eta errez menperatzen du, ala ere noizbait gorputzak menperatzen du gogoia, au makal dagonean.

Orregatik, gaztetasunak eta gogo-zaarkeriak ederki bategiten dute gogo makal susmarietan; eta berdin zaartasunak ta gogo gazteak gizon baikor eta kementsuetan.

Aita Santuak berak, kristautasunaren itxaropen guztia gazteetan jarriaz, bera ere zaar-gazte bat zala esan zigun.

Gaurko gizadiaren egokerak berpizkunde bat bear duala argi degu, eta asi gera lenbiziko dizdirak ikusten... Berpizkunde au, iñolaz ere, Jaungoikoaren egikizuna izan bear du; baiña, uste det, gizonen bidez egin bearko duala, Gizon auek gogo gaztedunak izango dira, zaarkerian ez baitago piztuzerik. Gogo jausi batek here animako indarrak lotuak ditu. Bere garratz aldiak, eta prejuizio galantak eutsi egiten diote begitasunaren bultzakadei, eta

ito egiten ditu baikortasuna ta itxaropena. Auek, ordea, aurraperen eta garaipenaren iturriak dira.

Berpizkunde au adimenez baiña zuzenago, gogo on eta beroz eta norberaren eskeintza egitekoa da. Nainko da adimen erdixka bat indar oiek hibe zuzenetik eramateko.

Aldi ontan, bultzakada auek indartsu zuzentzen dira, gizon gogobero eta kemendunak geroago ta ugariago ditugula. Gizaldi berri onetzaz esaten zituan Pio XII'garranak itz aiek: «Atsegiñez ikusten ditugu, udaberri ikusgarriaren iragarkin bezela datozen gogo-indar galantak».

Osoa zatiak egiten badute, esan genezake guztien krisisa bakoitzagandik asi bear dala sendatutzen. Onela gaur eguneko makalkeria eta munduaren larria jasotzea gaztedi berriaren lana da. Gaztedi baikor eta langille batek baiña ezin ditu berriz ekarri gizadiarengan, materialismoak ezkutatu nai izan ditun gizonaren gogo-balioak. Gizon bakoitzean berpiztu egin bear du, egingtaz, ia batera indarge ikusten degun Kristoren agindu arek: «Eman Kaiser'i Kaiser'ena eta Jaungoikoari Jaungoikoarena.

PATXI ESKUDERO: EUSKALERRIAREN MUSIKALARI

Ibarbia'tar Joxe Anjel

—Arantzazu'koa—

Sarritan igo izan da euskal-eresgille arrigarri au Arantzazu'ra; Baiña, batez ere bi ikustaldi zaizkigu oroigarrienak. Bat, orain sei urte, 1955'an, Arantzazu'ko urte santuan Poema Sinfonikoen norgeigoka bat jarri zala-ta, bertako txokoa aztertu nairik egin ziguna. Eta bein Arantzazu'n zegolarik etzigin gazteeri bere itzalditxoak ukatu. Eta ain musikarari sakon dalarik, bere itz jario xamurrean gazteon biotzak biziki esnatu zituen.

Bestea oraindik orain, 1960'ko udaberrian, bere Poema saritua emen arkaitz arte ontan entzutera etorri zanekoa, Aurretik Poema zoragarri onek Barcelona'n eta Donostian txalo luzeak, ongi merezita,

jaso zituen. Eta azkenik, guk ere txoko ontarako sortua zen edertia bertan atsengintsu miazkatzeko aukera izan genduan. Egun aretan, 1960'ko igande bat zan. Arizti bateko belar goxoan eseirik, Eskudero maixu ospatsuaren lagun gina eta bere Poema entzunez, artista onengan dugun gizon sakon, xamur onen lillura sumatu genduan.

Eta hinbitarteko alkarrizketan bere bizitza, lan eta asmoetaz eman zizkigun berriak gure aldizkarirako jaso genituen. Ona emen neronek zerbait orraztuak, baiño orduan sortu zidaten lillura ta zirrara berekin.

Eskudero gizon atsegiña da. Gozoa bere mintzoan; lasaia itz dagianean. Biotzean itsasirik daramazkin arte ta edertasunak azaltzen ez du ezkutukirik; dana danentzat agertzen da. Ez du areriorik; edertizaleen artean, au arrigarrizamarra irudi arren. Eta bere jarraibidean beste iritxikoren batekin arkitzen bada, itz auekin erabakitzen du ezberdintasun au: «Ez goaz bide berdiñetik. Eta gonbazioak mingarriak dira».

Jenioaren almena darاما biotzean, ernai ta baretasun batera delarik. Eskudero ez da ainbat edertilarien antzera azalean, jantzian galtzen dan oietakoa: Eskudero illargi-printza ur bareetan antzera zorrotz eta sakonki sartzen baida bere azterketa eta saioretan. Bere begirakune argian eta benetasunean musikalaria aundi eta sakona agertzen dala esango nuke.

Ez du itz jario geiegizkorik. Ontan euskaldunon zentzutasun eta aiurria ederki agiri ditu.

—Eta zure lanen balioaz zer?

—«Ez dagokit neri neurtze ori erabakitzea». Ez baida iñor norberaren lanen balioa azaltzeko egokien. Otregaitik etzait gaizki iruditzen nere gogo onari jarraituaz eta odol gaztearen ausardia ezkutugabe, bere esanei noizean bein nere iritzia itsastea. Askotan baditeke igarleena egitea eta ezer ez asma-tzea.

* * *

Eskudero, 1913'an Donostiko uri pitxian jaio zan. Bertako «Conservatorioan» egitu zituen leenbiziko armonia-ikasaldiak. Baiña, leenengoak bakarrik. Bere examiña parekabeekin Donosti'ko Aiuntamendu eta Diputazioaren beka bat irabazi baizuen. Eta beka onen bidez Madrillera joateko eskubidea zualarik, an Conrado del Campo maisuaren begirapean jardun zuen. Eta emen, Madrillen ere laister asi zan bere adimen zorrotza diztiratzen, eta atzerrirako beste beka bat lortu zuen. Laister zan Paris'en. Eta ainbeste artisten amets-kabi dan Paris'en, Le Flem eta Dukas ospatsuen aginduetara jarri zan. Eta azkenik, Leipzig'era jo zuen, eta Wolf'en eskuetan jarraitu ikastaldiak.

Ikastaroko urte auetan ondo oiñarritu da Eskudero. Bide au musikalaria aundi danak urratu bear izaten duñe. Berak aitortu digunez, Bach'eri jaso dion teknika eta Behetoveen'en forma jori ta aberatsa omen dira bere musikalaritzaren oiñarri irmoen eta sakonenak. Baiña, ba-diteke Ravel aundiak aitatu ditugun maisuak bezin biziki ezarren, biotz barneagotik Eskudero ukitu izatea. Ez da Ravel aoz Eskudero-ren maixu izan; baiña bai, Eskudero Ravel'ek lilluratuta beragana urbildu dana. Kidetasun bat ikusten dut Ravel eta gure Eskudero'ren artean, haiña ustegabea, bien euskal-aiurriak sortua baida, —Ravel Ziburu'n jaio zitzaigun—. Eta ki-

detasun onek eramanda ainbat ezti jaso du Eskudero'k Ravel'endik. Orregaitik ezin uka Eskudero'k asko zor dionik.

Ravel da, dudarik gabe, orain arte gure lur aldetan ezagutu dan musikalaririk zundiena; euskal-eresti-zati berezirik sortu ezarren. Teknika orraztua, biotz-ukitzez eta azal-ederrez oparotsua izanik, gizaldi ontan agertu den musikolari gorenetakoa da. Eta bere jarraitzaile gaztearen eresti-zati bat entzuteko aukera izan zuanean, «Cuarteto en sol» alegia, norena zan jakin gabe, iritzi gorenena eman zion. Orregaitik ez da arritzekoa Ravel'i euskaldun baten lana entzun zuala adieraztean oro txoraturik gelditu bazan. Orduarte ez oben zuen Ravel'ek Eskudero'ren berririk.

Eskudero garai auetarako atzerriko ibillaldietatik itzulita, Ravel'en kutsuak ikutua, aberriko txoko beroan ezarri da, eta dagoneko musikalaritzan gizon egiña dugu. Orain arte arbola gaztea sendotzen, indartzen egon da alerik emateko betarik etzuala, baña aurrerakoan erruz asiko da frutuak ematen, eta ale gorri-ori zoragarriak eman ere.

Bein Euskalerrian Bilbao'ko Miserikordi-etxean organista urte batzuek igarorik, 1947'an txapelketa paregabean Dorosti'ko Armonia-katedraren jabe aixa altxa zan. Eta gaurdaino bertan dugu maixu.

Bere kabitzat Zarautz erri atsegi-

ña aukeratu du. Eta emen biotza-ren kilima eresti lan arrigarriak asmatzen ari da.

Eskudero musikolari pizkor eta osoa erne da. Erestitia mamitu egiten du eta musika-lan berriak sortu. Eskudero benetan musikolari da. Eta, bere balioaz jabeturik, musikalaritzara biotz eta kemen guztiz emen da. Erestitia sortu egiten du, erakutsi eta batez ere bizi.

Eresgille bezela da ezagunen, au baida bere jantzirik ikusgarriena. Baña ezin aztu ditzakegu emen beste bere apaingarri ederrak. Biotzez musikalaritzara emana, ez da erestijauregi amesgarrian itxi, musikolari batentzako au egokien irudiarren. Ez, Eskudero'k emen ere gizonki jokatu nai izan du. Ez du bere musikalaritzako aberastasun guziaren jabe bakarra izan nai; orregaitik bere aberastasunetik iturri bat zabaldu digu, nai dugunok bertan gure pitxarra bete dezagun. Le Flem, Dukas eta bera bezelako maixu aundiak, bakoitza bere etxetxoan itxi izan balira, bera etzala dana izango konturatu baida. Eta au gizarte-onak, aurrerapenak eskatzen diguna da: musikolari aundiak *Conservatorio*an maixutzan jarri ditezela. Musika maixuak ikastetxetik urrun dabiltzanean ezin musika-saicen burubide aundirik, zuzenik izan. Emen ere bizitzako mailla guztietan gertatzen dana jazotzen baida. Eta itxua bide urratzaile artea galbide segurua da. Orregaitik ezin uka musikaliaren aunditasu-

* * *

na ikastetxeko maixutzan, lan sortzetan bezin garbi azaldu ezin ditekunik.

Jakin naiak eragin da, zeredozer galdetu nion ikasleezaz Eskuderori. Berarekin asko zebiltzela banekian. Eta erantzuna etzan ain baikorra izan:

—Ikasleak erruz dauzkat, eta batzuek haliokoak. Baiña gaurko gazedia ar gaiztoak jota dago. Dirua maite du ta zauri au gozatan alegintzen da. Eta batez ere ez du musikalaria on bat egiteko astirik artzen. Azkar burua altxa nai da, eta ondo ernetzeko lenen usteldu egin bear.

—Zer metodu-era iruditzen zaizu musikalaritzan aurreratzeko onuragarriena?

—Norberaren balioei begirune aundia zor zaie; baiña, ala ere, lenengo urteetan maixuaren arauetara itxu-itxuan jarri ta lotu bear da. Urte auck bizitza guztiko bideak zuzentzen baidituzte. Orregaitik garrantzi aundienekoak iruditzen zaizkidalako, maixuaren arauak norberaren balioen gaidik jartzen ditut urte auetan. Erne nai duen aziak iturriko ur gardenetik edango du, arago musikalaritzan tinkatu nai duenak. Baiña nundik xurgatuko arte ona? Maixu aitor-klasikue-tatik bezin egoki inñundik ez. Onekin ez det ikaslea beti maixuaren aginduetara egon bear duenik esan nai. Ez. Ikaslea aurrera dijoalarik, are ta askatuago utzi bear da, bera

baida erabaki bear duena, ez maixu. Norberarena baida edertia.

* * *

Abeslari-taldeak zuzentzen ere oso yayoa dugu Eskudero. Ikustekoak dira ordurarte ain paketsu zarenaren arintasun, kemen eta indarrak. Ez da beiñere aulkira igo batbatean eta beste gabe. Edozein musika zati jendearen aurrean emateko, biotzean bakardadea egin bear dela dio, gogoaren pakean abestiaren muiñetaraiño sar dedin. Zuzendaritza bukatu ondoren ez da lengoa Eskudero. Musikaren ukiak eraginda, biolin baten dardara bezin urduri jartzen da.

Saioetan zorrotz jokatzen du, serio-tasuna maite du, eta bere elburua lortu arte ez du etsitzen.

Donosti'ko Orkestak zinez maite du, eta bere zuzendaritza artzen duanean aski irabazten dute talde onen saioak.

—Zein garrantzi emango zenioke Zuzendariaren egintzari, galdetzen diot.

—Guar larregi estimatzen da zuzendariaren lana. Entzule asko ez datoz abestiaren goxotasuna xurgatzera, zuzendariaren geiegikeri edo arinkeri eragabekak ikustera baizik. Askotan entzun izan oi da: Zuzendari orrek jazkera berezi ta zerbait berezirik eman dio musikari... Baiña ez da au egia; ez da Zuzendaria abestiari jantzi berria ematen dio-na, erestiak berak baidaramazki

edergarri auek danak. Zuzendari onak erestiarren mamian arkitu bear du entzuleari eman nai dion giarra. Bestela ez da eresti-zuzendari izango. Zuzendariaren aunditasuna abestian gorde diran kolore guztiak erakustean eta entzulearen gustagarrri jartzean baidago.

* * *

Oraindik ez dugu Eskudero'ren aberastasan -putzu guztia agortu. Egia aitortu nai badugu, ezer gutxi sakondu dugu gure maixu gorongarriaren nortasun arrigarrian. Eskudero batez ere eresgille, abesti-asmatzaille da. Gutxi dira gaur Espaini'an, inor ez esateagatik, lan auetan Eskudero'ri eramango diotenik. Uri nagusian bere izen ospetsua oraindik ezagutu ez arren, Madrillen ez haidute ez «Illeta», ez beste bere lan bikainik entzun nai izan, au egia izango da. Gombazioak mingarriak dira, baiña, ez da au nere iritzia, gai ontan ikasiena baizik.

Ez dute, ez orfeoi-abestien armonizazioek, ez pianorako bariazioek betetzen, gorago igo nai du ausarditsu. Lan benetakoak gogozkoago zaizkie, emen agertzen baida gizonaren adimena; orregaitik, opere-tan, sinfonietan, eta Oratorio sailletan lan egiten du; auek korapillotsuagoak, zabalagoak diranez.

Ez da mailla auetara igo dan euskaldun bakarra. Lentxoago ikusi genduan Usandizaga'ren izar dirdiratsua, baiña tamalez oso igeskorra, izen aundiko operista izan bada ere.

Euskalerrri'ko Mozart deritzaiogun, Arriaga erio-izotzak erretako lore bikaiña. Guridi ere ez da izan edozein... Eta aitatu auen gain Ravel gorenaren artezi eta adimen zorrotza agiri dira, Eskudero'k ainbat zor dion gizon arrigarria.

Lau musikalaria auek, gauan zeru goian erein oi diran pitxien antzera dizdiratzen dute Euskalerrria. Eta bakoitzak, ziñez esan dan bezela, norberaren etorriari jarraitzen dio eresti berriari joskera alaia ematean; eta au gauza guztietan. Danok geren erara iokatzen baidugu, eta euskaldunak, itz, amets... dana euskal-eraz dagi. Lau musikalaria auek ere euskaldun dirala, euskeraz asmatzen dituzte beren erestiak. Euskal-biotza euskeraz mintzatzen! Gizona aiurriak nortzen du ederkien; ondo aski salatzen ditu auek ere beren izaerak. Izan ere odola euskalduna izanik, ezin euskaldun baizik agertu. Eskudero'ri ere beste ainbeste gertatzen zaio.

Baiña, onekin ez du euskaldun batek nolabait euskal-muingabeko erestirik sortu ezin dezakenik esan nai. Eta askotan, gure musikalaria euskal-musika egiten asi arren, folkloretik jasotako doiñuak, jantzi dotorez eta alaietz apaintzen saiatu dira bakarrik. Ta au ez da eresti berria asmatzea, len esan dugun bezela, edertzea, jantzi ikusgarriagoz jaztea, antolatzea da. Gogoratu ditzagun Guridi'ren «Diez Melodías vascas» bikaiñak eta bere saillean paregabeak.

Eta emen arkitzen da Eskudero'ren nortasun eta balioa. Bere jokae-ra berri, jori eta jasoan.

Asko aupatu da, ta areago gaurko egunetan, folklore-musikaren narotasun eta balioa. Europa'n batez ere, folklore eresti-saio txikietatik jasotako ezti tantoz Orkestarako gauza arrigarriak sortu dituzte bertako musikolari bizkorrak. Euskalduno'k ezertan aberats bagera, abestietan gaituzu aberatsenak. Baiña euskal-folklore saila oso landua badugu ere, oraindik ez gera bearezko maillara iritxi. Guridi, Donosti eta abarren lan aupagarriak ditugunarren, eskuratu dezakegun gaillura ez dugu lortu. Eta onek dirudi gure maixuaren elburu zailla, baiño txalogarria.

Ta buruan ondo sartu dezagun Eskudero'k ez duela erriaren doiñua oso-csoan jasotzen, bere kutsua baizik, bere lanaren gain-muiña biurtuaz. Doiñuak berak ajola gutxi du; doiñu orrek barnetik daraman apartekotasuna da inportateena: doiñuan bertan ez baiño barruago ortan baidago erriaren nortasuna.

Eskudero'k bere ardura guztia erri erestiaren muin edo espiritua jasotzen ipintzen du. Eta bertan gorde diran ezti tantoak xurgaturik erriak eman dion aide berri edo arnasa arkitzen leiatzen da atsedetik gabe. Erri bakoitzak abestieri bere izaera, berezitasuna erasten dio, eta au da Eskudero'k arkitu nai duena. Berezitasun auek: kadentzi, eska-

listika, ritmo ta abar. Eta musika-sai auetan arkitzen da erritar abestien narotasun eta balio guztia. Orregatik Eskudero'k euskal-abestia aztartzean berezitasun auek arkitu nai ditu. Auetzaz jabetu ondoren, abesti berriak alako erritar kutsuaz mamituak asmatzeko. Era ontan, ordurarte azturik lozorroan bezela zeuden erritar erestiaren berezitasun eta kemen berriak ematen dizkio. Orregatik ez du ia erritar melodirik erabili nai izaten, adimenaren ego ariñeri eragiñez atsegiñago zaio euskal-musika-senari dagokionez berriak kreatea.

Eskudero'k, euskalduna, musikari bezela aztertzen duela esan dezakegu utsik cgin-gabe; eta bere dantza eta abestien bitartez euskal-espiritua ikutzeraiño iristen da, bera bertan kutsatzen dalarik. Eta jakina, gero eresti asmatzeak euskal-ur gozotan gozaturik egiten ditu.

Bidez aitor dezakegu Eskudero'k euskal-izaerak bultzata, era erreze-tatik igesi dalarik, Orkestaren aunditasunean asetzen duela bere aundinai egarria.

Orregatik Eskudero musikari orokorra, ubersala dala zabaldu duenak ez du uts egin. Era ontan: euskal-erestiaren gain-muiña xurgatuaz, bere lanetan mundu guztiaren gustagarri jartzen baiditu euskaldunok gai ontan ditugun aberastunak. Eskudero'k esana da: «Maita gorenagoko bizitz baten miñak eta gure gogaiak adieraziaz gure erria osatu bear dugu, bere mintzo

orokarrean erriak alkartu ditezen».

Lortu ote da amets lilluragarri
au? Galdera oni kondairak eran-
tzungo dio. Guk ez baidugu gai on-
tan gure iritzia emateko ainbat eza-
gutza, euskal-eresti osoa ezagutu
bear dalarik. Baiña, egi-zale azaldu
nai badut ezin uka dezaket Esku-
dero lan ontan oso aurrera dijoanik,
eta onen egiztapen, ara or «Illeta»-
ren eta «Zigor»en dizdira itxuga-
ria. «Concierto vasco»ren ederra ez
da txikiagoa. Orkestarako ta piano-
rako asmatutako lan onek, «Premio
Nacional» sari nagusia lortu ondo-
ren beronek urratu zuan Eskudero-
ren ospe-bidea. Ez det uste ezer gei-
ago izendatu bearra dudarik. Baiña
«Illeta»zaz agertu dan iritzia azal-
du nai nuke. Ona zer dioten musi-
kalariak: «Oratorio saillean asma-
tu dan lanik egokien eta oneneta-
koa da *Illeta*».

«Zigor», bukatuta egon arren, ez
da oraindik entzutera eman.

Arantzazu'ri buruz eginiko «Poe-
ma Sinfonikoa» ez dijoa Eskudero-
k geienetan arrotutako bide ontatik.
Sariketaren arauak bultzatu bai
ninduten, dio, bidez kanpora. «Nere
jokaera euskal-folklore saillean
xurgatu ta bertatik jasotako lega-
miaz edertasun bereziak piztea da,
ta ez doiñu-tema erritar zaarrak jan-
tzi berriz apaintzea bakarrik». Izan
ere, Poema ontan S. Inazioaren Mar-
txa, «Erreberentzi dantza», eta bes-
te «Benedicta»ko abesti-tema ba-
tzuek baidarabilzki.

Nabari dugun bezela, Eskudero,

Poema ontan ere, osoki euskaldun-
musikalari agertzen da. Euskaldu-
na bere jaiotzean, euskalduna aiur-
riz, eta batez ere euskalduna eresti
mamian. Euskal-folklore muiñ-
muiñetik aztartzan du, Euskal-erri-
aren ederti almenak zabal-zabalik
dauden kutxa aberatsean. Eta ber-
tan gogoa sukaturik eta teknika
oraztua dualarik, eresti berriak
ematen dizkigu.

Euskal erestiaren berezitasune-
tzaz mintza zitzaidan pitin bat: rit-
mo berriaz, kadentziaz, ezkalistikaz
eta abarri buruz.

Utzi dezagun lan au teknikoen
azterketarako.

* * *

Eskudero'rekin izan genduan iz-
ketarte gozoaz ari ginala, onela
mintza zan norbait: Zein eskolatan
sartu dezakegu Eskudero? Onelako
apalaketa ta gonbazioak ez dira
errezak. Utzi dazeiogun kondairari
lan ori. Ala ere, zeredozer adierazi
digu Eskudero'k bere unibersaltasu-
na ondo-artzearekin; mundura be-
gira ekin baidio lanari.

Goian adierazi dugun bezela, Es-
kudero «Eresti folkloreaken orokar-
tasunak» ukitua dauka. Aide onek
indar aundia artu du azkenengo gi-
zaldietan. Bide ontatik dabilta
Grieg, Dvorak ta Falla musikalari
ospetsuak, beste askorekin. Baiña
orregatik Eskudero'k bere jatorta-
sunean zeredozer galtzen duela esa-
tea ez litzake egoki. Bere erestia
beste bat izango baita. Grieg'ek no-

ruegatar biotza ta Dvorak'ek Txekoslovakitarra bezela, gure Eskudero'k euskal-biotz mintzo xamurrean itz egiten digu. Inork irabazi badu, gure folkloreak merezi baidu mundu osorako bide au.

Eskudero berak adierazi zigun Ravel'ekin duen kidesan eta aidentasuna. Baiña kidesan au, batez ere, gaztarako lenengo urteetan mantendu zuan. Geroztik, berak esana da, bere lanez urratu omen du bide berria, lan ontan almen eta egokitasun guztiak jartzen zitualarik. Norbaitek ba-diteke beragan maixuen kutsuren bat usmatzea; au ezin uka dezakegu, danok baidugu amaren odoletik.

Eta, musikalaritzan aurreko mogimenduren baten jarraile edo bide berrien kreatorrekin dan galdetu nionean, laburki ta argi erantzun zidan:

—«Formalista naiz ni».

Eskudero benetan Debussy'ren impresionismo lañotasunetik urrin dabil, onek maitekiro lorategi au landu arren. Impresionismua ez da aurre-eskemetara jeisten. Eskudero berriz ausardi onen etsai agertzen da. Lenbizi, etxe bat jasotzen danean bezela, oiñarria finkatzen du, erestiarren ezurra alegia, eta gaindik mamiarekin apaintzen, betetzen, biotzak erne dion uki-giarretsuarekin. Baiña, ez da maixu klasikoek asmaturiko formatatik asten dan oi-etakoa, ez: berak forma berrietan ixurtzen du bere etorria. Onek Eskudero'ren libertade ta menpekota-

suna ongi uztartzen ditu. Au ez da, nere ustez, ez akats, ez txirotasun; erestia asmatzean berori dagokion bidetik ekitea baiño.

—Gaurko armoni berria klasikoan zarra bezin bikaina da. Nik nere abestietan «tonal» edo «atonal» garratzena berdin darabilkit. Naia ondoen azaltzen didan era ura baitzait egokiena.

Kritikoez zurki azaldu digute Eskudero'k orkestra - instrumentuetaz duen ezagutza arrigarria; izan ere, lilluragarriak dira berak ateratzen dizkien espresio - zolitasunak. Egiaz, Eskudero'k bere lanetan lortu ditun efeko asko ez dago obetoga lortzerik. Esate baterako: «Illeta»ko ekaitza, «Arantzazu'ko Poemako» agerkunde lilluragarria, ta abar. Zeini ez dio «Illeta»k biotza ukitu? Espresionista ote dugu bada Eskudero'...

Esanarekin ez da naikoa; bere lanetan geiago baidago. Bere lera bizia eta lirismo biguina ezin aztu ditzakegu. Ederki dagerkizu aita-turiko Oratorio eta Poeman.

Beste bereziutasun bat bere deskrizio-joera da. Jendetzaren oiñotsa, gudu-giro beroa, mendi-arrats gozaren pakea... Sarri bere abestian pintatzen ari dala irudi izan zaigu. Eta maiz mundu ta idea berriak amesarazi dizkigu Eskudero'ren musika-biozkadak.

* * *

Saio onetan Euskal-erriak ezagutu duen musikalaririk aundieneta-

ko baten argazkia eman dut. Bukatzeko esan dezadan, orain arkitzen dala Eskudero eldua, orain aleak emateko gertua. «Concierto, vasco», «Illeta», «Arantzazu'ko Poema», eta «Zigor»erekin urratu duen bi-dea zabala ta dirdiratsua dirudi. Gaztea izanik ugaritsu datorkigu Eskudero. Eta zergaitik beragan si-

nestu ez? Zergaitik bere izen ospetsua munduko musikari undien artean ikusiko degula esan ez?

Eta au gertatzen danean, iritxiko aal da, euskaldunok gere aberastasunetik limosna egingo dugu. Eta Eskudero'ren lei aundia eta bikaina betea, asea litzake.

AZKEN POEMA

Kantsazioaren aitzakiarekin
nire gradotik
dimisioa
presentatzen dudalarik,
beste enplego
nekagarriago bat
onartzen dut.

Gabriel Aresti eta Segurola

EUSKERA IKASI

- Aburu: *opinión*.
aitzingibel: *aurreatze*.
aitzitik: *por el contrario*.
akar: *riña*.
aldi-unea: *tiempo*.
altxor: *tesoro*.
amiñi: *poquito*.
ardietsi: *conseguir*.
arta: *cuidado*.
aurkeztu: *presentar*.
Banatzaille (epaipen): *(juicio) analítico*.
batutzaille (epaipen): *j. sintético*.
bere(d)in: *mucho, -os*.
betatu (bete): *cumplir*.
Edatsuak: *extensos*.
ein: *proporción*.
ekandu: *costumbre*.
entendimena: *entendimiento*.
entendipena: *intelección*.
eraiki: *(hacer) levantar*.
eralgi: *gastar*.
erauzi: *hacer saltar*.
erlantz: *brillo*.
etekin: *provecho*.
czarian: *pausadamente*.
Gandu: *bruma*.
gaitzetsi: *condenar*.
gaizkatu: *salvar*.
gazte-aro, -zaro: *juventud*.
Gizakunde: *Encarnación*.
guziekiko: *universal*.
Hunkitu: *tocar, conmovér*.
idoki: *abrir, quitar*.
iñarkun: *ejercicio*.
istil: *charco*.
itzuri: *escapar*.
Jakinduria: *sabiduría*.
jakintza: *ciencia*.
jin: *venir*.
jomuga: *meta*.
Kirio: *tuétano?, nervio? (Azk.)*
kopuru: *cantidad*.
Legami: *levadura*.
leku-unea: *espacio*.
Nehor: *iñor*.
oartuna: *reflexivo*.
oldozkai: *idea*.
oldozkun: *pensamiento*.
onoimen: *virtud*.
oratz: *huella*.
orbandu: *manchar*.
otamen: *bocado*.
Sakaildu: *exterminar*.
sen: *instinto*.
sorbatz: *filo*.
sorkari: *criatura*.
taiu: *porte*.
txango: *viaje*.
txunku: *articulación*.
urgun: *cojo*.
Zurindu: *carcomer*.